



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko abenduaren 27a

149. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru-lege proiektuak:**

- 11-24/LEY-00011. 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsi du (2. or.).
- 11-24/LEY-00012. Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsi du (102. or.).

---

**A saila:**  
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

---

## **11-24/LEY-00011. 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko abenduaren 19an egindako bilkuran, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea**

#### **I. TITULUA**

##### **Kredituak eta horien aldaketak**

#### **I. KAPITULUA**

##### **Hasierako kredituak eta horien finantzaketa**

**1. artikulua.** Nafarroako Aurrekontu Orokorren eremua.

1. Onetsi egiten dira 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak. Atal hauek dituzte:

a) Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganberaren eta Arartekoaren erakundearen aurrekontuak.

b) Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuak.

c) Nafarroako Kontseiluaren aurrekontua.

d) Foru Komunitateko fundazio publikoen aurrekontuak.

e) Foru Komunitateko sozietate publikoen aurrekontuak.

f) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontu zenbatetsia eta finantzaketa.

g) Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren aurrekontua.

2. Halaber, jasotzen da Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren aplikazio eremuan dauden beste subjektu eta entitate batzuen aurrekontuei buruzko informazioa, lege organiko horren 6.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

**2. artikulua.** Kredituen eta eskubide ekonomikoen zenbatekoa.

1. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuetako gastuen egoera-orrietan sartutako programak betetze aldera, onesten dira 6.431.264.947 euroko zenbateko bateratua duten kredituak.

2. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuetako diru-sarrereren egoera-orrietan, aurrekontu ekitaldian likidatu asmo diren eskubide ekonomikoen zenbatespenak agertzen dira; hain zuzen ere, 6.431.264.947 euroko zenbateko bateratua dute.

3. Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat, gastu ez-finantzarioaren muga, behin Toki Ogasunen Funtsa eta Estatuarentzako ekarpena deskontatu ondoren, 4.781.527.567 eurokoa da, diru-sarrera ez finantzarioak, kontabilitate nazionalaren doikuntzak eta defizit-muga batuta.

#### **II. KAPITULUA**

##### **Aurrekontu-kredituen aldaketa**

**3. artikulua.** Aurrekontu-kredituen aldaketa eta aurrekontu-mugimenduak.

1. Aurrekontu-kredituen aldaketak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko aginduen arabera izanen dira, foru lege honek agindu horiek aldatzen ez dituen heinean.

2. Partiden arteko funts-mugimenduak egiten ahalko dira, baldin eta partida horietan agertzen diren kredituek helburu bera badute baina partidak desberdinak badira Europar Batasunak horretara behartzen duelako, gastuen erabilera hobeto kontrolatzearen, gastuak hein batean hark kofinantzatuak izatearen ondorioz. Mugimendu horiek ez dira aurrekontu-aldaketatzat hartuko.

Partida zer departamenturi dagokion, departamentu horretako kontseilariak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena.

**4. artikulua.** Europar Batasuneko programen aurrekontu-aldaketak.

1. Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, eta Enpresen Sustapenerako zuzendari nagusiak txostena egin ondoren, zilegi izanen du beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak baimentzea, Europar Batasunak kofinantzatutako programak eta proiektuak modurik onenean betetzeko ekitaldian zehar, Batzordeak hasierako dokumentuan onetsitakoari edo jarraipen batzordeek edo Batzordeak berak ondoren eginiko aldaketei jarraituz. Aurrekontu-aldaketak gastuen egoera-orrietan agertzen diren edozein motatako kredituen bidez finantzatu beharko dira.

2. Kreditu-aldaketak zuzeneko eragina badu Europar Batasunak kofinantzatzen dituen proiektuak biltzen dituzten partidetan, aldez aurretik Enpresen Sustapenerako Zuzendaritza Nagusiaren txostena beharko da. Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) kofinantzatutako kredituei eragiten dieten aldaketak salbuetsirik daude.

**5. artikulua.** Kreditu-handitzeak.

1. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 47. artikuluko 1. apartatuko a) letratik g) letrara bitartekoetan aipatutako kredituez gain, handigarriztat joko dira, 2025eko ekitaldiari dagokionez, helburu hauetarako lehendik dauden partidak edo aipatu helburueta- ra bideraturik ekitaldian zehar sortu beharreko suertatzen direnak: terrorismoaren biktimak edo motibazio politikoko ekintzen biktimak aintzatestearen eta horiei erreparazioa ematearen ondorioz, indarreko legedian zehaztu bezala, onets litezkeen kalte-ordain, dirulaguntza eta maileguak emateko partida guztiak, bai eta Gizarte Segurantzarako kotizazioen ordainketari dagozkion partida guztiak ere.

2. Gainera, 2025eko ekitaldirako handigarriak izanen dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxaron-zerrendak murrizteko neurriak finantzatzera bideratuta dauden edo ekitaldian zehar xede horrekin sortu beharreko suertatzen diren partida guztiak, nahiz eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura ez egon. Partida horien izenean "itxaron-zerrendak" aipamena jasoko da.

3. Era berean, 2025eko ekitaldirako handigarriztat joko dira 2025eko inbertsio-programakoak izanik foru lege honen 80. artikuluan jasotakoak diren inbertsioak finantzatzera bideratuta dauden edo ekitaldian zehar xede horrekin sortu beharreko suertatzen diren partida guztiak, nahiz eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura ez egon. Partida horien izenean "PRIN25" aipamena jasoko da.

4. Aurrekoez gainera, honako hauek ere handigarriztat joko dira:

4.1. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko partida hauek:

a) 100000-10000-4709-441100 partida, "AUDENASA. Merkataritza-politika" izenekoa.

b) 114001-13100-3101-923700 partida, "Kredituen interesak eta komisioak" izenekoa.

c) 114001-13100-3509-923700 partida, "Kontu korrante eta antzekoetako saldoengatikoko ordain-saria" izenekoa.

d) 111002-11300-6002-923100 partida, "Lurra eta natur ondasunak" izenekoa.

e) 111002-11300-6003-923100 partida, "Eraispenak" izenekoa.

f) 111002-11300-6020-923100 partida, "Instalazio berriko eraikinak eta obrak, eta ondare higiezinaren erreforma" izenekoa.

g) 111002-11300-6020-923104 partida, "Higiezinari buruzko Plana. Administrazio bulegoak" izenekoa.

h) 111002-11300-6050-923100 partida, "Higiezinaren Plana. Eraikin eta obretako altzariak eta ekipamendua" izenekoa.

i) 111002-11300-8500-923100 partida, "Sektore publikoko akzioak erostea" izenekoa.

j) 151000-17300-2273-923400 partida, "Enkargua TRACASA Instrumental sozietateari. Tribu-

tuen arloko informazio sistemetan datu fiskalak jasotzea eta integratzea” izenekoa.

k) 155005-17800-3501-932100 partida, “Berandutze-interesak sarrera bidegabeen eta zergen itzulketetan” izenekoa.

4.2. Lurralde Kohesiorako Departamentuko partida hauek:

a) 210001-21100-4609-942300 partida, “Toki erakundeentzako konpentsazioa toki tributuetako hobariengatik” izenekoa.

b) 220000-22000-6010-453300 partida, “Prezio-berrikuspina” izenekoa.

c) 220003-22200-2090-453200 partida, “Iruña-Logroño A-12 autobiarene kanona” izenekoa.

d) 220003-22200-2090-453202 partida, “Pirinioetako A-21 autobiarene kanona” izenekoa.

e) 220003-22200-6010-453305 partida, “Errepide sarearen kontserbazioa eta kontrol zentroa” izenekoa.

f) 220003-22200-6010-453306 partida, “Zoruak sendotzea” izenekoa.

g) 220004-22100-4700-452100 partida, “Nafarroako Ubidetik egindako ureztaketene kanona” izenekoa. Handitzearen 1. fasea”.

4.3. Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko partida hauek:

a) 320000-32100-4809-261400 partida, “Etxebizitzene errentarientzako dirulaguntzak” izenekoa.

b) 320000-32100-7800-261400 partida, “Etxebizitzarene arloko jardueretarako dirulaguntzak eta subsidioak” izenekoa.

4.4. Hezkuntza Departamentuko partida hauek:

a) 400000-40100-3501-321100 partida, “Berandutze-interesak” izenekoa.

b) 400000-41000-1220-322000 partida, “Aldi baterako kontratudun langileen ordainsariak” izenekoa.

c) 400000-41000-1800-322000 partida, “Zerbitzuen, osagarri berrien, graduarene, antzinasunarene, eszedentzia-itzulerene eta beste batzuen aitortpena” izenekoa.

d) 400000-41000-1810-322000 partida, “Langileen ordainsariak, aurreko ekitaldietakoak” izenekoa.

e) 400000-41000-1820-322000 partida, “Epaiak, kalte-ordainak eta egonkortzeagatikoko konpentsazioak exekutatzea” izenekoa.

f) 410000-41600-4609-322004 partida, “Unibertsitateaz kanpoko etapetako ikasleek espazioak erabiltzeagatikoko transferentziak” izenekoa.

g) 430004-43500-6081-322000 partida, “Ikasli-burueen doakotasunerako plana” izenekoa.

h) 430004-43500-7811-322000 partida, “Ikasli-burueen doakotasunerako programa” izenekoa.

i) 410003 proiektukoak, “Irakaskuntza pribatu itundurako eta parekaturako dirulaguntzak” (kode ekonomikoa: 4811).

j) 430005-43500-2210-324100 partida, “Jantokiak” izenekoa.

k) 430005-43500-2230-324100 partida, “Eskola-garraioa” izenekoa.

l) 430005-43500-2230-324102 partida, “Hezkuntza bereziko eskola-garraioa” izenekoa.

m) 430005-43500-4800-324100 partida, “Eskola-garraiorako banakako laguntzak” izenekoa.

n) 430005-43500-4800-324102 partida, “Jantokietarako laguntza banakatuak” izenekoa.

ñ) 420007-42900-4609-322100 partida, “Hitzarmene udalekin, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeakoak” izenekoa.

o) 430001 43100 4800 322E00 partida, “Lanbide Heziketako ikasleene praktikak: Gizarte Segurantzak” izenekoa.

4.5. Osasun Departamentuko partida hauek:

a) 54. programa-taldekoak, artikuluko honetako 2. apartatue aipatutakoak izan ezik, honako kode ekonomikoko hauei dagozkienak: 2210, 2213, 2214, 2215, 2216, 2286, 2287 eta 2500; bai eta 52. programa-multzoarene barruan 2215 kode ekonomikoko ari dagozkionak ere.

b) 540000-52000-1800-311100 partida, “Osasun-langileene lanbide karrera”.

c) 540000-52000-1810-311100 partida, “Langileene ordainsariak, aurreko ekitaldietakoak” izenekoa.

d) 540000-52000-1820-311100 partida, “Epaiak, kalte-ordainak eta egonkortzeagatikoko konpentsazioak exekutatzea” izenekoa.

e) 540002-52833-2231-311100 partida, “Osasun-larrialdietarako eta ambulanzietarako Plana” izenekoa.

f) 540002 52833 2231 311103 partida, “Enkargua BIDEAN sozietateari. Osasun-garraioa” izenekoa.

g) 540002-52833-4809-311104 partida, "Protesiak, ortesiak eta desgaitasuna dutenentzako ibilgailuak" izenekoa.

h) 540005-52831-4809-313100 partida, "Farmazia-prestazioak" izenekoa.

i) 540005-52831-4809-313102 partida, "Xurgatzaileak eta beste osasun-produktu batzuk" izenekoa.

j) 540005-52831-4809-313103 partida, "Farmazia-prestazioak - koordinketa arautzea" izenekoa.

k) 543000-52200-6057-312802 partida, "Kirurgia-tresnak" izenekoa.

l) 543004-52214-2276-312700 partida, "Farmako-ekoizpenerako plasma-zatikatzeko lanak" izenekoa.

m) 545000-52400-6057-312803 partida, "Kirurgia-tresnak" izenekoa.

n) 546000-52500-6057-312803 partida, "Kirurgia-tresnak" izenekoa.

4.6. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuko partida hauek:

a) 710000-71200-4700-412100 partida, "Lan-daketak erazteagatik kalte-ordaina" izenekoa.

b) 710000-71200-4700-412107 partida, "Aparteko uholdeak direla-eta azpiegitura pribatuetan izaniko kalteak eta errenta-galera arintzeko laguntzak" izenekoa.

c) 710001-71200-4700-414210 partida, "Aseguru primen konpentsazioa Agroseguroren bitartez" izenekoa.

d) 710004-71300-2279-412205 partida, "Larrialdiko txertaketa ofizialak" izenekoa.

e) 710004-71300-7700-412200 partida, "Kalte-ordaina abereak epizootien ondorioz hil behar izateagatik" izenekoa.

f) 710006-71500-4700-414100 partida, "Nafarroako Ubidearen ureztaketan kanona" izenekoa.

g) 710006-71500-7609-414402 partida, "Aparteko uholdeak eta suteek kaltetutako nekazaritza-azpiegitura publikoetarako laguntzak" izenekoa.

h) 710006-71500-7700-414400 partida, "Aparteko uholdeak eta suteek kaltetutako nekazaritza-azpiegitura pribatuetarako laguntzak".

i) 710006-71500-7819-414100 partida, "Ureztatzaileen Elkarteen nekazaritza azpiegiturak konpontzea, aparteko uholdeengatik" izenekoa.

j) 710006 71500 7400 414302 partida, "INTIArentzako kapital transferentzia, makinerian eta espazioetan inbertsioak egitekoa" izenekoa.

k) 720004 72200 7400 412100 partida, "INTIArentzako kapital transferentzia, makinerian eta espazioetan inbertsioak egitekoa" izenekoa.

l) 740002 74200 7400 456300 partida, "Kapital-transferentzia GAN-NIK enpresari, bere instalazioetan inbertsioak egitekoa" izenekoa.

4.7. Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko partida hauek:

a) 810001-81100-4819-422203 partida, "Eskualdeetako plan estrategikoak" izenekoa.

b) 810001-81100-7819-422200 partida, "Eskualdeetako plan estrategikoak. Proiektuak" izenekoa.

c) 810001-81100-7609-458104 partida, "Eguesibarko Udalarentzako transferentzia. Berrikuntza Hiriko aparkalekua" izenekoa.

4.8. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuko partida hauek:

a) 2600 kode ekonomikoak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean aurreikusitako Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onetsi zuen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuan ezarritako prestazio bermatuak finantzatzeko izan eta 901003, 920005, 920006 eta 920008 proiektuetan daudenak, salbu eta FSE+ funtsaren bidez kofinantzatutako partidak.

b) 901002-91100-4809-212100 partida, "Kotizazio gabeko pentsioak" izenekoa.

c) 901002-91100-4809-231500 partida, "Errenta bermatua" izenekoa.

d) 901002-91100-4809-231502 partida, "Gizarte inklusiorako laguntza bereziak" izenekoa.

e) 901002-91100-4809-231505 partida, "Bizitzeko gutxieneko errenta" izenekoa.

f) 901003-91600-4809-231600 partida, "Prestazio ekonomikoak eta ingurune irekiko akonpainamendu soziala gizarte-bazterketan daudenentzat" izenekoa.

g) 901003-91600-4609-231500 partida, "Etxerik gabeko pertsonentzako harrera-zerbitzua eta PSH akonpainamendu sozialeko beste programa batzuk" izenekoa.

h) 901003-91600-4609-231502 partida, "Oinarritzko laguntzako gizarte-zerbitzuak" izenekoa.

i) 901001-91100-4819-143103 partida, “Nazioarteko larrialdiei berehalako erantzuna ematea” izenekoak.

j) 920004-93200-4809-231B00 partida, “Zerbitzuari lotutako laguntzak” izenekoak.

k) 920004-93200-4809-231B02 partida, “Zerbitzu pertsonalei erantzuteko laguntzak” izenekoak.

l) 920004-93200-4809-231B06 partida, “Bizimodu independenterako laguntzaileak kontratazea desgaitasuna duten pertsonentzat” izenekoak.

m) 920008-93300-4809-231700 partida, “Babes sistemako gazteen autonomiarako baliabideak” izenekoak.

n) 920008-93300-4809-231702 partida, “Familiantzako prestazio ekonomikoak” izenekoak.

ñ) 920008-93300-4809-231704 partida, “Besteren ikastetxeetako haur-kuotak” izenekoak.

o) 950001-96100-4709-241109 partida, “Enplegu-zentro berezietarako laguntzak” izenekoak.

p) 950001-96100-4809-241109 partida, “Autoenplegua sustatzeko laguntzak” izenekoak.

q) 950001-96100-4819-241104 partida, “Konferentzia sektoriala. Zailtasunik handieneko kolektiboen gizarteratze- eta laneratze-programetarako laguntzak” izenekoak.

4.9. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko honako partida hau:

a) A20003-A2300-6056-333100 partida, “Kultura-ondasunak eskuratzea” izenekoak.

b) A30001-A3100-7819-432107 partida, “Aralarko San Miguel- bidegunea. Ostatu-aterpetxea izatekoa den eraikina birgaitzea” izenekoak.

4.10. Lehendakartzako, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuko partida hauek:

a) F20001-F2100-4819-112103 partida, “Doako laguntza juridikoa” izenekoak.

b) F30001-F3100-1001-921400 partida, “Lehendakari ohi, kontseilari ohi eta Nafarroako Gobernuako beste goi kargudun batzuentzako prestazioak” izenekoak.

c) F30001-F3100-1620-921400 partida, “Langileen arloko erabakiak aplikatzeko funtsa” izenekoak.

d) F30001-F3100-1800-921400 partida, “Zerbitzuen, osagarri berrien, graduaren, antzinatasunaren, eszedentzia-itzuleren eta beste batzuen aitorpena” izenekoak.

e) F30001-F3100-1800-921402 partida, “Ordainsarien igoera” izenekoak.

f) F30001-F3100-1800-921405 partida, “Osasun-langileen lanbide-karrera” izenekoak.

g) F30001-F3100-1810-921400 partida, “Langileen ordainsariak, aurreko ekitaldietakoak” izenekoak.

h) F30001-F3100-1820-921400 partida, “Epaiak, kalte-ordainak eta egonkortzeagatiko konpentsazioak exekututzea” izenekoak.

i) F30001-F3100-1820-921403 partida, “Lan istripuengatiko kalte-ordainak” izenekoak.

j) F30001-F3200-1614-211100 partida, “Erretiro aurreratuengatiko kalte-ordainak” izenekoak.

k) F40002-F4600-2140-921800 partida, “Ibilgailuen eta makineriaren konponketak eta mantentze-lanak” izenekoak.

l) F40002-F4600-2281-921800 partida, “Erregaiak eta lubrifikatzaileak” izenekoak.

m) F41000-F4100-2274-132103 partida, “Genero indarkeriatik babesteko segurtasun zerbitzuak” izenekoak.

4.11. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko partida hau:

a) G10001-G1100-7455-322302 partida, “Kapital transferentziak NUPi: Medikuntzako eraikina” izenekoak.

## II. TITULUA Langileria-gastuak

### I. KAPITULUA Jarduneko langileen ordainsariak

**6. artikulua.** Nafarroako Administrazio Publiko-eta funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariak.

1. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariek gehikuntza izanen dute; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoan diharduten langileentzat 2025erako ezartzen duen gehieneko gehikuntza orokorra. Horrek ez du ezertan galaraziko beharrezkoak diren ordainsari-doikuntzak egitea, halatan ziurtatzeko ezen lanpostu bakoitzari esleitutakoak behar bezalako zerikusia daukala lanpostu horren edukiak berezi duen zailtasun tekniko, dedikazio, erantzukizun, arriskugarritasun edo nekagarritasunarekin.

2. Maila bakoitzaren hasierako soldatak urteko zenbateko hau izanen du 2025ean:

Maila	Urteko zenbatekoa, eurotan
A	30.247,00
B	25.445,84
C	21.108,36
D	18.383,54
E	16.170,42

**7. artikulua.** Nafarroako Administrazio Publiko-  
etako lan-kontratudunen ordainsariak.

1. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondo-  
rioekin, Nafarroako Foru Komunitateko Adminis-  
trazioan eta haren erakunde autonomoetan dihar-  
duten langile lan-kontratudunen ordainsariak  
haien hitzarmen kolektiboan zehazten direnak izan-  
nen dira, foru lege honetan funtzionarioentzat fin-  
katutako irizpideei jarraikiz.

2. Nafarroako gainerako administrazio publiko-  
etan diharduten lan-kontratudun langileen ordain-  
sariak, berriz, administrazio publiko bakoitzak bere  
aurrekontuetan ezartzen dituenak izanen dira, foru  
lege honek funtzionarioentzat ezarritako irizpideei  
jarraikiz.

**8. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko  
Administrazio eta haren erakunde autonomo-  
tako izendapen libreko zuzendaritza-karguen  
ordainsariak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administra-  
zioko zerbitzuetako zuzendaritzentzat, bai eta  
haren erakunde autonomoetako zuzendaritzak  
izan eta haiekin parekatuta daudenentzat ere,  
60.417,28 euroko urte-ordainsariak ezartzen dira  
2025erako, hamalau hilekotan banatuta, araudi  
indardunaren arabera legezkiekeen gradu, antzinasun  
eta familia-laguntzako ordainsari pertsonalez gainera  
eta, beren jatorrizko izendapenagatik edo beren  
zerbitzu-ematearen baldintza bereziengatik, plantilla  
organikoan berariaz esleituta leuzkaketen ordainsari  
osagarriez gainera. Horretarako, ez da kontuan  
izan lanpostuko osagarriaren hasiera bateko ehuneko  
a, sartuta dagoena kasuko honenbesteko ordainsariaren  
lehenbiziko kalkuluan.

Zerbitzuetako zuzendariak beren jarduna esku-  
ragarritasun osozko eta erabateko dedikaziozko  
arabidean beteko dute.

2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko  
eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osa-  
sunaren Institutuko izendapen askeko zuzendari-  
tza-karguen 2025eko ordainsariak ondotik zehaz-  
ten diren urte-zenbatekoak izanen dituzte,  
hamalau hilekotan banatuta, ezertan galarazi

gabe araudi indardunaren arabera legezkiekeen  
gradu, antzinasun eta familia-laguntzaren  
ordainsari pertsonalak:

a) Zerbitzu ez-asistentzialetako burutzak:  
60.417,28 euro.

b) Nafarroako Odol eta Ehun Bankuko  
Zuzendaritza: 66.494,96 euro.

Baldin eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun  
Zerbitzuko eta Nafarroako Osasun Publikoaren  
eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendaritza-  
kargu horien titular den pertsonaren bat artikulua  
honetan jasotzen den zenbatekoa baino gehiago  
jasotzen ari bada gaur egun, aldegatik konpen-  
tsazio pertsonal bat ordainduko zaio, kargu horre-  
tan diharduen bitartean.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administra-  
zioan eta haren erakunde autonomoetan izendapen  
askeko zuzendaritza-karguetan diharduten langile-  
en ordainsariak izanen dute, kasu bada, 6. artiku-  
luan xedatzen denaren aplikaziotik eratorritako igo-  
era bera.

**9. artikulua.** Nafarroako Gobernu kideen,  
Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-  
ko goi-kargudunen eta behin-behineko beste langile-  
en ordainsariak.

1. Nafarroako Gobernu osatzen duten kideek,  
zuzendari nagusiek, erakunde, sozietate eta fun-  
dazio publikoetako zuzendariak eta Nafarroako  
Foru Komunitateko Administrazio eta haren erakunde  
autonomoetako zuzendariak gainerako behin-behineko  
langileek hurrengo apartatuetan zehazten diren  
ordainsariak jasoko dituzte 2025ean.

2. Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari  
buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen  
35. eta 45. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz,  
Nafarroako Gobernu kideek, 2025ean, ondoren  
zehazten diren urteko ordainsariak izanen dituzte,  
hamalau hilekotan banatuta, ezertan galarazi  
gabe, langile finko eta kontratadunei dagokienez,  
kasu kasuko zerbitzu-harremanari aplikatu  
beharreko araudiaren arabera legezkiekeen  
gradu- eta/edo antzinasun-ordainsariak:

– Nafarroako Gobernu kideen lehendakaria:  
82.975,06 euro.

– Lehendakariordea, kontseilaria eta kon-  
tseilari-eheduna: 77.218,96 euro.

3. Lehendakariaren kabinetean eta Nafarroako  
Gobernu departamentuetako titularren kabinete-  
etan goi-kargudun izaera duten langileek ondoren  
zehazten diren urteko ordainsariak izanen dituzte  
2025ean, hamalau hilekotan banatuta, ezertan

galarazi gabe, langile finko eta kontratudunen kasuan, kasuan kasuko zerbitzu-harremanari aplikatu beharreko araudiaren arabera legezkiekeen gradu- eta/edo antzinatasun-ordainsariak:

- Lehendakariaren aholkularia: 66.163,58 euro.
- Kontseilarien kabineteburuak: 61.582,22 euro.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, zuzendari nagusiek 66.163,58 euroko urteko ordainsariak izanen dituzte 2025ean, hamalau hilekotan banatuta, ezertan galarazi gabe, langile finko eta kontratudunen kasuan, kasuko zerbitzu-harremanari aplikatu beharreko araudiaren arabera legezkiekeen gradu- eta/edo antzinatasun-ordainsariak.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 52.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, erakunde publikoetako zuzendaritza-karguek ondotik zehazten diren ordainsariak izanen dituzte 2025. urtean, hamalau hilekotan banatuta, ezertan galarazi gabe, langile finkoak eta kontratudunak izanez gero, kasuan kasuko zerbitzu-harremanari aplikatu beharreko araudiaren arabera legezkiekeen gradu eta/edo antzinatasun ordainsariak:

a) Erakunde autonomo bateko zuzendari kudeatzailea, salbu eta ondoko b) letran xedatutakoa: 66.163,58 euro.

b) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak: 102.225,90 euro.

c) Erakunde autonomo bateko zuzendariordea: 60.417,28 euro.

d) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaritza-karguak:

– Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzailea, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko kudeatzailea, Profesionalen zuzendaria, Kudeaketa Ekonomikoren eta Zerbitzu Orokorren zuzendaria eta Eriari Osasun Laguntza emateko Ataleko zuzendaria: 78.115,80 euro.

– Tuterako Osasun Barrutiko kudeatzailea, Lizarrako Osasun Barrutiko kudeatzailea eta Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko zuzendari asistentziala: 68.277,44 euro.

– Osasun Mentaleko kudeatzailea, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko zuzendariorde asistentzialak, Tuterako Osasun Barrutiko zuzendari

asistentziala, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailetzako Oinarrizko Osasun Laguntzako eta Laguntzaren Jarraitutasunerako zuzendariordeak eta Nafarroako Larrialdietako zuzendariordea eta Hil ala Biziko Larrialdiei Arreta emateko zuzendari teknikoa, eta osasun barrutietako zuzendariordeak: 66.494,96 euro.

– Zerbitzu Zentraletako zuzendariordeak: 65.293,76 euro

– Profesionalen zuzendaria, Kudeaketa Ekonomikoren eta Zerbitzu Orokorren zuzendaria, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Osasun Zainketen zuzendaria eta Oinarrizko Osasun Laguntzako Zainketen, Etxeko Arretaren, Arreta Soziosanitarioaren eta Ekintza Komunitarioen zuzendariordea, Langileriaren eta Lan Harremanen Zuzendariordea, Administrazioaren, Zerbitzu Orokorren eta Trantsizio Ekologikoren Zuzendariordea, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Kalitatearen, Prozesu Klinikoen eta Garapenaren Zuzendariordea eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendariordeak: 62.338,78 euro.

– Nafarroako Laguntza Soziosanitarioko Planaren koordinatzailea eta Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Osasun Zainketen zuzendariordeak: 56.484,54 euro.

6. Lehendakariaren eta Nafarroako Gobernua osatzen duten kideen kabinetetako gainontzeko behin-behineko langileek ondoren zehazten diren urteko ordainsariak izanen dituzte 2025. urtean, hamalau hilekotan banatuta, ezertan galarazi gabe, langile finko eta kontratudunei dagokienez, kasuan kasuko zerbitzu-harremanari aplikatu beharreko araudiaren arabera legezkiekeen gradu- eta/edo antzinatasun-ordainsariak:

– Lehendakariaren idazkaria: 40.851,16 euro.

– Kontseilariaren idazkaria: 37.236,08 euro.

– Kabineteko laguntzailea: 32.613,98 euro.

7. Aurreko apartatuetan araututako behin-behineko langile izanik langile finko edo kontratudun ez direnek, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioei dagokien antzinatasun-saria jasoko dute, eta horretarako kontuan hartuko da behin-behineko lanpostuetan lanean emandako denbora.

8. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoan sartuta dauden Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko sozietate publikoetako goi-kargu izaerako zuzendaritza-karguek ordainsari hauek izanen dituzte 2025ean:



Zuzendari kudeatzaileentzat, urteko oinarrizko soldata gordina, hamalau hilekotan banatuta, 65.726,11 eurokoa izanen da. Urteko ordainsari

hori doitu egingen da kudeatu beharreko enpresa publikoaren konplexutasunaren arabera, taula honi jarraituz:

SOZIETATE MOTA	KONPLEXUTASUNAREN OSAGARRIA	URTEKO OINARRIZKO SOLDATA GORDINA, EUROTAN
D	% 0	65.726,11
C	% 10	72.298,70
B	% 30	85.443,93
A	% 55	101.875,45

Sozietateen sailkapena, sozietate-motaren arabera, Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez ezarriko da.

9. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren fundazio publikoetako zuzendariak urteko ordainsari hauek izanen dituzte 2025ean, hamalau hilekotan banatuta:

- Miguel Servet Fundazioa: 65.293,81 euro.
- Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoa (FUNDAPA): 56.484,38 euro.
- Baluarte Fundazioa: 71.665,02 euro.
- Gizain Fundazioa: 66.163,63 euro.
- Miguel Indurain Fundazioa: 54.632,48 euro.

10. Nafarroako Gobernuko kide den inork, ez eta Nafarroako Foru Komunitateko gainerako goi kargudunek ere, ez dute dieta pertsonalik jasoko inolako entitate publiko edo pribaturengandik, administrazio kontseiluen nahiz kide anitzeko inolako organoren bileretara joatearen ondoriozko. Baldin eta betetzen duten ordezkarietarako dietarik jasotzen badute, ordaintzaile den sozietateak edo erakundeak dirua zuzenean sartuko du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kasuan kasuko aurrekontu- edo sozietate-kontuan.

11. Nafarroako Gobernua osatzen duten kideen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko goi kargudunen eta gainerako behin-behineko langileen ordainsariak 6. artikuluan xedatzen dena aplikatuz kasua bada eratorritako igoera bera izanen dute.

## II. KAPITULUA

### Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboak

**10. artikulua.** Nafarroako Administrazio Publikoaren montepioetako funtzionarioen klase pasiboaren pentsioak eguneratzea.

1. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, pentsio publikoek urte horretan duten igoera bera izanen dute Nafarroako Administrazio Publikoaren montepioetako funtzionarioen klase pasiboaren pentsio izanik indarreko araudiaren arabera eguneratzeko eskubidea duten pentsioek.

2. Pentsio publikoaren arloko araudi indarduna aplikatuz, eguneraketa ez zaie aplikatuko jadanik aitortuta dauden edo etorkizunean aitortuko diren pentsioei, baldin eta, berek bakarrik nahiz haiei baturik, kasua bada, onuradun berak jasotzen dituen beste pentsio publiko batzuen zenbatekoa, gainditu egiten badute pentsio publikoentzat ezarritzen den urteko gehieneko zenbatekoa.

**11. artikulua.** Arauak, aplikatzekoak zaizkionak Nafarroako administrazio publikoaren montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sistemari atxikitako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubideari.

1. Martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legea indarrean jarri baino lehen indarrean zeuden xedapenei jarraituz die artikulua honetan aipatzen den funtzionarioen eskubide pasiboaren araubideak. Erregulatze-soldata zehazteko, kontuan hartuko dira funtzionarioek foru lege horren eta hori beteitzeko emandako behin-behineko ordainsari-erregelamenduaren aurreko sistemaren arabera jasotzen zituzten ordainsaririk handienak, horiei ekitaldi bakoitzeko Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeetan adierazitako portzentajeak gehitu-

rik. Salbuespena izanen da lan istripuagatik edo gaixotasun profesionalagatik eskuratutako pentsioei buruz artikulua honetan xedatutakoa.

2. Aurreko apartatuan aipaturiko xedapenen ildotik, zerbitzualdia erretiro eta pentsioen ondorioetarako zenbatzeko, funtzionarioek zerbitzuan egiazki egindako urteak bakarrik hartuko dira kontuan. Urte horien barrenean sartuko dira Administrazio Publikoan egiazki emandako zerbitzu-urteak, betiere kasuko administrazioak aitortuak Foru Diputazioaren 1981eko urriaren 29ko eta 2001eko otsailaren 5eko Erabakiei eta apirilaren 14ko 21/1983 Foru Dekretuari jarraikiz.

Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo Nafarroako toki erakundeen montepioetakoren bati atxikitako funtzionarioek sortutako erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioen kasuan, foru lege honek indarra hartu ondoren jardunean daudela hiltzen badira edo erretiroa hartzen badute, pentsioen zio den egitaterainoko atzeraraginez zenbatuko dira aipaturiko funtzionarioek Gizarte Segurantzaren araubideetan kotizatutako aldiak, baldin eta aldi horiek ez badira gainjartzen aipatu montepioei kotizatutako beste batzuekin. Horren helburu bakarra izanen da zehaztea zein diren eskubide pasiboetarako hartzeko zenbagarriak eta kasuko pentsioa kalkulatzeko aplikatu behar den portzentajea edo kuota, kotizazio- edo zerbitzu-urteengatikoa.

Aurreko paragrafoan jasota egon eta funtzionarioek sortuak diren erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioetarako, inola ere ez dira honako hauek zenbatuko: aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren araubideetan kotizatutako aldiak, baldin eta aldi horiek, kasua bada beste batzuekin batuta, aipaturiko araubideetan pentsiorako eskubiderik sortu badute. Salbuespen izanen dira SOVI delakoaren prestazioetarako eskubidea sortzen duen kotizazioa eragin duten aldiak, zenbatu eginen baitira horiek.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo Nafarroako toki erakundeek dituzten montepioetakoren baten babesean dauden funtzionarioek alargun-pentsioa sortuz gero, bikotekide egonkorrek ere izanen dituzte eskubide pasibo horiek, Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearekin bat.

3. Artikulu honen 1. apartatuan xedatutakoa betez, eta Nafarroako Administrazio Publikoan zerbitzuko langileen estatutuaren aplikazio-esparruaren barnean dauden funtzionario publikoek 2025ean zehar sortutako erretiroak eta pentsioak finkatzeko, honako hau hartuko da kontuan:

a) Eskubide pasiboetan eragina duten lansari kontzeptuen zenbatekoak 2025. urteari dagozkionak izanen dira; hau da, 1983. urtekoei geroko aurrekontuei buruzko foru legeek finkatutako gehikuntzak aplikatzearen emaitza direnak.

Salbuespen gisa, lan istripuak edo gaixotasun profesionalak eragindako ezintasunagatik erretiro-pentsioen kasuan, bai eta lan istripua edo gaixotasun profesionala dela-eta hiltzearen ondoriozko alargun- edo umezurtz-pentsioenean ere, hartzeko erregulatuak osatuko dute erretiroa edo heriotza gertatu aurreko urtean kasuko funtzionarioak bere lanpostuagatik jasotako ordainsariak.

b) 1980ko urtarrilaren 29ko Parekatze Arautik eratorritako ordainsari-sistematik kanpo geratu ziren udal funtzionarioentzat, haren bigarren xedapen gehigarriko bigarren paragrafoan emandako ahalmenari jarraikiz, pasiboetan eragina duten ordainsari kontzeptuen zenbatekoa honako hau izanen da: funtzionario horientzako 1983ko zenbatekoari hurrengo urteetan izandako gehikuntzak aplikatzearen emaitza.

4. Funtzionarioek pentsio araubidearen finantzaketan parte hartuko dute 13/1983 Foru Legearen aurreko araudia aplikatuz atera den zenbatekoarekin, zenbateko horri ondorengo urteetako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legeetan ezarritako pentsio-igoerako portzentajeak gehiturik.

5. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Administrazio Publikoetako montepioen gutxieneko erretiro-pentsioa, bai martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sisteman jarraitzen duten funtzionarioena, bai aipatu foru legean aurreikusitakoari atxikitakoenena, 2024. urterako ezarritakoa izanen da, zeina 18.031,44 eurokoa baita, baina 2025era eguneratua, pentsio publikoek urte horretan oro har izanen duten igoera aplikaturik.

Hirurogeita hamar urteko adina betetzen dutenetik aurrera, honakoei ere aitortuko zaie arestiko paragrafoan ezarritako gutxieneko pentsioen baliokidea den zenbatekoa jasotzeko eskubidea: beren borondatez erretiratu eta, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurretik zegoen eskubide pasiboaren sisteman jarraituta, dagokien administrazio publikoan hogeita hamar urte baino gutxiagoko zerbitzualdi aitortua frogatzeagatik eguneratze-eskubiderik gabeko pentsioa sortu dutenei.

6. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, gutxieneko alargun-pentsioen zenbatekoa izanen da ekitaldi horretarako ezarritako den lanbide arteko gutxieneko soldataren adinako urteko zenbatekoa.

7. Artikulu honen 6. apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko eskubide pasiboen sistema aplikatuz emandako Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako edozeinen kargurako umezurtz-pentsioei, horietako bakoitzaren erregelamenduan xedatutakoaren arabera eman ere, 1991ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 26ko 5/1991 Foru Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarriak emandako testuaren arabera hain zuzen.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik baztertu egiten dira, beraz, aipatu 5/1991 Foru Legean ezarritako aldaketaren aurretik aplikatzekoa zen araudiaren arabera emandako umezurtz-pentsio guztiak, salbu eta onuradunaren ezintasun-egoerarengatik eman zirenak.

8. Foru Diputazioko funtzionarioen erretiroei eta pensioei buruzko Erregelamenduaren 8. artikuluko 3. apartatuan eta Udal funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Erregelamenduaren 10. artikuluan aipatzen diren umezurtz-pentsioak eta udal Montepio partikularretan ezaugarri berak dituzten umezurtz-pentsioak onartu egiten dira, baldin eta pensio horiek eskuratzeko bete beharreko baldintza guztiak betetzen badira pensioa sorrarazten duen pertsona edo, bestela, alargun-pensioa jasotzen duen ezkontidea edo bikotekide egonkorra hiltzen den egunean.

9. Nafarroako Administrazio Publikoetako Montepioetako alargun-pentsioak bateragarriak dira bai norberak egindako lanarengatik jasotako diru-sarrerekin bai erretiro-pentsioarekin.

10. Ezintasun iraunkorraren deklarazioak, bai eta haren graduak ere, berrikusten ahalko dira onuraduna 65 urte baino gutxiagoko adinekoa izanez gero, dela egoera larriagotu nahiz hobetzeagatik, dela diagnostiko-akatsagatik, betiere arau hauei jarraikiz:

a) Ezintasun gradua berrikusteko espedientea ofizioz edo interesdunak eskatuta irekitzen ahalko da, eta Ezintasunak Baloratzeko Nafarroako Epaimahai Medikoak horri buruzko proposamen loteslea egiten du.

b) Ezintasun iraunkorreko gradu jakin bat deklaratu duen funtzionarioa gradu altuago batean birsailkatua izanez gero, dela egoera larriagotzeagatik dela diagnostiko-akats batengatik, kasuko pensio-esleipenak eragina izanen du berrikuspen-espedientea ebatzi eta hurrengo hila-beteko lehen egunetik aurrera.

Birsailkapena diagnostiko-akats baten ondorio denean, eskubidea izanen du harako zenba-

tekoa jasotzeko zeina baita espedientea ebatzi arte jasotakoaren eta ezintasun gradu altuagoa aitortuta jaso beharko zukeenaren arteko aldearena, lau urteren mugarekin.

c) Aurreko apartatueta aipatzen den berrikuspenak Foru Diputazioaren 1970eko apirilaren 17ko eta 1972ko azaroaren 24ko erabakietan ezarritako eraginak izanen ditu. Erabaki horiek indarra izaten jarraituko dute foru lege honetan ezarritakoaren aurka ez doan guztian.

**12. artikulua.** Udal funtzionarioen Montepioen finantzaketa.

1. Nafarroako Gobernuak ekarpena egiten du Nafarroako toki erakundeetako funtzionarioen pensioak finantzatzeko, Udal Funtzionarioen Montepio Orokorrekoak direnen kasuan. Ekarpene hori banatuko da Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren kudeaketagatik 2024ko ekitaldian sortutako kostuen ordainketari dagokionez udal bakoitzari esleitu zaion kuotaren araberako proportzioan.

2. Halaber, Nafarroako Gobernuak ekarpen bana egiten die Iruñeko, Tuterako eta Tafallako udalei, beraien Montepio berekien kudeaketak 2024ko ekitaldian sortutako kostuen arabera.

3. Aurreko apartatueta ezarritako ekarpenen zenbatekoa izanen da ateratzen dena Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarria aplikatuzetik.

4. Udal Funtzionarioen Montepio Orokorrek bere klase pasibo guztien prestazioak direla-eta daukan defizita estaltze aldera udalerrri bakoitzari esleitzen zaion kuota kalkulatzeko da udalerrri bakoitzak defizita kalkulatzeko den unean duen biztanle-kopuru ofizialarekiko proportzioan. Banaketa horretatik salbuetsita geratuko dira Iruña, Tuterako eta Tafalla udalerrriak, Montepio propioa dutelako.

### III. KAPITULUA Irakasleen ordainsariak

**13. artikulua.** Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak diruz lagundutako eskola-jantokietan diharduten irakasleen ordainsariak.

Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako jantokiak arautzen dituen maiatzaren 29ko 58/2024 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera jantoki-administratzaile, -arduradun edo -zaintzaile lanak egiten dituzten irakasleek honako ordainsari gordin hauek jasoko dituzte jardun efektiboko egun bakoitzeko:

BAZKALTAR KOPURUA	JANTOKIKO ARDURADUNA EUROTAN	ADMINISTRATZAILEA EUROTAN	ZAINZTAILE BAKOITZEKO EUROTAN
1-80	19,19	16,95	19,19
81-160	21,41	16,95	19,19
161-240	22,97	19,00	19,19
240 baino gehiago	23,76	21,77	19,19

Artikulu honetan ezarritako zenbatekoak eguneratuko dira Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariak kasuan kasuko aurrekontuen foru legeetan eguneratzen diren ehuneko berean.

**14. artikulua.** Irakasleei prestakuntza emateagatiko ordainsaria.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio eta haren erakunde autonomoetako langileek ordainsaria jasotzen ahalko dute irakasle aritzeagatik dela Hezkuntza Departamentuak urtero egiten duen Irakasleen Prestakuntza Planean jasotzen den prestakuntza-jardueraren batean, dela Hezkuntza Departamentuko zuzendaritza nagusiek nahiz Irakasleei Laguntzeko Zentroek zuzenean antolatutako direnetakoren batean; betiere, eginkizun hori beren lanalditik kanpo betetzen badute. Aipatu ordainsariak honako hauek izanen dira:

- Prestakuntza presentziala:

a.1 Ponentzia bakoitza, halakotzat ulerturik prestakuntza-jarduera batean aditua den pertsona batek ematen duen eskola-ordua, gehienez 62,55 euroekin ordainduko da.

a.2 Konferentzia bakoitza, halakotzat ulerturik aditu batek interesekoa den zientzia-, teknologia- edo gizarte-gai bati buruz ematen duen jendaurreko hitzaldia, gutxienez 90 minutuko iraupenekoa, 381,91 euroekin ordainduko da gehienez ere.

- Urrutiko prestakuntza:

b.1 Urrutiko prestakuntzako jardueretan koordinatzaile telematikoko gisa parte hartzea 1.107,55 euroekin ordainduko da gehienez, bost tutore koordinatzeagatik. Koordinatu beharreko tutoreak bost baino gutxiago baldin badira, ordainsaria proportzioan kalkulatuko da. Koordinatu beharreko tutoreak bost baino gehiago baldin badira, koordinatzaile telematikokoak 103,83 euroko ordainsaria jasoko du tutore bakoitzeko, bosgarren tutoretik aurrera.

b.2 Urrutiko prestakuntzako jardueretan tutore telematikoko gisa parte hartzeagatik 49,60 euroko

ordainsaria emanen da gehienez, tutoretzapeko ikasle bakoitzeko.

2. Aurreko apartatuan adierazitakoa ez zaie aplikatuko Irakasleentzako Laguntza Zentroetan edo unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako prestakuntza jarduerak diseinatu eta garatzen dituzten unitate organikoetan destinoa duten irakasleei.

3. Artikulu honetan ezarritako zenbatekoak eguneratuko dira Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariak kasuko aurrekontuei buruzko foru legeetan eguneratzen diren ehuneko berean.

**15. artikulua.** Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ordainsariak eta osagarriak.

1. Beren irakastordu guztiak Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan ematen dituzten Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleei esleitutako irakaskuntzako osagarri berariazkoa Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunen kidegoko funtzionarioek jasotzen duten bera izanen da.

2. Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleek beren ordutegiaren parte bat Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan ematen badute, azken zentro horretan emandako lanaldi-portzentajearen proportzioan jasoko dute Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunei esleitutako irakaskuntzako osagarri berariazkoaren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoari esleitutakoaren artean dagoen aldea.

**16. artikulua.** Kilometroengatiko diru-ordaina, prestakuntza jardueretara joandako irakasleentzat.

Kilometroengatiko diru-ordaina jasotzeko esku-bidea izanen dute Hezkuntza Departamentuko zuzendaritza nagusietako titularren ebazpen bidez deitutako prestakuntza-jardueretara hezkuntza-administrazioak berariaz izendatuta joaten diren irakasleek, betiere eskubide hori berariaz jasotzen bada dagokion ebazpenean.

**17. artikulua.** Irakaskuntzako praktiketan dauden funtzionarioen ordainsariak.

Irakasle kidegoetan sartzeko eta igotzeko izangaiek, praktiketako funtzionario izendatuak izan ondoren, honako ordainsari hauek jasoko dituzte izaera horrek dirauen bitartean: betetzen duten lanpostuaren mailari dagokion oinarritzko soldata eta ordainsari osagarriak, antzinasun saria, graduari dagokion ordainsaria, familia-laguntza, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko administrazio-kontratudunentzat orokortasunez ezartzen den beste edozein ordainsari ere.

**18. artikulua.** Lanbide-gaitasunen ebaluazio, aitorpen eta egiaztapenerako prozeduretan esku hartzen duten irakaskuntza publikoko langileen-tzako ordainsariak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko irakasleek, lanbide-gaitasuna egiaztatzeko prozeduretako aholkularitza- edo ebaluazio-faseetan esku hartzeko izendatuak baldin badira, arlo horretan eskumena duten departamentuek dei eginda, ondotik aipatzen diren ordainsariak jasotzeko eskubidea izanen dute, abuztuaren 27ko 66/2014 Foru Dekretuan araututakoarekin bat, zeinak finkatzen baititu pertsonen lan-esperientziaren edo beste prestakuntza-bide ez-formal batzuen bidez lortutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura Foru Komunitatean ezartzeko arauak eta horretaz arduratuko den antolaketa egitura:

a) Egiaztatze prozedurako aholkulariak:

– Izangai bakoitzagatik jaso beharrekoa, kasu hauetan:

3 gaitasun-unitate aholkularitza bitarte, 123 euro.

4, 5 edo 6 gaitasun-unitate aholkatu, 153,75 euro.

6 gaitasun-unitate aholkatu baino gehiago, 184,50 euro.

– Izangai berak lanbide arlo bereko kualifikazio gehigarria izateagatik osagarria, 51,25 euro.

b) Egiaztatze prozedurako ebaluatzaileak:

– Izangai bakoitzagatik ebaluatzaile nagusi izatearen ordainsaria, honako kasu hauetan:

Ebaluatutako 3 gaitasun-unitate bitarte, 133,25 euro.

Ebaluatutako 4, 5 edo 6 gaitasun-unitate, 169,13 euro.

Ebaluatutako 6 gaitasun-unitate baino gehiago, 205 euro.

– Izangai bakoitzagatik bigarren mailako ebaluatzaile izatearen ordainsaria, honako kasu hauetan:

Ebaluatutako 3 gaitasun-unitate bitarte, 61,50 euro.

Ebaluatutako 4, 5 edo 6 gaitasun-unitate, 76,88 euro.

Ebaluatutako 6 gaitasun-unitate baino gehiago, 92,25 euro.

– Ebaluazio batzordearen arduradun izateagatik ordainsaria (taldeko).

Ebaluazio batzordeko burua, 205 euro.

Ebaluazio batzordeko idazkaria, 102,50 euro.

Ordainsari hauek konpentsazio gisa ezartzen dira, kontzeptu hauengatik: aholkularitza- eta ebaluazio-saioen prestaketa eta garapena; izangaiei zuzeneko arreta ematea; prozedurako agiri-kudeaketa; eta deialdia egiten duten administrazioekin koordinatzeko lana.

2. Nafarroako Gobernuak baimena eman dezake, foru dekretuz, prozeduran esku hartzeagatik ordainsaria eman dakien aholkulari eta ebaluatzaileez bestelako pertsona batzuei, baldin eta haien laguntza beharrezkotzat jotzen bada egokiro aurrera eraman daitezten lanbide-gaitasuna egiaztatze prozedurak.

**19. artikulua.** Hezkuntza Departamentuaren mendekoak diren unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen ordainsariak.

Hezkuntza Departamentuaren mendekoak diren unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen irakaskuntzako osagarri berariazkoa, zeina ezarrita baitago abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 104. artikuluan, zehazten da kasuko mailari dagokion soldataren portzentaje hauen bidez:

a) Maisu-maistren kidegoa eta parekatuak: ehuneko 38,07.

b) Katedradunen kidegoak eta parekatuak: ehuneko 39,48.

c) Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa eta parekatuak: ehuneko 33,48.

d) Iraungitze bidean dagoen Lanbide Heziketa-ko irakasle teknikoaren kidegoa eta parekatuak: ehuneko 45,17.

e) Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoa eta parekatuak: ehuneko 45,17.

f) Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoa eta parekatuak: ehuneko 33,48.

g) Arte Plastikoetako eta Diseinuko lantegiko maisu-maistren kidegoa eta parekatuak: ehuneko 45,17.

h) Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen kidegoa eta parekatuak: ehuneko 33,48.

i) Hizkuntza eskola ofizialeko irakasleen kidegoa eta parekatuak: ehuneko 33,48.

j) Bigarren Hezkuntzako erlijio irakasleak: ehuneko 33,48.

k) Haur eta Lehen Hezkuntzako erlijio irakasleak: ehuneko 38,07.

l) Maisu-maistren kidegoko eta parekatuetako langileek, baldin Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren lehen xedapen iragankorrean ezarritakoari jarraikiz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lanpostuetara behin betiko edo behin-behinean atxikiak badira, Bigarren Hezkuntzako irakasle bati dagokion kopuru bera jasoko dute irakaskuntzako osagarri berariazko gisa. Era berean, osagarri berezi bat jasoko dute, B mailako hasierako soldataren ehuneko 5,45ekoa.

**20. artikulua.** Irakasleen irakastorduak zehaztea.

Irakasle-lanpostuak ikasturte bakoitzaren hasieran dauden beharizanen arabera betetze aldera, eta baldin kasuan kasuko espezialitatean ez badago irakastordu nahikorik, unibertsitateaz kanpoko irakasleek beste irakaste-espezialitate batzuetan irakatsiz beteko dute beren ordutegia, Hezkuntza Departamentuak ezarritako kasu eta baldintzetan.

**21. artikulua.** Ikastetxe publiko berriak.

Hezkuntza Departamentuak zilegi izanen du ikastetxe publiko baten sorrera baino lau hilabete lehenagorainoko aurrendenboraz izendatzea irakaskuntzako zuzendaritza-karguak, zeinek erregelamendu organikoetan ezarrita dauden eginkizunak bete eta Eskola Kontseiluari esleituta dauden eskumenak egikaritzeko baitituzte, hura eratzen den bitartean.

#### IV. KAPITULUA

##### **Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko langileen ordainsariak**

**22. artikulua.** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko langileen guardiak egun berezietan.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutukoek guardiak egun berezietan egiten dituztenean, produktibitate-modulu aldakor bat jasotzen ahalko dute, guardiari dagokionaren zenbateko bera izanen duena. 2024ko abenduan eta 2025eko urtarrilean, abenduaren 24a, 25a eta 31 eta urtarrilaren 1a, 5a eta 6a ordainduko dira, kontzeptu honen ordainsaria ematearren.

**23. artikulua.** Lanbide karrerako maila aitortua aplikatzea Osasun Sistema Nazionaletik etorritako langileei.

1. Osasun Departamentuan eta haren erakunde autonomoetan lanpostu finkoa lortzen duten C eta D mailako fakultatiboei eta sanitarioei Osasun Sistema Nazionaleko beste osasun zerbitzu batean egiaztatutako karrera-graduak aitortzen zaizkie, espezialitate, lanbide-kategoria edo titulazio-talde berari dagozkionak. Gradu horiek ordainduko dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langile horien karrera profesionaleko sistema arautzen duen foru legediak eta garapen-araudiak ezartzen dutenaren arabera.

2. Osasun Sistema Nazionaleko beste osasun zerbitzu batzuetatik iritsitako langileei, Osasun Departamentuko erakunde autonomoetan lanpostu bat zerbitzu eginkizunetan betetzen badute, Osasun Sistema Nazionaleko beste osasun zerbitzu batean egiaztatutako karrera-graduak aitortzen zaizkie. Gradu horiek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun-langileen lanbide karrerako araudian ezartzen denaren arabera ordainduko dira.

**24. artikulua.** Aldi baterako kontratua duten medikuen eta fakultatibo espezialisten eskusibotasun araubidea.

2025ean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berezia ezartzen duen 11/1992 Foru Legearen A.1 eta A.2.5 estamentuetako langileen aldi baterako kontratazio berriak dedikazio eskusiboaren araubidean eginen dira, eta kontratatutako profesionalak aukera izanen du dedikazio ez-esklusiboaren araubidea hauta-

tzeko, bere lehenengo kontratazio-egunetik hasita, hala nahi badu.

## V. KAPITULUA Bestelako xedapenak

### 25. artikulua. Lanpostuak birmoldatzea.

1. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio behar diren neurriak har ditzan, plantilla berregituratzeagatik edo eman beharreko zerbitzuak berrantolatzeagatik edukirik gabe gelditutako lanpostuak, hutsik ez daudenak, bestelako lanpostu bihurtzeko. Salbuespen gisa, eginkizun-berresleipenak eta horien ondoriozko lekualdatzeak, maila beraren barnekoak, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak eginen ditu zuzenean, sindikatuetako ordezkariari entzun ondoren eta ukitutako langileen adostasunarekin.

2. Lanpostu horiek maila bereko bestelako lanpostu bihurtzerik ez badago, salbuespen gisa baimena ematen ahalko da beste maila bateko lanpostuei dagozkien eginkizunak berresleitzeko, baldin eta ukitutako langileek eginkizun horiek betetzeko lanbide kualifikazioa eta eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzte. Berresleipen hori aldi baterako izanen da kasu guztietan, gehienez ere lanpostuaren mailaren barreneko atxikitzea edo birmoldaketa posible izan arterainokoa; eta beti bermatuko da langileak jaso eginen dituela aurretik betetzen zuen lanpostuari zegozkion oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarriak.

**26. artikulua.** Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak.

1. Arau orokor gisa, 2025era luzatzen dira Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1. artikuluko 1., 2., 3. eta 6. apartatuetan jasoak.

Erretiroa hartzeko adinari dagokionez aurreko paragrafoan aipatzen diren 1. artikuluko apartatuak funtzionario guztiei aplikatuko zaizkie, berdin delarik gizarte-aurreikuspeneko zer sistemari dauden atxikita, barne harturik Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen esku-bide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sistemari atxikiak, bai eta araubide horri atxikita daudenak ere.

2. Hala ere, eta salbuespen gisa, Osasun Departamentuak zilegi izanen du bere zenbait langileren zerbitzu aktiboa 2025ean zehar luzatzea zerbitzuaren beharregatik eta profesionalik eza-rengatik; betiere, arrazoi horiek behar bezala justifikatu beharko dira. Halatan, zilegi izanen da

zerbitzu aktiboaren luzapena baimendu dakien, Gizarte Segurantzak xedaturiko legezko erretirorako adinera iritsi direlarik, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berriazko erregimenari buruzko 11/1992 Foru Lege Arau-emaileko A.1 eta A.2.5. estamentuetako profesional fakultatiboei, baldin eta norbere espezialitateko kontratazio-zerrenda irekita badago. Luzapenerako baimena halaber ematen ahalko zaie estamentu horietako profesionalei, laguntza-zerbitzuko edo laguntza-ataleko buruaren eginkizunak betetzen ari direnean, baldin eta, beren espezialitateko kontratazio-zerrenda irekita egonik, aldi baterako kontrataziorako izangairik ez badago. Inguruabar hori luzapena baimentzeari begira egiaztatzeko momentua izanen da legezko erretirorako aurreikusita dagoen data iritsi baino hilabete lehenago.

Luzapena urtebeterako eginen da, eta luzagarria izanen da baimen-ematearen baldintzek beren horretan iraunez gero, interesdunak horretarako eskaera aurretiaz eginik eta hirurogeita hamar urteko adina mugatzen harturik.

**27. artikulua.** Nafarroako administrazio publikoek deitutako hautapen-prozesuei buruzko xedapenak.

1. Nafarroako Administrazio Publikoari ahalmena ematen zaie Administrazioan sartzeko edo bertako lanpostuak betetzeko hautapen-prozesuen deialdietan eskabideen eta gainerako dokumentazioaren aurkezpen elektronikoa nahitaezkatzat ezartzeko.

2. Aurreko apartatuan aipatutako hautapen-prozesuetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epeak egunetan adierazi badira, egun naturaletan adierazita daudela ulertuko da beti.

**28. artikulua.** Nafarroako administrazio publikoek aldi baterako kontrataziorako prozesuetan egiten dituzten deialdiei buruzko xedapenak.

1. Nafarroako administrazio publikoari ahalmena ematen zaie bitarteko telematikoak eta elektronikoak erabil daitezen aldi baterako kontratazio-prozesuetan eskabideak aurkeztu, hautagaiak deitu eta kontratuak hautatzeko.

2. Kasu horretan, deia Administrazio Publikoaren webgunean iragarki publiko bat argitaratuz eginen da. Iragarki horretan, deitutako izangaia eta eskainitako kontratuak argitaratuko dira, eta eskainitako kontratuak modu elektronikoa hautatzeko epea adieraziko da.

**29. artikulua.** Lan eskaintza publikoak onesten dituzten foru dekretuetan jasotako lanpostuetako betekizunak aldatzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko eta haren erakunde autonomoetako lan eskaintza publikoak onesten dituzten foru dekretuetan jasotako lanpostuen betekizunak aldatzen ahalko dira kasuko foru dekretuaren onespeneren ondoren, eta administrazioan sartzeko kasuko deialdiaren datan plantilla organikoan agertzen diren betekizunekin eskainiko dira lanpostuak.

**30. artikulua.** Nafarroako administrazio publikoek deitutako enplegu-egonkortze prozesuak.

Enplegu Publikoan dagoen Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean ezarritakoaren arabera deitutako enplegu-egonkortze prozesuak 2024ko abenduaren 31n amaituko dira, hargatik eragotzi gabe bidezko diren izendapen osagarriak egin daitezten, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan aplikatzekoa den berariazko araudiarekin bat.

**31. artikulua.** Unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako lan publikoaren eskaintza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko unibertsitateaz kanpoko irakasleen lanpostuak, harakoak zeinak erretiroaren, heriotzaren, ukoaren edo lanpostu-erreserbarik ez dakarren beste edozein egoera administratiboren ondorioz hutsik gelditzen baitira, automatikoki esleituko zaizkio plantilla organikoan jatorriko irakasleen kidegoari edo lanpostuari, lanpostuen gainerako ezaugarriak zehaztu gabe.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko unibertsitateaz kanpoko irakasleen lan publikoaren eskaintzetan ezarriko da irakasle-kidego edo -lanpostu bakoitzetik zenbat lanpostu barne hartzen dituzten guztira. Enplegu-eskaintza horietan sartutako lanpostuen ezaugarriak, eta betiere espezialitatea eta hizkuntza, plantilla organikoa aldatzeko foru dekretu batean ezarriko dira, sarre-ra-hautaprobeen deialdia egin aurretik.

3. Maiatzaren 4ko 11/2022 Foru Legeak, zeinak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen hautapenari eta lanpostuen betetzeari begira neurriak ezartzen baititu, aipatzen dituen langile-hautatze organoetako kideak izendatzeko, irakasle-kidegoetarako sarbideari buruzko Estatuko araudian xedatutakoa aplikatuko da. Organo horiek lehentasunez osaturik egonen dira hautaketa-prozesuaren xede den irakasle-lanposturako izendatutako irakasle funtzionarioekin. Dagokion lanpostuko langile eskuragarri nahikorik ez bada-

go, irakasleen kidegoetako edo antzeko lanpostuetako funtzionarioak hautatuko dira.

**32. artikulua.** Hezkuntza-laguntzako espezialista-lanpostuen aldi baterako betetzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arloko neurriak onesten dituen irailaren 16ko 10/2020 Foru Lege-dekretuaren 2.4 artikuluan aipatzen den iragate-aldia igarota, 2026ko abenduaren 31ra arte Hezkuntza Laguntzako espezialisten lanpostua aldi baterako betetzen ahalko dute C mailako/taldeko lanpostuetara sartzeko eskatzen den titulazio generikoa duten izangaiek. Nolanahi ere, lehentasuna izanen dute Goi Mailako Gizarteratze-teknikari titulua duten izangaiek edo, kasua bada, Batxilergo titulua edo baliokidea dutenek, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arretarako profesionaltasun-ziurtagiria izanez gero.

**33. artikulua.** Unibertsitateaz kanpoko irakasleen eta administrazio-araubidean kontratatutako ikastetxeetako laguntzako langileen erretiroa.

Salbuetsita geratzen dira Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileen arloko premiazko neurriei buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1.1 artikuluan xedatutakotik ikasturte osoko premian administrazio-araubidean kontratatutako irakasleak eta ikastetxeetako laguntza-langileak, baldin eta haien nahitaezko erretiroaren egunean edo nahitaezko erretiroa hartzeko adina betetzen duten ikasturtea amaitzean beren aurreikuspen sozialeko sistemaren pentsio baterako eskubidea sortzeko ezarrita dagoen gabealdia osatu ez badute, bai eta pentsio osoa jasotzeko kotizazio-urteak bete ez dituztenak ere. Irakasleak ikasturte osoko premietarako kontratatzen ahalko dira kidego, espezialitate eta hizkuntza berean eta ikastetxe berean, betiere denboraren jarraitutasunean etenik izan gabe eta helburu horietarako aldiak osatu arte; kasu orotan, hirurogeita hamar urteko adina bete arte. Ikastetxeetako laguntza-langileak ikasturte osoko premietarako eta ikastetxe bererako kontratatzen ahalko dira, betiere etenik gabe eta helburu horietarako aldiak osatu arte; betiere, hirurogeita hamar urteko adina bete arte.

**34. artikulua.** Hezkuntza Departamentuari atxikitako langileen betebeharra, Administrazioarekiko harremana telematikoa izatekoa.

Hezkuntza Departamentuari atxikitako langileek Nafarroako Gobernuaren egoitza elektronikoa bidez izan beharko dituzte harremanak harekin, enplegatutako publiko izateagatik egiten dituzten izapide eta jarduketetarako; horretarako, berariaz



adierazi beharko dute zer helbide elektronikotan egin behar diren kasuan kasuko jakinarazpenak.

### III. TITULUA Finantza-eragiketak

#### I. KAPITULUA Abalak eta maileguak ematea

##### 35. artikulua. Abalak eta maileguak ematea.

1. Nafarroako Gobernuak abalak edo antzeko beste berme batzuk ematen ahalko ditu, gehienez ere 36.000.000 euro eginen dutenak.

Aurreko paragrafoko mugaren barnean, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari baimena ematen zaio Nafarbide, el Camino de los Navarros SL sozietate publikoari gehienez ere 16.000.000 euroko abal bat emateko.

2. Enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek abalak edo antzeko beste berme batzuk ematen ahalko dituzte, Nafarroako Gobernuak baimena eman ondoren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak proposatuta, gehienez ere 30.000.000 euro eginen dutenak.

Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoek baimena ematen zaie 2025ean Nafarroako Natura Parkea SA sozietatearentzako abal-eragiketa berriak edo antzeko beste berme batzuetarako egiteko, gehienez 2.442.354,00 euroko zenbatekoan, artikuluko honetan ezarritako muga barruan.

3. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen abalen edo antzeko beste berme batzuen gehieneko arrisku bizia 66.000.000 eurokoa izanen da. Enpresa-entitate publikoen, fundazio publikoen eta sozietate publikoen kasuan, berriz, gehieneko arrisku bizia 85.000.000 eurokoa izanen da.

4. Enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek maileguak ematen ahalko dituzte, Nafarroako Gobernuak baimena eman ondoren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak proposatuta, 17.000.000 euroko gehieneko mugarekin.

5. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82. ter artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen maileguen gehieneko arrisku bizia 99.000.000 eurokoa izanen da. Enpresa-erakunde publikoen, fundazio

publikoen eta sozietate publikoen kasuan, gehieneko arrisku bizia 125.000.000 eurokoa izanen da.

6. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak behar diren prozedurak ezarriko ditu, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan zehazten den finantza-zuhurtziaren printzipioari dagokionez araudiak ezartzen dituen mugak betetzen direla bermatuko dutenak.

#### II. KAPITULUA Zorpetzea

36. artikulua. Zor Publikoa jaulki edo maileguak nahiz kredituak ituntzeko baimena.

1. Zorpetze-eragiketak egiteko baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, muga honekin: Europako Kontu Sistemaren arabera (SEC 2010) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren azpisektorea osatzen duten entitateen 2025eko abenduaren 31ko saldo biziak ez gainditzea 81.840.374 euro baino gehiagoan 2025eko urtarrilaren 1eko saldo bizia (BPGaren % 0,3ko defizit aurreikusiarren finantzaketa).

2. Artikulu honetako lehen apartatua ezarritako muga aldatzen ahalko da murrizten denean kitatzeke dagoen zorpetze garbiaren maila, dela aplikatu direlako Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 32. artikulua eta hura garatzeko neurri bereziak, aurrekontu-superabitarekin lotutakoak, dela finantzatutako defizit erreferentzia handiagoa delako egiazki izan den defizita baino, Ogasun Ministerioaren adostasunarekin eta Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordeari entzun ondoren.

3. Era berean, artikulu honetako lehen apartatua ezarritako muga gainditzeko ahalko da baldin eta hasiera batean aurreikusitakoa baino defizit handiagoa finantzatzen bada, eta gaitetiko zenbateko hori finantzatzeko beharrezkoa den zenbatekoan baino ez. Gainditzeko ahalko da, halaber, Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak hitzar litzaketan bestelako zorpetze-eragiketak egiteko, Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordeari entzun ondoren.

4. Aurreko apartatuetan jasotako zorpetze-eragiketen jaulkipena eta, kasua bada, formalizazioa, eragiketa batean edo batzuetan gauzatzen ahalko dira, eta 2025eko ekitaldiaz harago ere berandutzen ahalko dira.

5. Betiere, Nafarroako Gobernuak behar den zorpetze-estrategia egokituko du, baimentzen den gehieneko zorpetze-bolumenak errespetatuz

Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudian ezartzen denaren barruan adostutako mugak.

6. Nafarroako Gobernuak, hiru hilabete behin, aurreko apartatueta aurreikusitako zorpetze-eragiketen jaulkipen edo formalizazio guztien berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari.

**37. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen sektoreko gainerako entitateen zorpetzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen sektorean Europako Kontu Sistemako irizpideen arabera sartuta dauden entitateek Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren baimena lortu beharko dute beren zorpetze-eragiketak formalizatu aurretik, eta erabat deusezak izanen dira baimen hori gabe hartutako erabakiak.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zorpetze-eragiketa horietarako baimen guztien berri hiruhilekoan behin emanen dio Nafarroako Parlamentuari.

2. Aurreko apartatuko entitateei baimenduko zaien gehieneko zorpetze bolumenak errespetatu eginen ditu Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudiaren barruan adostutako mugak.

3. Artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren entitateen arduradunek Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eskatzen dizkien formatu eta epeetan eman beharko dute informazioa, Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak aurrekontu-egonkortasuna dela-eta adostutako konpromisoak betetzeko.

#### IV. TITULUA Toki erakundeak

**38. artikulua.** Ohiturazko elkarten inbertsioetarako dirulaguntza eta onurak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Nafarroako Ogasun Publikoaren kargura ezarritako ekarpenak eta gainerako onurak jasotzen ahalko dituzte Errege Bardeako Komunitateak eta Erronkariko, Zaraitzuko eta Aezkoako batzarrek, beren organo eskudunek onesten dituzten inbertsioetarako.

#### V. TITULUA Aurrekontuen kudeaketa

**39. artikulua.** Aurreikusitako diru-sarrerara handiagoen bidez finantzaturiko aurrekontu-aldaketak.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen II. tituluko I. kapi-

tuluko 2. atalean ezarritakoari jarraituz, kreditu-sorrerak dira kredituak handitzen dituzten aurrekontu-aldaketa batzuk, hasierako aurrekontuan aurreikusi gabekoak edo aurreikusitakoak baino handiagoak diren diru-sarrerara jakin batzuen ondoriozkoak.

Salbuespen gisa, beste administrazio edo entitate publiko batzuek finantzaturako gastuei dago kienez, zilegi izanen da aurrekontuko gastuen egoera-orrian kredituak handitzea, behar den diru-sarrerarik ez denean modu efektiboan izan, baldin eta, betiere, dokumentuz frogatzen bada funtsak jarri behar dituen entitatearen edo administrazioaren finantzaketa-konpromisoa; hain zuzen, kasu hauetan:

a) Langileria-gastuei aurre egiteko beharrezkoak direnean.

b) Helburutzat prestazio pertsonal edo sozialak dituzten aldizkako dirulaguntzei dagozkienean.

c) Diru-itzulketa baten bitartezko finantzaketa jasotzen duten programei dagozkienean, egiazki izandako gastuak frogatuta jaso ere.

d) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko jarduketak finantzatzea helburu duten ekarpenak direnean.

e) Behar bezala frogatuta egon eta Nafarroako Gobernuak baimenduta dauden beste kasu batzuetan, aurrekontuen arloko eskumena duen departamentuak txostena egin ondoren.

**40. artikulua.** Etorkizuneko aurrekontuen kargurako gastu-konpromisoak.

1. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du urte anitzeko gastu-konpromisoak hartzeko baimena ematea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak baimendutako mugez eta urteko zenbatekoen haragokoak direnetarako hain zuzen, kasu hauetan:

a) Etxebizitza babestuen sustatzaileei, eskurtzaileei, erabilzaileei eta adjudikaziodunei dirulaguntzak emateko, eta etxebizitzak birgaitzeko, baldin eta ez badira gainditzen aurreko ekitaldian helburu horretarako ezarritako zenbatekoak.

b) Europar Batasunak eta/edo Estatuko Administrazio Orokorrek kofinantzatzen dituzten planei, programei eta ekimenei aurre egiteko, bai eta haietatik eratorritako betebeharrei ere, bost urte baino gehiagoko plangintza eduki behar dutenean.

c) Enpresek I+G+b proiektuen finantzaketarako hitzartzen dituzten kreditu edo maileguen interesetarako hobari gisako laguntzak emateko, eta zentro teknologiko nahiz azpiegitura zientifiko eta tek-

nologiko bereziei laguntzak emateko.

d) Otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuak ezarritako dirulaguntzak emateko. Dekretu horren bidez zenbait neurri ezartzen dira, 2001eko martxoaren 8ko eta 2001eko uztailaren 31ko 76/2000 eta 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteek ukitutako langileak laneratzen laguntzeko eta haiantzako laguntza bereziak ezartzeko.

e) Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan hezkuntza-itunen berritzeari buruz ezarritakoa betetzeko beharrezkoak direnak.

f) Toki erakundeei laguntza ekonomikoak eman behar zaizkienean beren udal hirigintza-plana egiteko edo berrikusteko.

g) Ondasun higiezinaren errentamendua.

2. Hezkuntza Departamentuak eskola-garraioa eta eskola-jantokiko zerbitzua kontratatzen ahalko ditu, xede horrekin hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargurako gastu-konpromisoak hartuta, betiere konpromiso horiek, ikasturtearen beharrei erantzuteagatik, aurrekontu-ekitaldiaz bestelako urte-aldi bati badagozkio.

3. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak eta Hezkuntza Departamentuak bekak eta laguntzak ematen ahalko dituzte, horretarako gastu-konpromisoak hartuta hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura, betiere konpromiso horiek, ikasturtearen beharrei erantzuteagatik, aurrekontu-ekitaldiaz bestelako urte-aldi bati badagozkio.

**41. artikulua.** Ordainsarien igoeraren ondoriozko funts-mugimenduak.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak baimena ematen ahalko du funts-mugimenduak egin daitezkeen "Ordainsarien igoera" izeneko F30001-F3100-1800-921402 partidaren kargura, 6., 7., 8. eta 9. artikuluetan ezarritako ordainsari-igoeraren ondoriozko gastua egotzen zaien partidak finantzatzeko xedez.

**42. artikulua.** Aldi baterako kontratatzeko modukoak ez diren lanpostuen enplegu-eskaintza publikotik eratorritako langileak lanpostuetaratzaren ondoriozko funts-mugimendua.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak baimena ematen ahalko du funts-mugimenduak egiteko "Kontratatzeko modukoak ez diren lanpostuen enplegu-eskaintza publikoa" izeneko F30001-F3100-1800-921404 partidaren kargura, langileen lanpostuetaratze efektiboak eragiten duen gastua egotzen zaien partidak finantzatzeko xedez.

**43. artikulua.** Funts-mugimenduak baimentzea Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusian, osasun-langileen lanbide-karrerako aurrekontu-partiden kargura.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak baimena eman dezake "Osasun-langileen lanbide-karrera" izeneko F30001-F3100-1800-921405 eta "Osasun-langileen lanbide-karrera" izeneko 540000-52000-1800-311100 aurrekontu-partiden kargura funts-mugimenduak egiteko, horrela finantzatzeko aldera harako partidak zeinetan egotzen baita aldi baterako kontratupeko osasun arloko langile fakultatiboak eta diplomadunei lanbide-karrerarako eskubidea aitortzeki eta aldi baterako kontratualdian emandako zerbitzuak lanbide-karreraren ondorioetarako aitortzeki eratorritako gastua, bai eta finantzatzeko aldera harako partidak ere zeinetan egotzen baita langile ez-fakultatibo eta ez-diplomadunen lanbide-karreraren ondoriozko gastua, foru lege ezarritakoa. Ez dituzte bete behar Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eta 44.etik 50.era bitartekoetan ezarritako mugak.

**44. artikulua.** Erakunde sindikalen funtzionamendu-gastuaren konpentsazioa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen esparruan.

F30001-F3300-4819-921302 partidaren, 410005-41700-4819-321100 partidaren eta 540000-52000-4819-311100 partidaren bidez, hirurak "Erakunde sindikalen funtzionamendugastuen konpentsazioa" izenekoak, finantzatzeko dira erakunde sindikalen berezko jarduna egiteko beharrezko diren edozein motatako gastuak.

Partida bakoitzeko kreditua egin diren azken hauteskunde sindikaletan lortutako botoen proportzioan banatuko da kasuko eremuko erakunde sindikalen artean.

**45. artikulua.** Funts-mugimenduak, Ondare Zerbitzuko obren, Higiezinari buruzko Planaren eta altzarien gastuen ondoriozkoak.

Aurrekontuen eta Ondarearen zuzendari nagusiak baimena ematen ahalko du funts-mugimenduak egin daitezkeen partida hauen artean: 111002-11300-6020-923104 partida, "Higiezinari buruzko Plana. Administrazio bulegoak" izenekoak, 111002-11300-6020-923100 partida, "Instalazio berriko eraikinak eta obrak, eta ondare higiezinaren erreforma" izenekoak, eta 111002-11300-6050-923100 partida, "Higiezinari buruzko Plana. Eraikinetako eta obretako altzariak eta ekipamendua" izenekoak.

**46. artikulua.** Interesengatiko funts-mugimenduak.

Ekonomia - Next Generation zuzendari nagusiak baimena ematen ahalgo du funts-mugimenduak egin daitezen interesak eta bestelako gastu finantzarioak ordaintzera bideratutako partiden eta sortu beharreko suertatzen diren guztien artean, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura, berdin delarik horien sortzapena zorraren, maileguen, diruzaintzako eragiketen edo kontuetako saldoen ondoriozkoa izatea.

**47. artikulua.** Toki erakundeen Partaidetza Funtseko funts-mugimendua.

1. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak funts-mugimenduak egiten ahalgo ditu toki erakundeek Nafarroako tributueta duten parte-hartzearen funtseko partiden artean, bai eta aurrekontu-partidak sortu ere funts horren barruan, kapital-transferentzien arloan, beharrezkotzat jotzen denean.

2. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak funts-mugimenduak egiten ahalgo ditu toki ogasunek Nafarroako tributueta duten parte-hartzearen funtseko partiden artean, bai eta haren barruan aurrekontu-partidak sortu ere, transferentzia arrunten bidez, beharrezkotzat jotzen denean.

**48. artikulua.** Ikasliburuen doakotasunerako plana finantzatzeko funts-mugimendua.

Zilegi izanen da funts-mugimenduak egitea ikasliburuen eta hezkuntzako materialaren doakotasunerako plana finantzatzera bideratutako aurrekontu-partiden artean edo sortu beharreko suertatzen diren partiden artean, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura, haiek behar bezala finantzatzeko. Funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena izanen da arlo horretan eskumena duen Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusiarena.

**49. artikulua.** Garraio-gastuen eta eskola-jantokien arteko funts-mugimendua.

Gaiagatik eskumena duen Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusiak baimena ematen ahalgo du eskola-garraiorako partiden eta hori behar bezala gauzatzeko sortu beharreko suertatzen diren partiden artean funts-mugimenduak egiteko, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura.

Era berean, zilegi izanen du baimentzea eskola-jantokietara bideratutako partiden eta exekuzio egoki baterako sortu beharreko suertatzen diren partiden arteko funts-mugimenduak egin daitezen, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura.

**50. artikulua.** Funts-mugimendua ikastetxe publikoen eraikuntzara eta obretara bideratutako partiden artean.

Hezkuntza Departamentuko Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiak baimena ematen ahalgo du funts-mugimenduak egin daitezen ikastetxe publikoetako eraikuntzara eta obretara bideratutako partiden eta xede horretarako sortu beharreko suertatzen diren artean, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura.

**51. artikulua.** UHUN-Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren ikastetxe elkartuen aurrekontu-zuzkidura.

UHUNen Iruñeko eta Tuterako ikastetxe elkartuen finantzaketarako transferentzia arruntak, oro har, aurreraturiko hiru hilekoka eginen dira.

**52. artikulua.** Itundutako ikastetxeen eta partekatuen sostengua.

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 117. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskola-unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren zenbatekoa, 2025. urterako, laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa izanen da, itundutako eta diruz lagundutako ikastetxeen sostengurako funts publikoen zenbateko globala banatzeari dagokionez.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio irakaskuntza itunduaren sektorearekin negoziatu ondoren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aldeko txostena eman ondoren laugarren xedapen gehigarriko modulu ekonomikoak eta ratioak eta artikulua honen bosgarren apartatuan finkatutako zenbatekoak aldatzeko, bai eta aldatetaren eraginkortasun-eguna ezartzeko ere.

Irakaskuntzako langileentzat laugarren xedapen gehigarrian jasotako ordainsariei buruzko aurreikuspenak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera egonen dira indarrean, zein ere den irakaskuntza pribatuko hitzarmen kolektiboak izenpetzen diren eguna. Administrazioak zilegi izanen du, enpresaburu-elkarte guztiek espresuki eta batera horrela eskatu badute eta sindikatuei entzun ondoren, konturako ordainketak onartzea kasuan kasuko hitzarmena izenpetzen den arte. Joko da ezen kon-

turako ordainketa horiek 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dutela eragina.

Laugarren xedapen gehigarrian jasotzen den moduluaren osagaiak, zeinak xede baititu “bestelako gastuak” eta, kasu bada, “langileria eta gastu espezifikokoak”, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

Administrazioak zuzenean ordainduko ditu, ordainketa eskuordetuaren bidez, irakasleen soldatetarako adierazita dauden zenbatekoak, karga sozialak barne. Horrek ez du ezertan eragozten irakasleen eta kasuan kasuko ikastetxearen titular denaren arteko lan harremana.

“Bestelako gastuak” eta, hala badagokio, “langileria eta gastu espezifikokoak” ataletako zenbatekoak ikastetxe itunduei ordainduko zaizkie, eta zenbateko horien aplikazioa ikasturte bakoitzaren amaieran justifikatu beharko dute aipatu ikastetxeek, kontuan hartuta hezkuntza bereziko unitateen “langileria eta gastu espezifikokoak” atalean gutxienez laguntzaile bat sartu behar dela, Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 20ko 50/2019 Foru Aginduan aipatzen direnetakoa.

“Gastu aldakorrak” atala osatzen duten zenbatekoen banaketa egiteko, itun-araubideari buruzko xedapenetan ezartzen denari jarraituko zaio.

2. Hezkuntza Departamentuko Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiak baimena ematen ahalko du funts-mugimenduak egin daitezzen “Irakaskuntza pribatu itundurako eta parekatutarako dirulaguntzak” izenekoa eta 4811 kode ekonomikoa den 410003 proiektuan zabalgarritzat deklaraturako partiden eta sortu beharreko suertatzen diren artean, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura.

3. Gaur egun Nafarroan ez direnez irakasten Berariazko Lanbide Heziketako titulu guztiak, Hezkuntza Departamentuak behin-behinekoz finkatuko ditu 2025-2026 ikasturtean lehenengo aldiz ezarriak izan eta laugarren xedapen gehigarrian sarturik ez dauden oinarritzko, erdi edo goi mailako heziketa-zikloetako modulu ekonomikoak, eta zilegi izanen du aipaturiko xedapen gehigarri horretan jasotakoak behin-behinekoz aldatzea, 2025-2026 ikasturtearen hasierarako eraginarekin, haien ezarpena zein den ikusita.

4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloa, Batxilergoa, oinarritzko, erdi edo goi mailako heziketa-zikloak eta Oinarritzko Lanbide Heziketa ezarri dituzten ikastetxe itunduei finantzaketa emanen zaie Hezkuntzari buruzko

maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 2.2 artikulua aipatzen dituen hezkuntza-, psikopedagogia- eta lanbide-orientazioko zerbitzu espezializaturako. Finantzaketa hori honako proportzioan egingen da: eginkizun horietan aritzeko gai den profesionalaren lanaldi oso bat, aipatu hezkuntza-maila horietako 25 unitate itunduko. Hortaz, ikastetxe itunduek eskubidea izanen dute aipatu profesionalaren lanaldirako finantzaketa jasotzeko, maila horietan itunduta daukaten unitate kopuruaren arabera.

5. Goi mailako heziketa-zikloetako itun berezia partziala izanen da, halako moldez non honako hauek izanen baitira ikasleengandik jaso beharreko zenbatekoak, osagarritzko finantzaketa izanen zaizkionak goi mailako heziketa-zikloen ez-derrigorrezko mailaren irakaskuntza arautu hertsirako izenpetzen diren itun berezi partzialen araubidera atxikitako funts publikoetatik heldutako finantzaketari: 36 euro ikasle eta hileko, hamar hilabetez, 2025eko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte eta 2025eko irailaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra arte, horretatik kanpo daudela hertsiki lantokiko lanbide heziketako den kurtso batean matrikulatutako ikasleak. Azken horiek 32,45 euro ordainduko dute ikasle eta hileko, 2025-2026 ikasturteko lantokiko lanbide heziketak irauten duen hiru hilean zehar.

Goi mailako online heziketa-zikloetako itun berezia partziala izanen da, halako moldez non honako hauek izanen baitira ikasleengandik jaso beharreko zenbatekoak, osagarritzko finantzaketa izanen zaizkionak goi mailako online heziketa-zikloen ez-derrigorrezko mailaren irakaskuntza arautu hertsirako izenpetzen diren itun berezi partzialen araubidera atxikitako funts publikoetatik heldutako finantzaketari: 11,01 euro ikasle eta hileko, hamar hilabetez, 2025eko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte eta 2025eko irailaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra arte, horretatik kanpo daudela hertsiki lantokiko lanbide heziketako den kurtso batean matrikulatutako ikasleak. Azken horiek 9,90 euro ordainduko dute ikasle eta hileko, 2025-2026 ikasturteko lantokiko lanbide heziketak irauten duen hiru hilean zehar.

Ikastetxeek ikasleei diru kopuru horiek kobratzearen ondorioz eskuraturiko finantzaketa erabiliko da modulu ekonomikoko “bestelako gastuak” izeneko atalerako; eta, beraz, Administrazioak “bestelako gastuak” atalaren guztizko zenbatekora iristeko falta den gainerako kopurua baizik ez du ordainduko.

6. Zuzendaritza-eginkizunetan laguntzeko, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita zazpigarren xedapen gehiga-

rrian ezarritakoarekin bat, beharrezkoa da finantzaketa bat egotea, zeinaren arabera, foru lege honen laugarren xedapen gehigarrian zehazten diren hezkuntza-maila eta -modalitateetako eskola-unitate bakoitzeko modulu ekonomiko guztiek, salbu eta huts-hutsik lantokietako prestakuntzakoak diren unitateetakoek, urteko 771,51 euroko kopurua baitaukate, “bestelako gastuak” kontzeptuan (514,34 euro, goi mailako online heziketa-zikloetan), zuzendaritza- eta/edo pedagogia-eginkizunetako beste kargu batzuen finantzaketarako, zein ere den zuzendaritza-osagarria, zeinak “gastu aldakorrak” izeneko atalean baitirau.

7. Hezkuntza-premia bereziak dituzten edo egoera sozial edo kultural ahulean dauden edo etxeko laguntza jasotzen duten ikasleak artaturik haur hezkuntzako eta derrigorrezko irakaskuntzetakoak diren ikastetxe itunduek bestelako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak izanen dituzte: ikasle horiei arreta emateko laguntza-irakasleak, logopedia-zerbitzuak, eta zainzaileak edo bestelako langile osagarriak.

Baliabide horiek esleitu dira behar diren txosten teknikoak baliatuta eta Hezkuntza Departamentuak onetsitako deialdi publikoa aurretiaz eginda.

8. Hezkuntza Departamentuarekin sinaturiko hitzarmena duten irabazi-asmorik gabeko entitateetako eskola-unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren zenbatekoa I. eranskinean ezartzen da.

**53. artikulua.** Funts-mugimendua, Konferentzia Sektorialaren funtsekin finantzatzeko jarduketara bideratutako kredituak kudeatzekoa.

Dauden partiden eta sortu beharreko suertatzen diren partiden artean funts-mugimenduak egiten ahalko dira, nahiz eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatutako eta araututako loturarik ez egon, behar bezala egoztearren, beren izaeraren arabera, enplegurako egiaztaizteko modukoak diren lanbide-heziketako ekintzei eta enplegu-politika aktiboari dagozkien gastuak. Bi talde horiek Konferentzia Sektorialek datozen funtsekin finantzatzen dira.

Funts-mugimendu horiek egiteko eskumena izanen dute, hurrenez hurren, Hezkuntza Departamentuko lanbide-heziketaren arloko eskumena duen zuzendari nagusiak eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentuari atxikitako Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kudeatzaileak.

**54. artikulua.** Ikerketaren sustapena.

Osasun Departamentuak osasun zientzien arloan ikerketa sustatzea haren inbertsio berekiztat joko da, eta horri ez zaio aplikatuko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea, Dirulaguntzei buruzkoa, salbu eta aurrerakinei dagokienez, zeinak arau horretan ezarritakoaren arabera antolatuko baitira.

**55. artikulua.** Organo-transplanteen sustapena.

Ospitaleek organo-transplanteen sustapenerako jasotzen duten diru kopuru helburuduna ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuetan nahiz ondasun inbentariagarrietako gastuetan erabiltzen ahalko da, baldin gastu horiek betiere zerikusia badute jasotako diru horrek duen helburuarekin.

**56. artikulua.** Funts-mugimendua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan kreditu zabalgarriak kudeatzeko.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak baimena ematen ahalko du funts-mugimendua egin dadin foru lege honen 5. artikuluko 4.5 apartatuaren a), h), i), k), l), m) eta n) letretan zabalgarritzat sailkatuta dauden 54. programa-taldeko aurrekontu-partiden eta sortu beharreko suertatzen direnen artean, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura.

**57. artikulua.** Funts-mugimendua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxaron-zerrendak murrizteko kredituak kudeatzekoa.

Gastua hobeki kudeatze aldera, funts-mugimenduak egiten ahalko dira itxaron-zerrende dagozkien partiden artean, zeinak foru lege honen 5. artikuluko bigarren apartatuan aipatzen baitira.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak izanen du funts-mugimendu horiek egiteko eskumena.

**58. artikulua.** Funts-mugimendua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan osasun garraioko kreditu zabalgarriak kudeatzekoa. Funts-mugimenduak egiten ahalko dira 540002-52833-2231-311100 partidaren (“Larrialdi sanitarioako eta anbulantziatarako arreta-plana” izenekoa) eta 540002-52833-2231-311103 partidaren artean (“Enkargua BIDEAN sozietateari. Osasun-garraioa” izenekoa), gastua hobeki kudeatzeko.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak izanen du funts-mugimendu horiek egiteko eskumena.

**59. artikulua.** Funts-mugimendua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan BIDEAN sozietateari egindako transferentzien kredituak kudeatzekoa.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira “BIDEAN sozietatearentzako transferentzia arrunta” izeneko 540002-52833-4400-311100 partidaren eta “BIDEAN sozietatearentzako kapital-transferentzia” izeneko 540002-52833-7400-311100 partidaren artean, gastua hobeki kudeatzeko.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak izanen du funts-mugimendu horiek egiteko eskumena.

**60. artikulua.** Osasun zentroen funtzionamendurako transferentziak.

“Osasun zentroen funtzionamendurako transferentziak” izeneko 547001-52300-4609-312200 aurrekontu-partidan, Nafarroako udalen jabetzakoak diren herrietako kontsultategien eta kontsultategi osagarrien funtzionamendu-gastuak finantzatzekoa den horretan, dagoen zenbatekoa banatuko da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzaileak urtero onesten dituen gehieneko zenbatekoen eta moduluen arabera, eta ez zaio aplikatuko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea.

Edozein kasutan, modulu horiek kontuan hartuko dituzte kontsultategi-mota eta -azalera.

Kasua bada, herrietako kontsultategien ekipamenduaz Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua arduratuko da.

**61. artikulua.** Funts-mugimendua, Nafarroako 2014-2022 Landa Garapeneko Programa eta 2023-2027 NPERen Plan Estrategikoa finantzatzera bideratutako kredituak kudeatzekoa.

Zilegi izanen da funts-mugimenduak egitea Nafarroako Landa Garapeneko 2014-2022 Programa eta 2023-2027 NPERen Plan Estrategikoa finantzatzera bideratutako aurrekontu-partiden artean, edo haien behar bezala gauzatzeko sortu beharreko suertatzen diren partiden artean, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatutako eta araututako lotura.

Ukitutako partidak zer departamenturi dagozkion, bertako kontseilariak izanen du aipatutako partiden arteko funts-mugimenduak baimentzeko eskumena. Baldin departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

**62. artikulua.** Europako Batzordeak baimendutako laguntzak, nekazaritzaren eta basogintzaren sektoreetako estatu-laguntzei aplikatzekoak diren Europar Batasunaren zuzentzaruen arabekoak.

Nekazaritzaren eta basogintzaren sektoreetako estatu-laguntzei aplikatzekoak zaizkien Europar Batasunaren zuzentzaruei jarraiturik Europako Batzordeak baimendutako laguntza-araubideak osoki nahiz partzialki Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura finantzatzen badira, lehenetasunez bete beharko dute kasu bakoitzean aplikatzekoa den Europar Batasuneko araudia.

**63. artikulua.** Hondakin Funtseko kredituak kudeatzeko funts-mugimendua.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira Hondakin Funtzari dagozkion partiden artean, lehendik daudenen eta sortu beharreko suertatzen direnen artean, nahiz eta gastua hobeki kudeatzeko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatutako eta araututako loturarik ez egon.

Ukitutako partidak zer departamenturi dagozkion, bertako kontseilariak izanen du aipatutako partiden arteko funts-mugimenduak baimentzeko eskumena. Baldin departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

**64. artikulua.** Hondakinen Funtzari dagozkion gastu-kreditu exekutatu gabeen txertatzeak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan kontsignatuta egon eta Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legeak sortutako Hondakinen Funtzari dagokion gastua, kasuan kasuko ekitaldian exekutatzeko ez den zatian, diruzaintzako gerakin atxikitat joko da, eta hurrengo aurrekontu-ekitaldietan txertatzen ahalko da.

Gainera, txertatu beharreko kopuruetatik soberrakin erabilgabeak geratzen direnean, beren jatorrikoak ez diren beste fluxu eta aurrekontu-partida batzuetara bideratzen ahalko dira hurrengo aurrekontu-ekitaldietan, betiere Hondakinen Funtserako ezarritako helburuen eta xedeen barruan, eta behar bezala identifikatutako partidetan.

**65. artikulua.** Nafarroako Klima Funtseko kredituak kudeatzeko funts-mugimendua.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira Nafarroako Klima Funtsean dauden eta sortu beharreko suertatzen diren partiden artean, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan

eskatzen eta arautzen den lotura, gastua hobeki kudeatzeko.

Ukitutako partidak zer departamenturi dagozkion, bertako kontseilariak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

**66. artikulua.** Nafarroako Klima Funtsari dagozkion gastu-kreditu exekutatu gabeen txertatzeak.

Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legeak sortutako Nafarroako Klima Funtsari dagokion gastua, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jaso, kasuan kasuko ekitaldian exekutatzeko ez den zatian, diruzaintza-gerakin atxikitat joko da, eta hurrengo aurrekontu-ekitaldietan txertatzen ahalko da.

**67. artikulua.** CENER Fundazioari funtsak ematea I+G+b proiektu eta inbertsioetarako.

G20001-G2100-7309-467300 partida, "CENER Fundazioari funtsak ematea I+G+B-ko proiektu eta inbertsioetarako" izenekoa, aplikatuko da Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala Fundazioak (CENER) bere helbururako –energia berriztagarrien arloko ikerketa eta garapena– egiten dituen proiektu eta inbertsioak finantzatzeko lortutako maileguen saldoa amortizatzen.

**68. artikulua.** Funts-mugimendua, % 0,7aren Funtseko kredituak kudeatzeko.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira % 0,7aren Funtsari dagozkion partiden artean, eta gastua hobeki kudeatzeko beharrezkoak direnak sortzen ahalko dira.

Ukituriko partidak zer departamenturi dagozkion, hartako kontseilariak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

**69. artikulua.** Ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeari, zeinak arautzen baitu Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7a, dagokion gastu-kreditu exekutatu gabearen txertatzea.

Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen % 0,7a arautzen duen ekainaren 5eko

7/2009 Foru Legeari dagokion gastua, Nafarroako aurrekontu orokorretan jaso, kasuko ekitaldian exekutatzeko ez den zatian, diruzaintza-gerakin atxikitat joko da, eta hurrengo aurrekontu-ekitaldietan txertatzen ahalko da.

**70. artikulua.** Sindikatuak eta enpresaburuaren elkarrekin.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sindikatuentzat eta enpresaburuaren elkarrekin jasotako gastua kontzeptu hauetara bideratuko da:

a) 970000-97000-4819-494100 partida, "Berrikuntza Sozialerako Unitatea deritzon elkarrekin dirulaguntza, haren funtzionamendurakoa" izenekoa, erabiliko da Berrikuntza Sozialerako Unitatea elkarrekin azpiegiturako eta mantentze-lanetako gastuak ordaintzeko, horrela bete ahal izan dezan bere helburua, zeina baita berrikuntza soziala sustatu eta bultzatzea eta gizarte-erronkei erantzuteko eta garapen ekonomiko berritzaile, sozial, jasangarri eta pertsonengana zuzendua sustatzen duten bide berritzaileak lankidetzaz tankeratu eta gartzatzea, enpresa-jarduera eta kalitatezko enplegua sortuta.

b) 970000-97000-4819-494103 partida, "Sindikatuaren hauteskunde prozesua jarraitzeko batzordea osatzen duten sindikatuari bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa" izenekoa, urriaren 3ko 182/1994 Foru Dekretuaren bidez sorturiko batzorde horretan parte hartzen duten sindikatuaren artean banatuko da, bertan bakoitzak duen ordezkari kopuruaren proportzioan.

c) Aurrekontuko 970000-97000-4819-494108 partida, "Sindikatuarentzako transferentziak, haien ordezkariaren arabera" izenekoa, haien guztien artean banatuko da bakoitzak Foru Komunitatean duen ordezkariaren arabera; eta, horretarako, 2021eko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitarte egindako hauteskundeetako eta boto-kontaketetako aktetan adierazitako emaitzak hartuko dira kontuan. Ordezkaritza-agintea indardun izan beharko dute azken data horretan, hala ezarrita baitago Garapen Ekonomikorako kontseilariaren ekainaren 16ko 26E/2017 Foru Aginduan, zeinaren bidez ezartzen baita sindikatuari beren jardueraren araubidea, Nafarroan lortutako ordezkari kopuruaren arabera, bai eta kasuan kasuko urteko deialdian ere.

d) 970000-97000-4819-494111 partida, "Eragile sozial eta enpresarialentzako transferentzia, haien parte-hartzearengatik" izenekoa, eragile sozialen eta enpresarialen parte-hartze instituzio-



nala sustatzeko izanen da, hala ezarrita baitago Garapen Ekonomikorako kontseilariaren azaroaren 3ko 222/2016 Foru Aginduan, zeinaren bidez arautzen baitira erakunde sindikalek eta enpresaburuen erakundeek parte hartzeagatik jasoko dituzten konpentsazioak.

e) 970000-97000-4819-494113 partida, "Enpresa-erakundeentzako transferentzia, haien ordezkartasunaren arabera. CEN" izeneko, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren azpiegitura- eta funtzionamendu-gastuak ordaintzeko izanen da, bere funtsezko helburuak, erakundearen estatutuetan jasotakoak, bete ahal izan ditzan.

f) 970000-97000-4819-494114 partida, "Ekonomia sozialeko entitateak sustatu eta mantentzea. ANEL" izeneko, Nafarroako Lan Enpresen Elkar-tea (ANEL) izenekoaren azpiegituraren eta mantentze-lanen gastuak ordaintzeko erabiliko da, ekonomia soziala bultzatu, garatu, sustatu eta indartzeko duen xedea bete ahal izan dezan.

g) 970000-97000-4819-494121 partida, "Transferentzia, Ekimen Sozialeko Enplegu Zentro Berezien Elkartearantzakoa (CEISNA)" izeneko, erabiliko da Nafarroako Ekimen Sozialeko Enplegu Zentro Berezien azpiegitura- eta funtzionamendu-gastuak ordaintzeko, desgaitasuna duten pertsonen lan- eta gizarte-inklusio erabatekoaren alde lan egin dezan, entitate horrek Nafarroako ekonomia soziala ordezkatzeko baitu.

h) 970000-97000-4819-494122 partida, "Transferentzia, Nafarroako Gizarteratze Enpresen Elkartearantzakoa (EINA)" izeneko, erabiliko da Nafarroako Gizarteratze Enpresen Elkartearen azpiegitura- eta funtzionamendu-gastuak ordaintzeko, lan egin dezan lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzearen eta laneratzearen alde, entitate horrek Nafarroako ekonomia soziala ordezkatzeko baitu.

i) 970000-97000-4819-494123 partida, "Transferentzia, Nafarroako Fundazioen Elkartearantzakoa (PIES)" izeneko, erabiliko da Nafarroako Fundazioen Elkartearen azpiegitura- eta funtzionamendu-gastuak ordaintzeko, fundazio-eredua susta dezan ekonomia sozialetik, eta fundazioen kudeaketa eta haien arteko elkarlana hobetu ditzan", entitate horrek Nafarroako ekonomia soziala ordezkatzeko baitu.

j) 970000-97000-4819-494131 partida, "Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarentzako (CEN) dirulaguntza, enpresetan berdintasunaren arloko sustapena eta dinamizazioa egiteko" izeneko, Nafarroako enpresetan genero berdintasuna

bultzatzeko, aholkatzeko eta sustatzeko erabiliko da.

k) 950002-96200-4819-242106 partida, "Prestakuntza-premiak ikertu eta planifikatzeko jardueretan parte hartzeagatik konpentsazioa" izeneko, banatuko da Lan arloan enplegurako lanbide heziketako sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/2015 Legean aurreikusitakoari jarraikiz.

**71. artikulua.** Funts-mugimendua, diru-sarreak bermatzekoak diren gizarte-inklusioko prestazioetarako kredituak kudeatzeko.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentuko kontseilariak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu "Errenta bertua" izeneko 901002-91100-4809-231500 partidaren eta "Bizitzeko gutxieneko errenta" izeneko 901002-91100-4809-231505 partidaren eta sortu beharreko suertatzen diren artean, nahiz eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan araututako eta eskatutako loturarik ez egon, gastua hobeki kudeatzeko.

**72. artikulua.** Funts-mugimendua, Gizarte Zerbitzuen Zorroak mendekotasunaren, desgaitasunaren eta gaixotasun mentalaren arretarako bermatzen dituen prestazioetarako kredituak kudeatzeko.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentuko kontseilariak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu partida hauen eta helburu horietarako sortu beharreko suertatzen diren artean:

a) 920005-93100-2600-231B04 partida, "Adinekoentzako zentroyen kudeaketa" izeneko.

b) 920005-93100-2600-231B05 partida, "Desgaitasuna duten pertsonentzako zentroyen kudeaketa" izeneko.

c) 920005-93100-2600-231B06 partida, "Osasun mentaleko zentroyen kudeaketa" izeneko.

d) 920004-93200-4809-231B00 partida, "Zerbitzuari lotutako laguntzak" izeneko.

e) 920004-93200-4809-231B02 partida, "Zerbitzu pertsonalei arreta emateko laguntzak" izeneko.

**73. artikulua.** Funts-mugimendua, Gizarte Zerbitzuen Zorroak haur eta nerabeentzako arretarako bermatzen dituen prestazioetara bideratutako kredituak kudeatzeko.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentuko kontseilariak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu foru lege honen

5. artikuluko 4.8 apartatuan zabalgarritzat jotzen diren 920008 proiektuko partiden eta sortu beharreko suertatzen direnen artean, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura.

**74. artikulua.** Parquenasas - Sendavivari dirulaguntzak emateko partiden arteko funts-mugimendua.

Turismoko zuzendari nagusiak funts-mugimenduak baimentzen ahalko ditu "Parquenasas - Sendavivari dirulaguntza" izeneko A30004-A3400-4709-458300 partidaren eta "Parquenasas - Sendavivari dirulaguntza. Inbertsioak" izeneko A30004-A3400-7709-458300 partidaren artean.

**75. artikulua.** Funts-mugimendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari dagozkion kredituak kudeatzekoa.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira Estatu-ko Administrazio-ko organo eskudunak onetsitako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko azpiproiektu bakoitzeko partiden artean, lehendik daudenen edota ekitaldian sortu beharreko suertatzen direnen artean, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatzen eta arautzen den lotura.

Ukitutako partidak zer departamenturi dagozkion, bertako kontseilariak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

**76. artikulua.** Kreditu-aldaketak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari dagozkionak.

1. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari dagokion gastua, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan kontsignatutakoa, kasuan kasuko ekitaldian exekutatzen ez den zatian, diruzaintzako gerakin atxikitzat joko da eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian txertatzen ahalko da, proiektu bakoitzaren partidetatik edozeinetan.

2. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren dirulaguntzei dagozkien partiden gaineko aurrekontu-aldaketak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluko mugetatik kanpo geratzen dira.

**77. artikulua.** Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 14. osagaiko funtsekin finantzatutako dirulaguntzen ordainketa aurreratuak.

Europar Batasunaren Next Generation EU funtsarekin finantzatzen den Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 14. osagaiaren ("Turismo Modernizaziorako eta Lehiakortasunerako Plana") 1. inbertsioaren ("Turismo Eredua Jasangarritasunerantz Eraldatzea") 2. azpi-neurriaren ("Helmu-gako Turismo Jasangarritasunerako Planen Programa") funtsekin emandako dirulaguntzen ordainketa aurreratuak egiteko ez da beharrezkoa izanen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 33.2 artikuluan ezarritako bermeak ematea.

**78. artikulua.** Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko 2. osagaiko dirulaguntzen deialdiak.

Administrazio-ebazpen bidez kreditu-zenbateko gehigarriak onesten ahalko dira Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko etxebizitza-birgaitzearen arloko laguntza-programak garatzean onetsitako dirulaguntza-deialdietan, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, baita eskabideak aurkezteko epea bukatuta baldin badago ere, programa horiek finantzatzeko jaso diren funts berrien zenbatekoarekin. Halaber, baliagarri dauden funtsak programen artean birbanatzea onesten ahalko da, errege dekretu horretan ezarritakoari jarraikiz. Gastu gehigarriaren igoera onesteak ez du berekin ekarriko eskabideak aurkezteko beste epe bat abiaraztea.

**79. artikulua.** Itoizko urtegiak ukitutako udalerrri eta kontzejuen lurralde-garapen jasangarrirako inbertsioen Plan Estrategikoaren proposamenean identifikatutako inbertsioak diruz laguntzeko zenbatekoaren banaketa. Proposamen hori "Itoiz Bartzordeak" onetsi zuen.

210002-21400-7609-922105 partida, "Itoizko Lurralde Garapen Iraunkorreko Proiektuak, Longida, Artzibar, Agoitz eta Orotz-Beteluko udalekiko hitzarmena" izenekoa, Itoizko urtegiak ukitutako udalerrri eta kontzejuetara bideratuko da, eta udal-lekin egindako hitzarmenen bidez artikulatuko da, honela banatuta:

- Agoizko Udala: % 47.
- Artzibarko Udala eta kontzejuak: % 24.
- Longidako Udala eta kontzejuak: % 24.
- Orotz-Beteluko Udala: % 5.

Beren eskumeneko inbertsioetarako, kontzejuak kudeaketa-esleipenak egiten ahalko dizkiete beren udalei.

**80. artikulua.** 2025eko inbertsio-programa.

1. Aurreko ekitaldietan kontabilitate nazionalari dagokionez lortutako gastu orokorren diruzaintzako gerakina, 67.139.000 eurokoa, III. eranskinean jasotako inbertsioak finantzatzeko erabiliko da, artikuluko honetan ezarritako baldintzetan.

2. Kasuko gastu-espeditarearen hasiera eta egindako inbertsioetik heldutako betebeharrak ekonomiko guztien aitortzea 2025eko ekitaldia amaitu baino lehen egin beharko dira.

Hala ere, exekuzio-epaia aurrekontu-ekitaldia baino luzeagoa duten eta aurreikusitako gastua 2025eko ekitaldian osorik gauzatu ezin den inbertsio-proiektuetan, baimendutako gastuaren gainerako zatia hurrengo ekitaldietan konprometitu eta aintzatesten ahalko da, eta diruzaintzako gerakinaren kargura finantzatzeko da; gerakin hori xede horri atxikita geratzeko da gainerako zenbateko horretan.

3. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatutako eta araututako loturarik ez egon arren, III. eranskinean adierazitako aurrekontu-partidak edo gaitu beharrekoak zuzkitzeko behar diren aurrekontu-aldaketak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen eta foru lege honetan horri buruz xedatutakoari lotuko zaizkio.

Dirulaguntzei dagozkien partiden aurrekontu-aldaketak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluko mugetatik kanpo geratzen dira.

4. Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren azken xedapenetako hirugarrenean eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legearen 67.2.l) artikuluan xedatutakoaren babesean, xedapen honetan jasotako zehaztapenen babesean sor daitezkeen gaiak Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordean arautuko eta interpretatuko dira.

**81. artikulua.** Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkaritza.

Europar Batasuneko Gaietarako Nafarroak duen Bulego Iraunkorren ohiko jardunerako behar diren gastuak kutxa finkoko aurrerakinekin edo, hala bada, justifikatu beharreko ordain-agin duekin ordaintzen ahalko dira.

**82. artikulua.** Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganberaren, Arartekoaren, Nafarroako Kontseiluaren eta Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren aurrekontu-zuzkidurak.

1. Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganberaren eta Arartekoaren aurrekontu-zuzkidurak ordaintzeko aginduak, hurrenez hurren, Parlamentuko Mahaiak edo erakunde horietako ordezkariak eskatu ahala eginen dira, irmoki eta aldizka.

2. Duten independentzia organikoa eta funtzionala ezertan galarazi gabe, Nafarroako Kontseilua eta Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa Foru Komunitateko Administrazioaren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari buruzko araudi orokorren mende egonen dira.

Halaber, haien ekonomia- eta aurrekontu-jarduna Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzailetzaren kontrolpean egonen da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat eta haren erakunde autonomoentzat ezarrita dauden baldintza beretan.

Nafarroako Kontseilurako eta Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegorako transferentzia arruntak, oro har, hiru hilabeteko aurrerapenarekin libratuko dira, non eta behar handiagoak ez diren justifikatzen.

Kapital transferentziak erakunde horietako ordezkariak eskatu ahala eginen dira, eskaera eragin duen gastuaren beharra justifikatuta.

**Lehen xedapen gehigarria.** Trafikoaren eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren arloko zerbitzu-transferentzia.

1. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Foru Komunitateko Administrazioaren plantillan sar ditzan apirilaren 4ko 252/2023 Errege Dekretuaren 2. zerrendan identifikatzen diren funtzionarioak edo langile lan-kontratadunak. Errege dekretu horren bidez Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzen zaizkio Estatuako Administrazioak trafikoaren eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren arloan dituen zenbait eginkizun eta zerbitzu.

2. Baimena ematen zaio Barneko, Funtzio Publiko eta Justiziako Departamentuari, Trafiko Taldean zerbitzuak ematen dituzten Estatuako Administrazio Orokorreko funtzionarioak Foruzaingoan sartu ahal izateko beharrezkoak diren mekanismoak sor ditzan, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorri.

3. Baldin transferentziaren aurretik langile bazuek oinarrizko ordainsarien eta ordainsari osagarrien batura gisa jasotzen zuten zenbatekoa handiagoa bazen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzura diharduten langileei aplikatzekoa zaien ordainsari-araubidearen arabera dagokiena baino, osagarri bat esleituko zaie alde hori konpentsatzeko. Konpentsazio hori xurgatu egingen da haien ordainsarrietan izaten den edozein gehikuntzarekin, eta horien artean espresuki sartuko dira bai haien ordainsari pertsonalei eta osagarriei dagozkienak, bai orokortasunez aplikatu daitezkeen ordainsari-eguneratzeei dagozkienak.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Eskumenak, Nafarroako Ubidearen 1. eta 2. faseetako eremu ureztagarrietakoak.

Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren (handitutako eremua barne) 1. faseko interes orokorreko azpiegiturak eraiki eta ustiatzeko herrialan emakidarako kontratuetan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak dituen eskumenak, azaroaren 22ko 12/2005 Foru Legeko –zeinak arautzen baititu Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko interes orokorreko azpiegituren eraikuntza eta ustiapena– 3.1.b) artikularen arabera, Lurralde Kohesiorako Departamentuari dagozkio, salbu eta lurzati-berrantolamenduko prozesuen eta sektore edo eremu bakoitza ureztatzen hasteko deklarazioen eta haien aldaketen gainekoak. Emakida-kontratuko obra-proiektuen administrazio-ebazpena eta kontratu horien aldatetena Lurralde Kohesiorako Departamentuak emanen du.

Dagokion departamentuak ordainduko ditu emakida-kontratuen kanonak, kredituek aurrekontratu jarrita duten diruaren arabera.

Era berean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Nafarroako Ubidearen 2. faseko eremu ureztagarrietan dauzkan jarduketa-eskumenak Lurralde Kohesiorako Departamentuari dagozkio, kasu horretan ere salbuespen direla lurzati-berrantolamenduko prozesuen eta sektore edo eremu bakoitza ureztatzen hasteko deklarazioen eta haien aldaketen gainekoak.

Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren interes orokorreko azpiegiturak eraikitzeke obra guztiak bukatuta daudenean, azpiegitura horren gaineko eskumenak Landa Garapeneko eta Ingu-rumeneko Departamentuarenak izanen dira.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Garraioaren arloko eskudantziak.

Garraio zerbitzuak kontratatzeko eta xedetat garraio jarduerak dituzten dirulaguntzak emateko, betiere beharrezkoa izanen da Lurralde Kohesiorako Departamentuko Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiak aurretik aldeko txostena jaulkitzea.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Itundutako ikastetxeen sostengurako funts publikoak banatzeko modulu ekonomikoak.

Ikastetxe itunduetako hezkuntza-maila eta -modalitate desberdinetan, eskola-unitate bakoitzeko modulu ekonomikoen urteko zenbatekoak, kontzeptu hauetan xehakaturikoak: “Irakasleen soldatak, gizarte-kargak barne”, unitate itundu bakoitzeko irakasle titular eta agregatuen ratioa zehaztuta, “Gastu aldakorrak”, “Bestelako gastuak”, eta, halakorik badago, “Langileria eta gastu espezifikoak”, kontzeptu bakoitzak modulu osoarekiko egiten duen portzentajea adierazita, l. eranskinen jasotakoak izanen dira.

“Irakasleen soldatak, gizarte-kargak barne” kontzeptuan biltzen da irakasleen ordainsarien eta haien gizarte-kargen ondoriozko kostua, irakaskuntza-mailen arabera.

“Gastu aldakorrak” kontzeptuan biltzen dira, irakasleen antzinasunaren eta horrek Gizarte Segurantzaren duen eraginaren kostuaz gain, irakasle-ordezteak, zuzendaritza-osagarria eta Langileen Estatutuaren 68.e) artikuluan ezarritakoaren ondoriozko betebeharrak.

Diru kopuru horiek funts orokor batean bilduko dira, zeina irakaslez irakasle banatuko baita ikastetxe itunduetako irakasleen artean, irakasle bakoitzarengan gertatzen diren inguruabarren arabera.

**Bosgarren xedapen gehigarria.** Ikasliburuen doakotasunerako programako liburuaren salmenta.

Ikasliburuen doakotasunerako programako liburuak saltzen ahalko dituzte, bakar-bakarrik, liburu-salmentan jarduteko gaitzuntza ematen dien baimena daukaten establezimenduek.

**Seigarren xedapen gehigarria.** Eskubide soziala alorrean bidegabeki jasotako prestazioak itzultzea.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ezarriko du zatika itzul daitezkeen Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiak, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak eta Nafarroako Beldintasunerako Institutuak ordaindutako aldizkako presta-

zio eta pentsio gisa bidegabeki jasoak izan diren kopuruak, interesik eta bermerik eskatu gabe, kasua bada zuzendaritza nagusi eta erakunde autonomo horiek proposatuta.

**Zazpigarren xedapen gehigarria.** Nekazari-tza-estatistikako lanetan laguntzeagatiko diru-ordainak.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak diru-ordainak ematen ahalko dizkie nekazaritzaren arloko estatistikan laguntzen duten pertsoneri, laguntza horrek sortzen dizkien gastuengatik, betiere gehieneko muga hauekin (eurotan, urtero):

Urte osoko labore-azalerak	85
Laboreen urteroko ekoizpenak	85
Abeltzaintzako beste ekoizpen batzuen ebaluazioa	275
Lurraren prezioak	1.400
Landa errentamenduen kanonak	380
Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen asteroko prezioak	1.900
Nekazariak eta abeltzainek jasotako prezioak	1.200
Nekazariak eta abeltzainek ordaindutako prezioak	655
Munta gutxiko produktuen prezioak	330
Nekazaritzako lansariak	220
Kontu makroekonomikoak	220
Meteorologia-Osoa	1.440
Meteorologia-Erdizka	1.275
Meteorologia-Termoplubiometrikoa, elurrari buruzko informazioarekin	1.070
Meteorologia-Termoplubiometrikoa	820
Meteorologia-Plubiometrikoa	725
Meteorologia-Erdizka, elurrari buruzko informazioarekin	1.525

**Zortzigarren xedapen gehigarria.** Zerbitzu kontratuak eta enkarguak, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsetik (NBEUF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF) heldu diren laguntzak kontrolatzekoak.

Europako Batzordearen 2021eko abenduaren 7ko 2022/127 (EB) Erregelamendu delegatuaren bidez osatu zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2116 (EB) Erregelamendua erakunde ordaintzaile eta beste organo batzuei, finantza kudeaketari, kontuen likidazioari, bermeei eta euroaren erabilerari buruzko arauekin; hori horrela, bermatzearen bete egiten direla erregelamendu delegatu horrek Europako NBEUF eta LGENF funtsen kontuak kitatzeko prozedurari dagokionez ezartzen dituen betebeharrak, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zerbitzu-kontratuak egiten ahalko ditu, kontrolatu eta egiaztatze aldera Europako funts horietatik heldu diren laguntzen eskatzaileei ordainketak egi-

teko oinarri gisa hartzen diren egitateak, edo aldezte aldera Nafarroako Foru Komunitateko Erakunde Ordaintzailearen eginkizunen betetzea. Era berean, zilegi izanen du eginkizun horiek betetzeko enkargua egitea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate instrumentalei.

**Bederatzigarren xedapen gehigarria.** Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxikitako osasun-langileak gaitzea irakaskuntza-edo ikerketa-ekintzetan parte hartzeko.

1. Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxikitako osasun-langileek irakaskuntza-lankidetzan jarduten ahalko dute Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, beren eginkizunen esparruan, irakaskuntza biziagotzeko programetan parte hartuz, horrelakoak ezartzen direnean Osasun Departamentuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko hitzarmen bat sinatuz.

2. Era berean, Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoi atxikitako osasun-langileei gaikuntza ematen zaie beren eginkizunen esparruan ikerketa-ekintzak egin ditzaten, Nafarroako Gobernuarentzat interesekoak diren foru sektore publiko instituzionaleko entitateetan.

3. Aurreko apartatuetan aipatutako jarduerak egiteko baimena eman ahal izateko, aurrez Osasun Zuzendaritza Nagusiaren, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Zuzendaritzaren edo Nafarroako Osasun Publikoaren edo Lan Osasunaren Institutuaren Kudeaketa Zuzendaritzaren ebazpena beharko da, interesdunaren atxikipen organikoaren arabera.

4. Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko hitzarmen bidez lotura ezarri ahalko da Unibertsitateko irakasle-eta ikertzaile-postuen eta osasun-erakunde publikoetako laguntza-zerbitzuen edo osasun publiko-koen artean, Osasunari buruzko Lege Orokorrean, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoan eta horien garapenerako xedapenetan ezarritakoari jarraituz. Postu horiek unibertsitateko irakasle-kidegoetakoak, lan-araubideko irakasle egonkorretakoak eta doktore-mailako laguntza-irakasleetakoak izan ahalko dira, eta lotuta egon ahalko dira Osasun Departamentuari eta horren erakunde autonomoi atxikitako osasun-langileen postuetara; eta, postu horiek betetzen ditzutenentzat, irakasle- eta laguntza-eginkizunak bete beharra ekarriko dute. Postu horietako baldintzak eta lan-ordutegia hitzarmenean zehaztuko dira.

**Hamargarren xedapen gehigarria.** Fakultatiboen produktibitate finkoko osagarriaren aplikazio-eremua zabaltzea.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 6.3.i) artikuluan ezarritako produktibitate finkoko osagarriaren aplikazio-eremua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako departamentu guztietako osasun-fakultatibo guztienganaino zabaltzen da.

**Lehen xedapen iragankorra.** LHko ikasleen praktikak: Gizarte Segurantzza.

2025ean zehar, 430001-43100-4800-322E00 partidari egotziko zaizkio, "Lanbide Heziketako ikasleen praktikak: Gizarte Segurantzza" izenekoari, prestakuntza-praktikak edo kanpoko praktika akademikoak egiten ari diren Lanbide Heziketako ikasleek Gizarte Segurantzza kotizatzeako gastuak, baldin eta praktika horiek funts publikoekin ordaindutako ikastetxeetako prestakuntza-programetan sartuta badaude.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Etxebizitza babestuen gehieneko salmenta-prezioak 2025ean.

1. Etxebizitza babestuak eta haien eranskinak saltzeko 2025eko gehieneko prezioa zehazteko, ez da aplikatuko Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 10.1.a) eta 10.1.d) artikuluan xedatutakoa.

2. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2025ean aplikatuko zaien modulu ponderatua 1.540,74 eurokoa izanen da metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

3. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2025ean aplikatuko zaien modulu ponderatu gabea 1.479,11 eurokoa izanen da metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

**Azken xedapenetako lehena.** Aldaketa Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean.

Bat. 16. artikuluko 2. apartatuko c) letra aldatzen da, eta hauxe da testu berria:

"c) Negozio-bolumen orokorrari buruzko adierazpena, eta, hala behar denean, kontratuaren xedearen antzekoa den jarduera-arloko negozio-bolumenari buruzkoa, eskueran dauden azken hiru ekitaldietakoa gehienez ere, lizitatu behar duenaren eratze-egunaren edo horren jardueren hasiera-egunaren arabera, betiere negozio-bolumen horren erreferentziak eskura dauden heinean.

Eskatzen den urteko gutxieneko negozio-bolumena ez da izanen kontratuaren balio zenbatetsia halako bat eta erdi baino handiagoa. Bereziki, prestazio jarraituko kontratuetan, zeinetan balio zenbatetsiaren kalkulak zenbait urteko epeak aurreikusten baititu, eska daitekeen negozio-bolumena kalkulatu da prestazioak urte bakoitzeko duen batez besteko balioa kontuan hartuta.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, behar bezala justifikatutako kasuetan zilegi izanen da muga horiek gainditzea, hala nola obren, zerbitzuen edo horniduren izaerari lotutako arrisku bereziekin zerikusia dutenetan. Kasu horretan, betekizun hori ezartzeko arrazoi nagusiak adierazi eginen dira 138.3. artikuluko aipatzen duen premiei buruzko txostenean".

Kontratu bat sortatan banatzen denean, irizpide hau sorta bakoitzari dagokionez aplikatuko da. Hala ere, kontratazio-organoak zilegi izanen du sorta-multzoak erreferentzia gisa hartuz ezartzea lizitatzailerei eskatutako urteko gutxieneko negozio-bolumena, baldin eta adjudikazio-hartzaileari

aldi berean exekutatu beharrekoak diren zenbait sorta adjudikatu bazaizkio”.

Bj. 22. artikuluko 1. puntuko f) letra aldatzen da, eta hauxe da testu berria:

“f) Eguneraturik ez egotea indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga arloko edo Gizarte Segurantzako betebeharreran, erregelamenduz ezartzen den moduan; edo, 50 langile edo gehiagoko enpresen kasuan, gutxienez langileen % 2 desgaitasuna duten langileak izatearen baldintza ez betetzea, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarateratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onesten duenak, 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, erregelamenduz ezartzen den moduan; edota, 50 langile edo gehiagoko enpresen kasuan, ez betetzea kasuko erregistroan inskribatu beharko den berdintasun-plan bat edukitzearen betebeharra, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatzen denaren arabera”.

Hiru. Hogeita batgarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta honela idatzita geratuko da:

“Sendagaien Prezioetarako Ministerioarteko Batzordearen erabakiz, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak lizitazio-deialdirik gabeko prozedura negoziatuaren bidez eskuratzen ahalko dituzte patente-babesa duten sendagaiak, sistema publikoan duten prezioa eta finantzaketa-baldintzak zehaztuta egonik Osasun Ministerioko Osasun Sistema Nazionalaren eta Farmaziaren Zerbitzu Erkideen Zorrerako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez. Tramitatzeko orduan, ase beharreko premien izaera berezia kontuan hartuta, huts-hutsik honako hau eskatuko da:

a) Beharrianaren eta kreditua egotearen justifikazioa.

b) Kontratuaren baldintzak onartzearen agiria, behar bezala sinatua.

c) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren Kudeaketa Zuzendaritzaren ebazpena, gastua eta kontratua onesten dituen.

Kontratu horiek publiko eginen dira, foru lege honen 102.1 artikuluan ezarritakoarekin bat”.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Aldatzea 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

12. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta hauxe da testu berria:

“1. Foru lege honen xedapenen arabera biktima deklaratuak diren pertsonen aitortuta edukiko dituzte, osasun arretaz gainera, kalte fisiko, psikologiko edo materialengatik ordain ekonomikoak.

Ordain ekonomiko horiek bateragarri dira beste erakunde batzuegandik gertakari berengatik jasotako edo jasotzea haizu den beste kopuru batzuekin, baldin eta foru lege honen babesean aitortu diren ordain ekonomikoak baino baxuagoak badira. Ondorioz, beste entitate batzuegandik jasotako edo haiek aitortutako kopuruak baxuagoak direnean Foru Komunitateko Administrazioak emandakoak baino, hartzaileak azken horrengandik jasoko du bi laguntza horien arteko aldea bakarrik.

Ordain ekonomikoak gehienez ere lau urteko epean pagatu beharko dira, eskaera baiesten duen ebazpenaren datatik zenbatzen hasita, eta kontzeptu horrengatik aitortutako eta likidatutako obligazioei ez zaie aplikatuko ordainketa eskatzeko eskubidearen preskripzio-epe orokorra, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Legearen 25.1b) artikuluan ezarritakoa”.

**Azken xedapenetako hirugarrena.** Aldatzea 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duena.

Bat. 45. artikuluen 2. apartatua aldatzen da, eta hauxe du testu berria:

“2. Lanpostu horiek betetzen dituztenek erabateko eskuragarritasun eta dedikazioko araubidean emanen dituzte zerbitzuak, eta ezin izanen dute bestelako irabazizko jarduerarik egin ez sektore publikoan ez pribatuan, honako hauek izan ezik:

a) Norberaren edo familiaren ondarea administratze hutsa.

b) Unibertsitate-zentroetako irakaslan, betiere lanaldi partzialean eta denbora jakin baterako egiten bada, eta kargu publikoan aritzeari kalte egin gabe.

c) Funtzionarioak edo irakasleak prestatzeko zentro ofizialetan mintegien zuzendaritza arduratzea edo ikastaro nahiz hitzaldiak ematea, baldin eta ez bada modu iraunkorrean edo ohikotasunez egiten, eta horrek ez baditu urtean 75 ordu baino gehiago hartzen.

d) Funtzio publikoan sartzeko prestakuntza ematea, zeinak berekin betiere ekarriko baitu langile-hautaketako organoen kide izateko baterae-

zintasuna, noiz eta ez den urteko 75 ordu baino gehiagoko dedikaziokoa, eta ez duen lan-ordute-giaren ez-betetzetik eragiten.

e) Administrazio publikoetan sartzeko hauta-probetako kalifikazio-epaimahaietan parte hartzea.

f) Literatura-, arte-, zientzia- eta teknika-ekoizpe-na eta -sorkuntza, bai eta horien ondoriozko argital-penak ere, baldin eta ez badira enplegu-harreman baten edo zerbitzu-emate harreman baten ondorioz-koak.

g) Edozein gizarte-hedabideren mahai-inguru eta programetako parte-hartze soltea.

h) Kongresu, mintegi, hitzaldi edo ikastaro profesionaletako parte-hartze eta elkarlan soltea”.

Bi. 63. artikuluko m) letra kentzen da.

Hiru. 64. artikuluari l) letra eranstean zaio, eta honela geratzen da idatzita:

“l) Sexu-jazarpena”.

Lau. 70. artikulua 3. apartatua aldatzen da, eta hauxe du testu berria:

“3. Arau-hauste arinengatik ezartzen diren zehapenak urtebeteren buruan preskribatuko dira; arau-hauste astunengatik ezartzen direnak, bi urteren buruan; eta arau-hauste oso astunengatik ezartzen direnak, hiru urteren buruan”.

Bost. Hogeita seigarren xedapen gehigarria gehitzen da, testu honekin:

“Hogeita seigarren xedapen gehigarria. Guraso-baimena.

Enplegatu publikoek urtebete baino gehiagoko guraso-baimena hartzen ahalko dute seme-alabak edo familian hartutako adingabeak zaintzeko, adingabeak zortzi urte bete arte. Zortzi aste jarraituko edo eteneko iraupena izanen du gehienez, eta lanaldi osokoa edo lanaldi partzialekoa izan daiteke, zerbitzuaren beharrek ahalbidetzen dutenean eta erregelamendu bidez ezarritako baldintzen arabera.

Baimen hori gurasoen, adoptatzaile edo hartzaileen, gizon zein emakumeen, eskubide indibiduala da, eta horren egikaritzea ezin da eskualdatu.

Zerbitzuaren beharrek ahalbidetzen dutenean, gurasoak, adoptatzaileak edo hartzaileak zehaztu beharko du zein egunetan hasiko eta amaituko den edo diren baimen-erabilaldia edo -erabilaldiak. Administrazioari hamabost eguneko aurrendenboraz jakinarazi beharko dio, eta aste osoka eginen da.

Administrazioak zilegi izanen du guraso-baimenaren ematea geroratzea arrazoizkoa den denbo-

ra batez, hori idatziz justifikatuz eta arrazoizkoagoa den erabilera-hautabide bat eskaini ondoren, baldin eta bi gurasoengan, adoptatzaileengan edo hartzaileengan suertatuko balitz, subjektu eta gertaera beragatik, eta larriki asaldatuko balu biek lan egiten duten administrazio-unitatearen funtzionamendu egokia.

Atal honetan xedatutakoaren ondorioetarako, 'ama biologikoa' terminoak haurdun dauden transpersonak ere barne hartzen ditu”.

Sei. Hogeita zazpigarren xedapen gehigarri berria eranstean da, testu honekin:

“Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Enplegu publikora sartzeko lehentasuna ematea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei.

1. Nafarroako Foru Komunitateak onetsitako araudiaren araberrako deialdi batean lanpostua lortzen duten genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek, edozein txandatan eta izaera hori frogatzen badute, gainerako izangaiekiko lehentasuna izanen dute lanpostu hutsak hautatzeko orduan, hargatik eragotzi gabe desgaitasuna duten pertsonentzat ezarritako lehentasun-hurrenkera.

2. Era berean, haien babesaren edo gizarte-laguntza integralerako eskubidea gauzatzeko, aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendetan hamar lanpostutik bigarrena gordeko da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek beteak izateko, betiere haiek kasuko hautaketa-probak gaindituz gero eta beren izaera frogatuz gero”.

**Azken xedapenetako laugarrena.** 10/2003 Foru Legea aldatzea, martxoaren 5ekoa, Nafarroako administrazio publikoaren montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorri buruzkoa.

Bat. 36. artikuluko 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta hauxe dute testu berria:

“1. Nahitaezko erretiroko pentsioa jasotzea bateraezina izanen da sektore publikoan edo pribatuan lanpostu, kargu edo jarduera batean aritzearekin.

Pentsio-jasotzea eten eginen da lanpostu horretako jardunak dirauen bitartean, haren baliohanditzeetan eraginik izan gabe.

2. Erretiroa hartu duen funtzionarioa behartuta dago pentsioa aitortu dion Nafarroako Administrazio Publikoaren montepioari jakinaraztera ezen sektore publikoko edo pribatuko lanpostu, kargu edo jarduera batean diharduela”.



**Bj.** 53. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta hauxe du testu berria:

“1. Ezintasun iraunkorragatiko biziarteko pensioa, dagokion ezintasun-gradua edozein dela ere, bateraezina izanen da sektore publikoan soldata batez ordainduriko lanpostu, kargu edo jarduera batean aritzearekin”.

**Azken xedapenetako bosgarrena.** 14/2018 Foru Legea aldatzea, ekainaren 18koa, Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzkoa.

**Bat.** 42. artikuluko 3. puntuko g) letra aldatzen da, eta hauxe du testu berria:

“g) Nafarroako Gobernuari sustapen eta komunikazio ekintzetarako zuzenean egindako ekarpenak, edo antzeko beste batzuk, ontzi-hondakinak kudeatzeko ezartzen diren sistemekin sinaturiko hitzarmenetatik edo ekoizlearen erantzukizun zabalduaren esparruan garatzen diren hondakin-kudeaketako beste sistema batzuetatik eratorriak; eta, kasua bada, toki erakundeek helburu horietarako erabiltzen ez dituztenak”.

**Bj.** 43. artikuluar 1) letra eta beste paragrafo bat erantsiko zaizkio, honako testu honekin:

“1) Baimenen eta hitzarmenen kontrola, ikuskapena eta jarraipena, ekoizlearen erantzukizun zabalduaren esparruan.

Zilegi izanen da Nafarroako Hondakinen Funtsaren baliabide ekonomikoak bideratzea hura kudeatzeko behar diren baliabideen hornikuntzarako”.

**Azken xedapenetako seigarrena.** 268/1996 Foru Dekretua aldatzea, uztailaren 1ekoa, Hartz arrea (Ursus Arctos) Berreskuratzeako Plana onesten duena.

**Bat.** Nafarroan hartz arrea berreskuratzeako Planaren eranskinaren hirugarren puntuko 2. helburuaren 6. neurria aldatzen da, eta honela geratuko da idatzita:

“Hirugarrena. 2 helburua. 6. neurria. Sistema arin eta sinplifikatua ezartzea, zeinaren bidez Ingu-

rumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak konpentsatuko baititu hartz arreak eragindako balizko kalte guztiak.

d) Hartz arreak eragindako kalteen tasazioa, kasua denean, animalien merkatu-prezioaren batez besteko balioespen estimatuaren arabera egingen da, adinaren, gaitasunaren eta arrazaren arabera. Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiak urtero finkatzen du balioespen hori, zeina haztapen-koefiziente batzuen bidez zuzenduko baita, lotutako beste galera-kontzeptu batzuk estaltzekoak eta prebentzio-neurriak hartu dituzten ustiategiak lehenestekoak. Balorazio horri, halaber, zenbateko jakin bat gehituko zaio erasoagatik, abere-taldearen kudeaketaren nahasmenduengatik (ganaduaren sakabanatzea, espezieen estresa, oneratzeko larratzea eta beste batzuk). Bai kalteen tasazioaren gainean aplikatu beharriko haztapen-koefizienteak, bai erasoagatiko nahasmendu gisako kopurua, biodibertsitatearen arloan eskumena duen kontseilariaren foru-agindu bidez zehaztuko dira. Foru agindu horrek, era berean, baremoak definitzen ahalko ditu, abeltzaintzari nahiz tokiko beste jarduera batzuei, hala nola erlezaintzari, egindako beste kalte batzuk tasatzekoak. Halaber, foru agindu bidez zehaztuko dira haztapen-koefizienteen etorkizuneko eguneratzeak, kalte-ordaina jaso behar duten jarduerak eta erasoaren ondoriozko nahasmendu gisa dagokien zenbatekoa, zenbateko horiek gorantz berrikustearen ildotik.

Baldin eta langile kualifikatuek aurreko paragrafoan adierazten diren kontzeptuengatik kalte handiagoak jakinaraziko edo ziurtatuko balituzte, kalte horien benetako zenbatekoa hartuko litzateke kon-tuan”.

**Bj.** Nafarroan hartz arrea berreskuratzeako Planaren I. eranskina kentzen da.

**Azken xedapenetako zazpigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

## I. ERANSKINA. Hezkuntza maila desberdinetako urteko moduluak eta ratioak, 2025

	IRAKASLE RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU ALDAKORRAK	MODULUA %	BESTE GASTU BATZUK	MODULUA %	MODULUA, GUZTIRA
	TITULARRA	AGREGATUA							
HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA	1,217	0	53.665,14	71,37	9.546,58	12,70	11.981,27	15,93	75.192,99
LEHEN HEZKUNTZA	1,391	0	61.337,89	70,48	12.996,29	14,93	12.700,24	14,59	87.034,42
DBHko LEHEN ETA BIGARREN MAILAK	1,652	0	77.046,63	72,81	13.719,79	12,97	15.053,11	14,22	105.819,53
DBHko HIRUGARREN ETA LAUGARREN MAILAK	1,728	0	87.563,66	72,67	16.028,42	13,30	16.896,64	14,03	120.488,72
DBH IKASKUNTZA ETA ERRENDIMENDUA HOBETZEKO PROGRAMA 2. ETA 3. MAILAK	1,391	0	70.486,72	70,17	13.070,75	13,01	16.896,64	16,82	100.454,11
DBH CURRICULUM EGOKITJUKO PROGRAMA	0,957	0,652	78.723,61	70,89	15.430,74	13,90	16.896,64	15,21	111.050,99
BATXILERGOA	1,652	0	83.712,48	70,95	17.381,53	14,73	16.896,64	14,32	117.990,65

	IRAKASLE RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA (%)	GASTU ALDAKORRAK	MODULUA (%)	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA (%)	LANGILERIA ETA GASTU ESPEZIFIKOAK	MODULUA (%)	MODULUA, GUZTIRA
	TITULARRA	AGREGATUA									
HEZ. BEREZIA Ikasgela Alternatiboa (Haur eta Lehen Hezkuntza)	1,087	0	47.932,62	43,71	8.357,92	7,62	12.700,24	11,58	40.659,99	37,09	109.650,77
HEZ. BEREZIA EU/AEN (Egokitzapen ikasgela)	1,087	0	47.932,62	47,33	8.357,92	8,25	12.700,24	12,54	32.283,81	31,88	101.274,59
HEZ. BEREZIA Ikasgela Alternatiboa (Bigarren Hezkuntza)	1,391	0	61.337,89	47,17	8.339,31	6,41	12.700,24	9,77	47.664,97	36,65	130.042,41
Lanbide Heziketa Bereziko zikloak	1,087	1,087	98.329,98	50,79	19.015,90	9,82	16.896,64	8,73	59.344,31	30,66	193.586,83
Helduarora igarotzeko programa	0,696	0,391	48.819,20	47,32	9.368,91	9,08	12.700,24	12,31	32.283,81	31,29	103.172,16
Hez. CBU DBH Espezifikoa	1,391	0	61.337,89	74,46	8.339,31	10,12	12.700,24	15,42			82.377,44

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK	IKASMILA	IRAKASLE RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA	GASTU ALDAKORRAK	MODULUA (%)	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA (%)	MODULUA, GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
1- KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA EMHZ (LOE)	1.	0,478	1,087	74.619,25	66,68	15.036,69	13,44	22.251,96	19,88	111.907,90
	2.	0,826	0,568	68.190,83	65,50	13.662,38	13,12	22.251,96	21,38	104.105,17
2- ERIZAINZAKO ZAINKETA LAGUNGARRIAK EMHZ	1.	0,435	1,304	82.501,22	68,26	16.686,33	13,81	21.679,81	17,93	120.867,36
	2.	0,261	0	13.225,77	63,47	3.717,47	17,84	3.894,72	18,69	20.837,96
3- SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA EMHZ (LOE)	1.	0,348	1,522	88.199,93	61,87	17.513,53	12,29	36.843,21	25,84	142.556,67
	2.	0,913	0,609	74.500,32	59,10	14.711,45	11,67	36.843,21	29,23	126.054,98
4- AURREINPRIMAKETA DIGITALA EMHZ (LOE)	1.	0,609	1,043	79.217,47	62,51	15.787,65	12,46	31.728,17	25,03	126.733,29
	2.	0,652	0,739	67.301,86	59,73	13.645,29	12,11	31.728,17	28,16	112.675,32
5- INPRIMAKETA GRAFIKOA EMHZ (LOE)	1.	0,696	0,957	79.638,76	61,42	16.033,44	12,36	34.000,09	26,22	129.672,29
	2.	0,653	0,783	69.392,53	59,03	14.167,98	12,05	34.000,09	28,92	117.560,60
6- NEURRIRA EGIND. ZURGIN LANEN ETA ALTZARIEN FABR. ETA INST. EMHZ	1.	0,826	1	88.219,95	64,16	17.434,63	12,68	31.836,37	23,16	137.490,95
	2.	0,565	1	74.994,19	61,43	15.251,19	12,49	31.836,37	26,08	122.081,75
7- FARMAZIA ETA PARAFARMAZIA EMHZ (LOE)	1.	0,652	0,913	75.369,14	68,07	15.048,61	13,59	20.299,53	18,34	110.717,28
	2.	0,652	0,717	66.281,85	66,26	13.450,61	13,45	20.299,53	20,29	100.031,99
8- INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK EMHZ (LOE)	1.	0,696	1	81.632,40	62,89	16.116,94	12,42	32.052,71	24,69	129.802,05
	2.	0,652	0,87	73.375,50	61,08	14.693,53	12,23	32.052,71	26,69	120.121,74
9- MEKANIZAZIOA EMHZ (LOE)	1.	0,522	1,391	90.943,44	64,37	18.136,06	12,84	32.211,39	22,79	141.290,89
	2.	0,696	0,826	73.565,12	60,96	14.899,04	12,35	32.211,39	26,69	120.675,55
10- MERKATARITZA JARDUERAK EMHZ	1.	0,87	0,87	84.422,30	68,38	16.904,36	13,69	22.134,20	17,93	123.460,86
	2.	1,044	0,479	75.111,26	66,79	15.209,15	13,52	22.134,20	19,69	112.454,61
11- MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ARRETA EMHZ (LOE)	1.	0,739	0,826	75.744,08	67,28	15.163,42	13,47	21.679,81	19,25	112.587,31
	2.	0,739	0,696	69.716,80	66,10	14.075,40	13,35	21.679,81	20,55	105.472,01
12- HONDEAKETAK ETA ZUNDAKETAK EMHZ	1.	1	0,827	89.016,20	61,83	17.740,76	12,32	37.213,08	25,85	143.970,04
	2.	0,74	0,783	73.801,12	58,58	14.970,61	11,88	37.213,08	29,54	125.984,81
13- SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREAK EMHZ	1.	0,74	1,305	98.002,98	70,13	19.376,94	13,87	22.361,37	16,00	139.741,29
	2.	1,175	0,261	71.642,19	65,98	14.577,56	13,43	22.361,37	20,59	108.581,12

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK	IKASMAILA	IRAKASLE RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	(% MODULUA)	GASTU ALDAKORRAK	(% MODULUA)	BESTELAKO GASTUAK	(% MODULUA)	MODULUA, GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
1- NAZIOARTEKO MERKATARITZA GMHZ	1.	1,174	0,348	75.625,16	68,17	14.931,35	13,46	20.381,56	18,72	110.938,07
	2.	1,217	0,217	71.730,47	67,46	14.212,33	13,37	20.381,56	19,54	106.324,36
2- ELEKTRONIKAKO MANTENTZE-LANAK GMHZ	1.	1,435	0,261	84.817,28	65,26	16.790,79	12,92	28.352,76	22,24	129.960,83
	2.	0,87	0,717	77.328,65	63,84	15.445,90	12,75	28.352,76	23,86	121.127,31
3- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK GMHZ	1.	0,87	0,522	68.287,73	65,89	13.827,83	13,34	21.517,55	21,17	103.633,11
	2.	1,348	0,13	74.335,04	67,31	14.582,20	13,20	21.517,55	19,86	110.434,79
4- HAUR HEZKUNTZA GMHZ (LOE)	1.	0,913	0,739	80.527,61	68,97	15.776,76	13,51	20.446,45	17,85	116.750,82
	2.	1,087	0,261	67.182,94	66,56	13.303,08	13,18	20.446,45	20,64	100.932,47
5- MARKETINA ETA PUBLIZITATEA GMHZ	1.	1,174	0,565	85.686,08	69,47	16.297,80	13,21	21.355,24	17,65	123.339,12
	2.	1,13	0,391	75.389,17	67,73	14.563,03	13,08	21.355,24	19,55	111.307,44
6- SALMENTEN ETA MERKATARITZAKO GUNEEN KUDEAKETA GMHZ (LOE)	1.	1,174	0,566	85.732,45	69,01	17.142,90	13,80	21.355,24	17,51	124.230,59
	2.	1,131	0,479	79.519,85	68,03	16.011,80	13,70	21.355,24	18,62	116.886,89
7- SAREKO SISTEMA INFORMATIKOEN GUNEEN KUDEAKETA GMHZ (LOE)	1.	1,217	0,652	91.898,69	69,71	17.573,23	13,33	22.361,37	17,28	131.833,29
	2.	1,304	0,329	81.331,79	68,15	15.648,39	13,11	22.361,37	19,09	119.341,55
8- AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA GMHZ	1.	0,87	1,043	92.443,23	68,02	18.165,98	13,37	25.301,90	18,97	135.911,11
	2.	1,348	0,261	80.408,69	66,07	15.998,02	13,14	25.301,90	21,19	121.708,61
9- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA GMHZ (LOE)	1.	0,696	1,043	83.626,05	64,88	16.472,07	12,78	28.785,48	22,76	128.883,60
	2.	1,304	0,304	80.172,70	64,44	15.448,69	12,42	28.785,48	23,58	124.406,87
10- GARRAIOAREN ETA LOGISTIKAREN KUDEAKETA GMHZ (LOE)	1.	0,783	0,696	71.946,44	67,32	14.543,90	13,61	20.381,56	19,43	106.871,90
	2.	1,13	0,304	71.355,53	67,49	13.998,10	13,24	20.381,56	19,65	105.735,19
10- GARRAIOAREN ETA LOGISTIKAREN KUDEAKETA GMHZ (LOE) ONLINE	1.	0,391	0,522	44.015,16	67,03	9.358,80	14,25	12.289,47	19,07	65.663,43
	2.	0,609	0,261	42.961,04	66,69	9.167,03	14,23	12.289,47	19,44	64.417,54
	3.	0,652	0,217	43.100,00	66,73	9.200,32	14,24	12.289,47	19,39	64.589,79
	4.	0,261		13.225,77	63,47	3.717,46	17,84	3.894,72	19,05	20.837,95
11- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA GMHZ (LOE)	1.	1,348	0,435	88.475,98	69,50	17.141,77	13,47	21.679,81	17,36	127.297,56
	2.	1,13	0,435	77.429,18	67,68	15.296,57	13,37	21.679,81	19,31	114.405,56
12- ANATOMIA PATOLOGIKOA ETA ZITODIAGNOSTIKOA GMHZ (LOE)	1.	1,261	0,435	84.067,40	67,74	15.974,31	12,87	24.068,56	19,76	124.110,27
	2.	1,13	0,391	75.389,17	66,12	14.563,03	12,77	24.068,56	21,51	114.020,76
13- ARTE GRAFIKOEN INDUSTRIETAKO PRODUKZIOA GMHZ	1.	0,391	1,348	82.311,58	63,03	16.683,41	12,78	31.598,33	24,66	130.593,32
	2.	1,13	0,478	79.422,81	62,70	15.650,33	12,36	31.598,33	25,43	126.671,47
14- FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA GMHZ (LOE)	1.	0,783	0,913	82.007,36	65,01	16.122,87	12,78	28.006,57	22,63	126.136,80
	2.	1,522	0,09	81.297,66	65,15	15.485,91	12,41	28.006,57	22,87	124.790,14
15- GIZARTERATZEA GMHZ	1.	1,131	0,609	85.547,13	69,49	17.109,14	13,90	20.446,45	16,92	123.102,72
	2.	0,87	0,609	72.321,37	67,30	14.701,19	13,68	20.446,45	19,39	107.469,01
16- ERAIKUNTZA-OBREN ANTOLAKETA ETA KONTROLA GMHZ	1.	1,000	0,826	88.973,87	61,70	18.008,31	12,49	37.213,08	25,81	144.195,26
	2.	0,826	0,783	78.145,30	59,57	15.816,61	12,06	37.213,08	28,37	131.174,99

ONARRIZKO MAILAKO HEZIKETA HEZIKETA ZIKLOAK/OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA	IKASMAILA	IRAKASLE RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	(% MODULUA	GASTU ALDAKORRAK	(% MODULUA	BESTELAKO GASTUAK	(% MODULUA	MODULUA, GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
Merkataritza-zerbitzuak	1.	0,522	0,783	62.754,31	64,53	14.167,30	14,57	20.328,95	20,90	97.250,56
	2.	0,522	0,783	62.754,31	64,53	14.167,30	14,57	20.328,95	20,90	97.250,56
Administrazio-zerbitzuak	1.	0,522	0,783	62.754,31	64,10	14.167,30	14,47	20.980,37	21,43	97.901,98
	2.	0,522	0,783	62.754,31	64,10	14.167,30	14,47	20.980,37	21,43	97.901,98
Bulegoko informatika	1.	0,522	0,783	62.754,31	64,10	14.167,30	14,47	20.980,37	21,43	97.901,98
	2.	0,522	0,783	62.754,31	64,10	14.167,30	14,47	20.980,37	21,43	97.901,98
Arte grafikoa	1.	0,522	0,783	62.754,31	61,09	14.167,30	13,79	25.795,57	25,12	102.717,18
	2.	0,522	0,783	62.754,31	61,09	14.167,30	13,79	25.795,57	25,12	102.717,18
Elektrizitatea eta elektronika	1.	0,522	0,783	62.754,31	60,92	14.167,30	13,75	26.091,44	25,33	103.013,05
	2.	0,522	0,783	62.754,31	60,92	14.167,30	13,75	26.091,44	25,33	103.013,05
Metalezko elementuen fabrikazioa	1.	0,522	0,783	62.754,31	60,79	14.167,30	13,72	26.315,31	25,49	103.236,92
	2.	0,522	0,783	62.754,31	60,79	14.167,30	13,72	26.315,31	25,49	103.236,92
Eralkin-zaharberitze eta -mantentze lanak	1.	0,522	0,783	62.754,31	59,20	14.167,30	13,36	29.086,50	27,44	106.008,11
	2.	0,522	0,783	62.754,31	59,20	14.167,30	13,36	29.086,50	27,44	106.008,11

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasle titularren ratioak asteen 23 zuzeneko irakastorduko lanaldia oinarri hartuz kalkulatu dira.

Bigarren Hezkuntzako irakasle titularren eta irakasle agregatuen ratioak asteen 23 eskola-orduko lanaldia oinarri hartuz kalkulatu dira.

**IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN MODULUAK**

<b>OINARRIZKO MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK/OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA</b>	<b>IKASMAILA</b>	<b>MODULUA</b>
Elektrizitatea eta elektronika	1.	103.013,05
	2.	103.013,05
Eraikin-zaharberitze eta -mantentze lanak	1.	106.008,11
	2.	106.008,11
Nekazaritza-lorezaintza eta lore-konposizioak	1.	98.028,40
	2.	98.028,40
Sukaldaritza eta jatetxeak	1.	103.148,82
	2.	103.148,82
Zurgintza eta altzarigintza	1.	102.958,61
	2.	102.958,61
Ile-apainketa eta estetika	1.	102.361,10
	2.	102.361,10
Metalezko elementuen fabrikazioa	1.	103.236,92
	2.	103.236,92
DBH Kanpoko Curriculum Egokituaren Programa		104.830,37

## II. ERANSKINA

GASTUAREN AZALPENA	1 Langileria-gastuak	2 Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	3 Finantza gastuak	4 Transferentzia arruntak	5 Kontingentzia-funtsa	6 Inbertsio errealak	7 Kapital-transferentziak	8 Finantza-aktiboak	9 Finantza-pasiboak	GUZTIRA
Lehendakaritza eta Berdintasuna	15.205.222	10.913.358		4.891.330		917.339	10			31.927.259
Ekonomia eta Ogasuna	31.375.966	25.023.330	50.083.121	904.572.080	12.010.608	3.327.685	20	10.350.020	411.260.000	1.448.002.830
Lurralde Kohesioa	16.752.407	101.047.963	110	378.208.078		130.253.427	48.113.796	10		674.375.791
Exehezitza, Gazteria eta Migrazio Politikak	5.806.264	6.901.437		20.742.307		7.367.480	87.466.154			128.283.642
Hezkuntza	591.858.572	77.285.280	10	222.968.624		22.930.904	6.905.730			921.949.120
Osasuna	781.920.876	481.814.718	20	200.694.455		41.130.720	5.598.424			1.511.159.213
Landa Garapena eta Ingurumena	30.479.764	25.169.480	10	57.039.109		11.960.529	55.376.242			180.025.134
Industria eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitala	8.832.623	9.660.067		9.842.702		1.235.910	67.128.646	500.000		97.199.948
Eskubide Sozialak, Ekonomia Soziala eta Enplegua	46.075.915	221.551.317	10	381.930.979		10.722.669	3.115.373			663.396.263
Kultura, Kirola eta Turismoa	19.536.207	16.865.498		29.791.905		9.723.307	10.605.781			86.522.698
Memoria eta Bizikidetzatza, Kanpo Ekintza eta Euskara	7.228.352	3.312.678		10.301.340		2.502.466	160.700			23.505.536
Bamea, Funtzio Publikoa eta Justizia	373.182.894	19.424.138		25.613.914		15.811.527	93.010	22.509.000		456.634.483
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	9.673.747	34.973.722	1.128	108.331.165		9.169.170	22.989.308		79.719	185.217.959
Nafarroako Kontseilua				466.662			38.000			504.662
Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa				916.710			81.000			997.710
Nafarroako Parlamentua				20.562.259			1.000.440			21.562.699
<b>AURREKONTUA, GUZTIRA</b>	<b>1.937.928.809</b>	<b>1.033.942.986</b>	<b>50.084.409</b>	<b>2.376.873.619</b>	<b>12.010.608</b>	<b>267.053.133</b>	<b>308.672.634</b>	<b>33.359.030</b>	<b>411.339.719</b>	<b>6.431.264.947</b>

DIRU-SARRERAREN AZALPENA	1 Zuzeneko zergak	2 Zeharkako zergak	3 Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	4 Transferentzia arruntak	5 Ondareko diru-sarrerak	6 Inbertsio errealak besterentzea	7 Kapital transferentziak	8 Finantza-aktiboak	9 Finantza-pasiboak	GUZTIRA
Lehendakaritza eta Berdintasuna			670.520	340.030	10		10			1.010.570
Ekonomia eta Ogasuna	2.890.957.000	2.515.661.000	3.160.662.000	4.040.030	6.129.050	100.040		169.986.146	483.084.144	6.101.564.040
Lurralde Kohesioa			2.419.120	53.145	182.257	20	30.000.030			32.654.572
Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politikak			256.502	347.665	41.020	10		73.200		718.407
Hezkuntza			2.287.450	12.556.477	36.717					14.880.644
Osasuna			11.846.706	134.110	252.010		30			12.232.856
Landa Garapena eta Ingurumena			2.808.595	12.138.254	20		14.013.760	10		28.960.639
Industria eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitala			561.627	529.391	30	10	6.379.973	10		7.471.041
Eskubide Sozialak, Ekonomia Soziala eta Eplegua			69.342.600	130.160.928	24.050		20			199.527.598
Kultura, Kirola eta Turismoa			789.000	281.319	259.697		8.430	320.634		1.659.280
Memoria eta Bizikidetzaren Kanpo Ekintza eta Euskara			17.200	79.410						96.610
Barnea, Funtzio Publikoa eta Justizia			5.439.870	2.951.276	20		10	21.659.424		30.050.600
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala			113.020	40			325.030			438.090
Borondatezko epearen eta epe exekutiboaren denbora-mugak argitzeko asmo berarekin, paragrafo bat gehitzen da 143.7 artikuluan. Eteteko eskaerak, geroratzeko, zatikatze, gauzatan ordaintzeko eta konpentsatzeko eskaerak ez beza-

la, borondatezko epea gerarazten du, eta geldirik iraunen du eskaera ebazten den arte. Horregatik, eskaera ukatzen dela jakinarazten denean, borondatezko epeak aurrera segituko du bere amaierarako gelditzen ziren egunak agortu arte, eta orduantxe hasiko da epe exekutiboa, kasua bada.

Azkenik, 52. artikuluko apartatu batzuk indargabetu egiten dira, geroratzeei buruzko araubidea berrantolatzearen ondorioz, eta Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren xedapen gehigarrietatik eta iragankorretatik indargabetzen dira 2010az gerotik aurkeztutako geroratze-eskaerei aplikatzen ahal zitzaizkien urteko berriazko neurriak arautzen zituztenak.

Geroratzeen landa, tributuen arloan arau-hausteen eta zehapenen araubidean sartzen da zerga berezien araudiak eskatutako zirkulazio dokumentuak zuzen jaulki, jaso edo erabiltzeari buruzko betebeharrak ez betetzearen berriazko tipifikazioa, zehapena eta mailaketa.

Azkenik, xedapen iragankor bat txertatzen da, non arautzen baitira 2025ean eskatzen diren geroratze edo zatikatzei aplikatzen ahal zaizkien berriazko baldintzak.

Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko beste-lako entitateen zerga-araubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bateginean, testuari argitasun handiagoa emate aldera, berriaz ezartzen da ikerketa-erakunde publikoen edo zentro teknologikoen jardueren antzekoak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko entitateei egindako diru dohaintzengatik kenkaria ehuneko 40 dela; hau da, ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik kenkariari aplikatzen zaion portzentaje bera. Horrez gain, adierazten da ezen kenkari horri mezenasgoagatik gainerako kenkarietarako ezarritako muga bera aplikatuko zaiola.

Pertsona fisikoek mikromezenasgoa egin dezaten sustatzeko, 150 eurotik 250 eurora igotzen da pertsona fisikoaren gaineko zergan ehuneko 80ko kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duen mezenasgo-dohaintzen zenbatekoa. 250 euroren gaitik gainera kenkari-portzentajea ehuneko 40an mantentzen da kultur mezenasgoaren kasuan, eta ehuneko 35etik 40ra igotzen da gizarte-, ingurumen- eta kirol-mezenasgoaren. Hala, mezenasgo modalitate guztietako kenkari-portzentajeak parekatuta egonen dira.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoei buruzko Foru Legeari dagokionez, bertan ezarritako tasak eguneratu eta egokitu egin dira, erabilerekin, errealtateekin eta arau berriekin bat

egin dezaten; eta zuzenketa tekniko txikiren bat ere egin da.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean eguneratu egiten dira, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzeko, hirilurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren zerga-oinarria zehazteko aplikatu beharreko gehieneko koefizienteak, 175.2 artikuluan jasoak. Toki Ogasunei buruzko Foru Legean xedatutakoari jarraikiz, koefiziente horiek urtero eguneratu behar dira. Eguneratzeak aintzat hartzen du Nafarroan pisuen batez besteko prezioek izandako bilakaera.

Horrez gain, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren tarifak ere eguneratzen dira, ehuneko 2,9 zehazki, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera.

Xedapen gehigarri bakarrak ezartzen ditu «Nafarroako Inbertsio Institutua» sozietate publikoak ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan aplikatzen ahal dituen onura fiskalak.

Azken xedapenetako lehenengoak eguneratu egiten ditu, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko Foru Legean ezartzen diren saneamendu-kanonaren tarifak. Tarifak igotzeko arrazoia da Hiri erabilerarako uraren ziklo osoaren plan gidarian integratuta dagoen Nafarroako Ibaien Saneamendurako Plan Gidariak pixkanakako oreka bilatu nahi duela epe luzean.

Azken xedapenetako bigarrenak kendu egiten du Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 85.4 a) artikulua, aipatu foru legea Europar Batasunaren araudira egokitzeko.

Bukatzeko, azken xedapenetako hirugarrenak Nafarroako Gobernua gaitzen du beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan foru lege hau garatu eta aplikatzeko, eta azken xedapenetako laugarrenak arautzen du foru legeak indarra hartuko duela Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean, bertan aurreikusitako efektuekin.

Proiektu hau egitean aintzat hartu dira arauketa onaren printzipioak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 129. artikuluan ezarriak. Horrela, foru lege honek bete egiten ditu, lehen adierazi diren arrazoiengatik, beharizanaren eta eraginkortasunaren printzipioak: justifikatuta dago interes orokorrari dagozkion arrazoiengatik, zenbait zerga-arau aldatzen duenez; lortu nahi diren eta aurreko paragrafoetan zehaztuta dauden helburuen identifikazio argian oinarritzen da; eta, azkenik, helburu horiek

lortzeko tresna egokia da, zerga arloan lege-erreserbak agintzen baitu, Tributuari buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 11. artikuluan ezarritakoa den horrek.

Foru lege honek beste foru lege batzuen zenbait artikulua aldatzen ditu ahalik eta zehaztasun handienarekin, eta, beraz, proportzionaltasunaren printzipioa ere betetzen da. Arrazoi beragatik betetzen da, halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa. Izan ere, zehatz-mehatz zaindu dira ordenamendu juridikoaren gainerakoarekiko koherentzia, egonkortasuna, aurreikusgarritasuna eta pertsona nahiz enpresendako ziurtasuna, oreka egokia lortze aldera legegilearen borondatearen eta errealitate juridikoaren gainontzekoaren artean, barne harturik jurisprudenziaz berriena ere. Foru lege honekin lortu nahi diren zenbait helburu erdiesteko, oso kontuan hartu da sinpletasun eta efizientziaren printzipioa ere, zeinak xede baitu beharrik gabeko edo bigarren mailako zama administratiboak ekiditea eta baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatzea.

Foru legea Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta [www.nafarroa.eus](http://www.nafarroa.eus) web-orrian argitaratzeak gardentasunaren eta irisgarritasunaren printzipioekiko begirunea lantzen du.

Bukatzeko, kontuan izan da gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunaren printzipioa, eta aldaketak egin dira, arauetan hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzearen.

**Lehen artikulua.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategineko manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 7.z) artikulua; 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera jasotako laguntzetan izanen du eragina.

“z) Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak (NBEUF) osoki finantzatutako laguntzak, zergaren sortzapen datan ogibide nagusitzat nekazaritza dutenek edo lehentasunezko nekazaritza-ustiategien titularrek jaso badituzte, uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroari buruzko Foru Legearen testu bateginean ezarritakoari jarraikiz. Halaber, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) kofinantzatutako Nafarroako landa-garapeneko programako laguntzak ere barne hartuko dira.

Aurreko paragrafoan aipaturiko laguntzei dagokien salbuespenaren gehieneko zenbateko bateratua 20.000 eurokoa izanen da.

Salbuetsita egonen dira halaber, aurreko paragrafoetan ezarritako muga eta betekizunei lotu gabe, Europar Batasuneko nekazaritza-politikak klimaren eta ingurumenaren aldeko araubideetarako (eko-araubideak) ematen dituen laguntzak eta nekazarien lehen instalaziorako ematen diren laguntza publikoak”.

Bi. 25.1 artikulua, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin

“1. Kapital higiezinaren etekin garbia izanen da etekin osoa honako kopuruekin murriztearen emaitza: hura lortzeko beharrezkoak diren gastuen zenbatekoa, bai eta etekinen jatorri diren ondasun edo eskubideek erabileragatik edo denboraren igarotzeagatik jasandako narriaduraren zenbatekoa ere. Erregelamendu bidez zehaztuko dira baldintzak.

Ondasun edo eskubide bakoitzeko, kenkariaren zenbateko osoa ezin izanen da handiagoa izan higiezinaren edo eskubidearen errentamendua edo lagapena eginez lortutako kasuan kasuko etekin osoaren zenbatekoa baino. Soberakinaren kenkaria hurrengo lau urte ondoz ondokoetan egiten ahal da, kasuan kasuko zergaldikoekin batera, eta apartatu honetan aipatzen den mugarekin. Baldin soberakin hori zergaldiko gastuekin batera gertatzen bada, azken horiek aplikatuko dira lehen-dabizi”.

Hiru. 25.2 artikulua, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin

“2. Aurreko apartatuan xedatutakoari jarraituz kalkulaturako etekin garbi positibotik honako murrizketak eginen dira:

a) Ehuneko 70, jatorria duenean sozietate publiko instrumentalaren bitartekotzazko etxebizitza-errentamendua. Sozietate hori arautzen da Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikuluan eta Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuan.

Aurreko paragrafoan ezarritako murriztapena ehuneko 90ekoa izanen da baldin eta errentamendu kontratua tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde batean dauden etxebizitzaren gainekoa bada.

b) Ehuneko 50, baldin eta etxebizitza tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde batean kokatuta egotearekin batera, etekina badator etxebizitza iraunkorrerako errentamendutik, zeina

arautzen baita Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan. Ondorio horietarako, gelakako errentamenduak ez dira barne hartzen.

Bigarren apartatu honetan ezarritako murriztapenak aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izanen da errentamendu kontratua behar bezala erregistratuta egotea Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroan, zeina aurreikusita baitago Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 90. artikuluan.

Murriztapenak aplikatzen ahalko dira subjektu pasiboak aitortu egin dituen etekinetan soilik”.

Lau. 36.B).1.a) artikulua, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin

a) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboek, baldin haien negozio-zifraren zenbateko garbia ez bada aurre-aurreko urtean 350.000 euro baino gehiagokoa izan”.

Bost. 43.1.b) artikulua, bigarren paragrafoa, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin

“Non eta ez den frogatzen ezen ordaindutako zenbatekoa alde independenteek merkatuko baldintza normaletan hitzartuko zuketenearekin bat datorrela, eskualdatze-balioa ezin da izan honako bi hauetako handiena baino txikiagoa:”

Sei. 45.2 artikulua, lehen paragrafoa, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin

“2. Enpresa- edo lanbide-jarduera bati atxikita dauden ibilgetu materialeko, ibilgetu ukiezineko eta higiezin-inbertsioetako elementuen eskualdaketa azaleratzen diren ondare-gehitzeak kargatu gabe uzten ahal dira, baldin besterentzearen zenbateko osoa lehen aipatutako elementuetatik edozeinetan berrinbertitzen bada, Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako ezarritako baldintza berberetan”.

Zazpi. 62.12.e) artikulua, hirugarren paragrafoa gehitzea, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin

“Tributuen arloan eskumena duen departamentuaren titularraren foru agindu bidez zehazten ahalko dira kenkariaren oinarriaren parte diren gastuak.”

Zortzi. 62.13.a) artikulua, ‘Zortzigarrena’ ordinala ezabatzea, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin

Bederatzi. 62.13.b) artikulua, ‘Lehenengoa’ ordinala aldatzea eta ‘bosgarrena’ ordinala ezabatzea, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin

“1. M1 eta N1 kategorietako ibilgailuei dagokiez: 35.000 euro”.

Hamar. 62.13.c) artikulua, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera eskuratutako ibilgailuentzako eraginarekin

“c) Subjektu pasiboak kenkaria aplikatzen ahal du a) letraren ordinaletako bakoitzean jasotzen diren ibilgailuetako bakar batengatik soilik.

Aipatu ordinaletan jasotako ibilgailu mota bakoitzeko, kenkaria bost urtean behin besterik ezin izanen da aplikatu, salbu eta ibilgailua galdu izanaren justifikazioa aurkezten bada. Kasu horretan, subjektu pasiboak aseguruarengandik kalte-ordaina jaso badu, kenkariaren oinarria kalte-ordainaren zenbatekoarekin minoratuko da. Era berean, ibilgailuak subjektu pasiboaren ondarean gutxienez bost urtez egon beharko du, eskualdatu edo laga gabe, salbu eta galdu dela justifikatzen bada”.

Hamaika. 62.14.a) artikulua, lehenengo paragrafoa, b).2, c).2 eta ‘Hirugarrena’ ordinala gehitzea eta d) apartatuan hirugarren paragrafoa gehitzea, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin

“a) Kengarria izanen da erregai alternatiboetarako azpiegitura baten ezarpenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023ko irailaren 13ko 2023/1804 (EB) Erregelamenduan ezarritako definizioaren arabera potentzia arruntekoa edo potentzia handikoa den karga-sistema bat zerbitzuan jartzeko beharrezkoak diren obra zibilean, instalazioetan, kableetan eta konexio-puntuak egindako inbertsioaren zenbatekoaren 100eko 15”.

“2. Karga-tokiaren potentzia 22 kW baino handiagoa bada, kenkariaren portzentajea 5 puntu handituko da”.

“2. Potentzia handiko karga-tokiak, 50 kW-erainokoak: 25.000 euro.

3. Potentzia handiko karga-tokiak, 50 kW baino gehiagokoak: 200.000 euro”.

“Tributuen arloan eskumena duen departamentuaren titularraren foru agindu bidez zehazten ahalko dira kenkariaren oinarriaren parte diren gastuak”.

Hamabi. 64.4 artikulua, lehen paragrafoa, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin

“Zerga ordaintzetik salbuetsitzat jotzen diren dirulaguntzak eman badira inbertsioa finantzatzeko, horiek kenkariaren oinarria minoratuko dute”.

Hamahiru. 68. artikulua, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin

“68. artikulua. Alarguntza-pentsioen eta kotizaziopeko erretiro-pentsioen ondoriozko kenkariak

A) Alarguntza-pentsioen ondoriozko kenkariak.

1. Gutxieneko osagarrietarako eskubidea duten alarguntza-pentsioengatiko kenkaria

1. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, alarguntza-pentsioa jasotzen duten subjektu pasiboek, eskubidea badute urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 59. artikuluan aipatutako gutxieneko osagarriak jasotzeko, zilegi izanen dute kenkari bat aplikatzea, honako hauen arteko alde negatiboa adinakoa: batetik, kasuan kasuko pensio-motarentzat finkatutako urteko gutxieneko zenbatekoa, zeinari gehituko baitzaio, kasua bada, testu bategin horren 60. artikuluan arautzen den amatasunagatiko osagarria, eta bestetik, 14.490 euroko zenbatekoa.

2. Alarguntza-pentsioarekin batera beste pensioen bat kobratzen bada, kenkariaren zenbatekoa izanen da honako hauen arteko alde negatiboa adinakoa: jasotako pensioen zenbatekoen batura, amatasunagatiko osagarria barne, halakorik bada, eta 14.490 euroko zenbatekoa.

3. Zilegi izanen da eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuari eskatzea kenkari hori garaiz aurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk egingen.

Erregelamendu bidez arautuko da kenkari hori egiteko prozedura, bai eta garaiz aurretiko abonua eskatzeko eta eskuratzeko prozedura ere. Erregelamendu horretan, kudeaketa efizienterako irizpideei jarraikiz, gutxieneko bat ezartzen ahalko da, zeinaren azpitik ez baita kenkariaren garaiz aurreko ordainketarik jasoko.

2. Gutxieneko osagarrietarako eskubiderik ez duten alarguntza-pentsioengatiko kenkaria.

1. Dagokion kuota diferentziala zehaztua izan ondoren, Gizarte Segurantzarengandik kotizaziopeko alarguntza-pentsioa jasotzen duen subjektu pasiboak, harako pensioa zeina kasuan kasuko pensio-motarentzat finkatutako urteko gutxieneko zenbatekoa baino handiagoa eta 14.490 euro baino gutxiagokoa baita, zilegi izanen du kenkaria egitea, zeina izanen baita jasotako pensioaren urteko zenbatekoaren (aipatu testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasunagatiko osagarria barne, halakorik bada) eta aipatu 14.490 euroko zenbatekoaren arteko diferentzia negatiboa adinakoa.

2. Alarguntza-pentsioarekin batera beste pentsioren bat kobratzen bada, kenkariaren zenbatekoa izanen da honako hauen arteko alde negatiboa adinakoa: jasotako pentsioen zenbatekoen batura, amatasunagatiko osagarria barne, halakorik bada, eta 14.490 euroko zenbatekoa.

3. Kenkari hori egiteko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboa beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera, eta, horrekin batera, zergaldian beste errentarik jaso ez izana, salbuetsiak barne, zeinek, alarguntza-pentsioari eta kenkariari berari gehituta, 21.619,59 euro baino gehiagoko zenbatekoa egiten baitute guztira.

Aipatutako errentek muga hori gaindituz gero, gaindikinak behar den kopuruan gutxituko du kenkariaren zenbatekoa, ezereztu arte, kasua bada.

Subjektu pasiboa familia-unitate bateko kide denean, kenkaria egiteko beharrezkoa izanen da familia-unitate horretako ezein kide beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera; eta, horrekin batera, lehenengo paragrafoan ezarritako errenta-muga 28.980 eurokoa izanen da, eta familia-unitatearen multzo osoa hartuko du barne. Kasua bada, kenkaria gutxituko da, bigarren paragrafoan ezarritako moduaren arabera.

Aurreko paragrafoetan ezarritako errenta-muga zehazteko, ez dira kontuan hartuko pobrezia energetikoa edo etxebizitzaren galera ekiditeko laguntza publikoak, ahulezia ekonomiko berezia edo gizarte-bazterketako arriskua duten etxeetan jasotzen direnak.

4. Bigarren apartatu honetan araututako kenkaria ezin izanen da alde zuzenetik abonatu.

Kenkari hori baliatzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da.

3. SOVI-Zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko asegurutiko alarguntza-pentsioen ondoriozko kenkaria.

1. Kasuko kuota diferentziala zehaztuta dagoe-larik, SOVI-zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko asegurutiko alarguntza-pentsioa jasotzen duen subjektu pasiboak zilegi du kenkaria egitea, jasotako pentsioaren urteko zenbatekoaren (aipatu testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasunagatiko osagarria barne, halakorik bada) eta 14.490 euroren arteko diferentzia negatiboa adinakoa.

2. SOVI-zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko asegurutiko alarguntza-pentsioarekin batera beste pentsioren bat kobratzen bada, kenkariaren zenbatekoa kalkulatzeko eragiketa hau

eginen da: jasotako pentsioen baturaren (amatasunagatiko osagarria barne, halakorik bada) eta 14.490 euroren arteko diferentzia negatiboa.

3. Kenkari hori egiteko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboa beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera, eta, horrekin batera, zergaldian beste errentarik jaso ez izana, salbuetsiak barne, zeinek, alarguntza-pentsioari eta kenkariari berari gehituta, 21.619,59 euro baino gehiagoko zenbatekoa egiten baitute guztira.

Aipatutako errentek muga hori giandituz gero, gaindikinak kenkariaren zenbatekoa gutxituko du behar den kopuruan, ezereztu arte, kasua bada.

Subjektu pasiboa familia-unitate bateko kide denean, kenkaria egiteko beharrezkoa izanen da unitateko kide bat ere beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera; eta, horrekin batera, lehenengo paragrafoan ezarritako errenta-muga 28.980 eurokoa izanen da eta familia-unitatearen multzo osoa hartuko du barne; kenkaria gutxituko da, kasua bada, bigarren paragrafoan ezarritako moduan.

Aurreko paragrafoetan ezarritako errenta-muga zehazteko, ez dira kontuan hartuko pobrezia energetikoa edo etxebizitzaren galera ekiditeko laguntza publikoak, ahulezia ekonomiko berezia edo gizarte bazterketaren arriskua duten etxeetan jasotzen direnak.

4. Zilegi izanen da eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuari eskatzea kenkaria garaiz aurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkariari egingen.

Erregelamendu bidez arautuko da kenkari hori egiteko prozedura, bai eta garaiz aurreko abonua eskatzeko eta eskuratzeko prozedura ere. Erregelamendu horretan, kudeaketa efizienterako irizpideei jarraikiz, gutxieneko bat ezartzen ahalko da, zeinaren azpitik ez baita kenkariaren garaiz aurreko ordainketarik jasoko.

4. A) letran jasotako kenkariei aplikatzeko arau orokorrak.

Lehena. Letra honetan araututako kenkariak kalkulatzeko, baldin alarguntza-pentsioa edo horrekin batera suertaturiko pentsioetatik edozein ez bada zergaldi osoan zehar jaso, horren zenbatekoa urtera eramane da. Kasu horretan, zergaldian zehar alarguntza-pentsioa jasotzeko eskubidea ematen duen egun-kopuruaren proportzioan kalkulatu da kenkaria.

Bigarrena. Letra honetan araututako kenkariak bateraezinak izanen dira errenta bermatuko prestazioekin, zeina azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legean, inklusio sozialerako eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituenean, araututa baitago, eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrerarekin, abenduaren 20ko 19/2021 Legean arautuarekin.

Hori hala izanik ere, prestazio horiek ez badira zergaldi osoan zehar jaso, prestazioak zenbat egunetan ez diren jaso, kopuru horren proportzioan kalkulatu dira kenkariak.

B) Kotizaziopeko erretiro-pentsioen ondoriozko kenkariak.

1. Kotizaziopeko erretiro-pentsioen ondoriozko kenkariak, gutxieneko osagarrietarako eskubidea dutenak.

1. Dagokion kuota diferentziala zehaztuta dagoelarik, Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko erretiro-pentsioa jasotzen duen subjektu pasiboak, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 59. artikuluan ezarritako gutxieneko osagarriak jasotzeko eskubidea badu, kenkaria aplikatzen ahalko du, kasuan kasuko pentsio motarentzat finkatutako urteko gutxieneko zenbatekoaren (aipatu testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasunagatiko osagarria gehituta, halakorik bada) eta 14.490 euroko kopuruaren arteko diferentzia negatiboa adinakoa.

2. Erretiro-pentsioarekin batera beste pentsioen bat kobratzen bada, kenkaria kalkulatzeko eragiketa hau egingen da: jasotako pentsioen baturaren (amatasunagatiko osagarria barne, halakorik bada) eta 14.490 euroren arteko diferentzia negatiboa.

3. Subjektu pasiboa familia-unitate bateko kide denean, kenkaria egin ahal izateko beharrezkoa izanen da familia-unitateko kide bat ere beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera; eta, horrekin batera, zergaldian, familia-unitatearen errentek, salbuetsiak barne, erretiro-pentsioa eta kenkaria bera gehituta, ezin izanen dute gainditu 28.980 euroko kopurua.

Aipatutako errentak muga horretatik gorakoak izanez gero, gaindikinak kenkariaren zenbatekoa gutxituko du behar den kopuruan, hura ezereztu arte, kasua bada.

Aurreko paragrafoan ezarritako errenta-muga zehazteko, ez dira kontuan hartuko pobrezia energetikoa edo etxebizitzaren galera ekiditeko laguntza publikoak, ahulezia ekonomiko berezia edo gizarte bazterketaren arriskua duten etxeetan jasotzen direnak.

2. Kotizaziopeko erretiro-pentsioen ondoriozko kenkariak, gutxieneko osagarrietarako eskubidea ez dutenak.

1. Dagokion kuota diferentziala ezarrita dagoelarik, kasuan kasuko pentsio motarentzat finkatutako urteko gutxieneko zenbatekoa baino gehiagoko eta 14.490 euro baino gutxiagoko kotizaziopeko erretiro-pentsioa Gizarte Segurantzatik jasotzen duen subjektu pasiboak zilegi du kenkaria egitea, zeina izanen baita jasotako pentsioaren urteko zenbatekoaren (aipatu testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasunagatiko osagarria barne, halakorik bada) eta 14.490 euroko kopuru horren arteko diferentzia negatiboa adinakoa.

2. Erretiro-pentsioarekin batera beste pentsioen bat kobratzen bada, eragiketa hau egingen da kenkaria kalkulatzeko: jasotako pentsioen baturaren (amatasunagatiko osagarria barne, halakorik bada) eta 14.490 euroko kopuruaren arteko diferentzia negatiboa.

3. Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboa beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera, eta, horrekin batera, zergaldian beste errentarik jaso ez izana, salbuetsiak barne, erretiro-pentsioari eta kenkariari berari baturik 21.619,59 euro baino gehiagoko gutzituko zenbatekoa egiten duenik.

Aipatutako errentak muga horretatik gorakoak izanez gero, gaindikinak behar den kopuruan gutxituko du kenkariaren zenbatekoa, hori ezereztaraino, kasua bada.

Subjektu pasiboa familia-unitate bateko kide denean, kenkaria egin ahal izateko beharrezkoa izanen da familia-unitate horretako ezein kide beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera; eta, horrekin batera, lehenengo paragrafoan ezarritako errenta-muga 28.980 eurokoa izanen da eta familia-unitatearen multzo osoa hartuko du barne. Kasua bada, kenkaria gutxituko da bigarren paragrafoan ezarritako moduan.

Aurreko paragrafoetan ezarritako errenta-muga zehazteko, ez dira kontuan hartuko pobrezia energetikoa edo etxebizitzaren galera ekiditeko laguntza publikoak, ahulezia ekonomiko berezia edo gizarte bazterketaren arriskua duten etxeetan jasotzen direnak.

3. Zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguruak zahartzaro-pentsioen ondoriozko kenkariak.

1. Dagokion kuota diferentziala ezarrita dagoelarik, zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguruaren (SOVI) zahartzaro-pentsio bat jasotzen duen subjektu pasiboak zilegi du kenkaria

egitea, jasotako pentsioaren urteko zenbatekoaren (aipatu testu bateginaren 60. artikuluan arautzen den amatasunagatiko osagarria barne, halakorik bada) eta 14.490 euroko kopuruaren arteko diferentzia negatiboa adinakoa.

2. Zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguru(SOVI) zahartzaro-pentsioarekin batera beste pentsioren bat kobratzen bada, kenkariaren zenbatekoa kalkulatzeko eragiketa hau egingen da: jasotako pentsioen baturaren (amatasunagatiko osagarria barne, halakorik bada) eta 14.490 euroko kopuruaren arteko diferentzia negatiboa.

3. Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboa beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera; eta, horrekin batera, hark zergaldian beste errentarik jaso ez izana, salbuetsiak barne, erretiro-pentsioari eta kenkariari berari baturik 21.619,59 euro baino gehiagoko guztizko zenbatekoa egiten duenik.

Aipatutako errentak muga horretatik gorakoak izanez gero, gaidinakin kenkariaren zenbatekoa gutxituko du behar den kopuruan, hori ezerezteraino, kasua bada.

Subjektu pasiboa familia-unitate bateko kide denean, kenkaria egiteko beharrezkoa izanen da familia-unitate horretako ezein kide beharturik ez egotea ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera; eta, horrekin batera, lehenengo paragrafoan ezarritako errenta-muga 28.980 eurokoa izanen da, eta familia-unitateko kide guztiak hartuko ditu barne. Kasua bada, kenkaria gutxituko da bigarren paragrafoan ezarritako zertzeladen arabera.

Aurreko paragrafoetan ezarritako errenta-muga zehazteko, ez dira kontuan hartuko pobrezia energetikoa edo etxebizitzaren galera ekiditeko laguntza publikoak, ahulezia ekonomiko berezia edo gizarte-bazterketako arriskua duten etxeetan jasotzen direnak.

4. Arau orokorrak, B) letran jasotako kenkarietarako aplikatzekoak.

Lehena. Letra honetan araututako kenkariak kalkulatzeko, erretiro-pentsioa edo aintzat hartzen den beste edozein pentsio ez bada zergaldi osoan zehar jaso, horren zenbatekoa urtera eramanez da. Kasu horretan, kenkaria kalkulatu da zergaldian zehar erretiro-pentsioa jasotzeko eskubidea dagoen egun-kopuruaren proportzioan.

Bigarrena. Letra honetan araututako kenkariak bateraezinak izanen dira inklusio sozialerako eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legean eraentzen

den errenta bermaturako prestazioak jasotzearekin eta abenduaren 20ko 19/2021 Legean araututako bizitzeko gutxienerako errenta jasotzearekin.

Hori hala izanik ere, prestazio horiek ez badira zergaldi osoan zehar jasotakoak, kenkariak kalkulatu dira prestazioak zenbat egunetan ez diren jaso, horren proportzioan.

Hirugarrena. Letra honetan araututako kenkariak ezin izanen dira aurretiaz ordaindu.

Kenkari hori egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da”.

Hamalau. 78. artikulua, 2. apartatuaren bigarren paragrafoa ezabatzea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin

Hamabost. 78.3 artikulua, bigarren paragrafoa, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin

“Laguntza publikoen ondoriozko ondare-gehikuntzak kobrantza gertatzen den zergaldiari egotziko zaizkio”.

Hamasei. 86.2 artikulua, bigarren paragrafoa

“Dena den, zilegi izanen da erregelamenduz betebehar horretatik salbuestea Merkataritza Kodearen arabera merkataritza-izaerarik ez duen enpresa-jardueraren bat gauzatzen duten zergadunak, bai eta beren etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren araubideko modalitate sinplifikatu edo bereziaren bidez zehazten duten subjektu pasiboak ere”.

Hamazazpi. Hogeita hamargarren xedapen gehigarria, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina izanen duena

“Hogeita hamargarren xedapen gehigarria. Kapital higiezinaren etekin garbi positiboaren murriztapena.

Lege honen 25.2.a) artikulua bigarren paragrafoan eta 25.2.b) artikuluan hurrenez hurren ezarritako ehuneko 90eko eta ehuneko 50eko murriztapenak ez dira aplikatuko tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeak deklaratu eta argitaratu diren zergaldira arte”.

Hemezortzi. Berrogeita hamargarren xedapen gehigarria, bigarren paragrafoa, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eragina duena

“Atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea ehuneko 5ekoa izanen da”.

Hemeretzi. Berrogeita hamalagarren xedapen gehigarria; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera eskuratuak ibilgailuetan izanen du eragina



“Berrogeita hamalagarren xedapen gehigarria. Finantza-errentamenduko kontratu bidez eginak edo finantzaketa malgu edo aukera askoko finantzaketako kontratu bidez finantzatuak diren inbertsioak.

1. Lege honen 62. artikulua 12., 13. eta 14. apartatuetan araututako kenkariak aplikatzearen ondorioetarako, onartu egin dira finantza-errentamenduko kontratuak baliatuz egindako inbertsioak, baldin subjektu pasiboak erosketa-aukera erabiltzeko konpromisoa hartzen badu.

Erosteko aukera ez gauzatzeak esan nahiko du ez dela bete kenkari hauek aplikatzeko betekizuna; horrenbestez, subjektu pasiboak bere tributuegoera erregularizatu beharko du, 83.4 artikuluan ezarritzen denarekin bat etorritik.

2. Lege honen 62.13 artikuluan araututako kenkaria aplikatzeari dagokionez, baldin eta inbertsioa malgutasunezko edo aukera anitzeko finantzaketarako kontratuen bitartez finantzatzen bada, kenkaria aplikatzeko baldintza izanen da kontratuan ibilgailuaren jabetza mantentzeko aukera hautatu izana.

Aukera hori ez baliatzeak esan nahiko du kenkaria aplikatzeko baldintzak ez direla betetzen, eta subjektu pasiboa behartuta egonen dela bere tributuegoera erregularizatzerako, 83.4 artikulua ezarritzen duenarekin bat etorritik.

Malgutasunezko edo aukera anitzeko finantzaketarako kontratutzat joko dira erosleari ibilgailuaren jabetza ez mantentzearen aukera eskaintzen diotenak”.

**Hogeji.** Hirurogeita hamaikagarren xedapen gehigarria gehitzea. 2024ko zergaldian izanen du eragina

“Hirurogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. Denbora-egozpena egitea, jardueraren diru-sarreretan izandako galerak konpentsatze aldera nekazaritza-aseguruetatik 2024an jasotako kalte-ordainena.

Beren jardueraren diru-sarreretan izandako galerak konpentsatze aldera 2024an nekazaritza-aseguruetatik kalte-ordainak jaso dituzten subjektu pasiboek hautatzen ahalko dute, zein ere den aplikatzen duten edo aplikatu izan duten denbora-egozpeneko irizpidea, kalte-ordain gisa jasotako kopuru horien osotasuna 2024ko zergaldiari egotea ala 2025eko zergaldiari.

Aukera hori baliatuko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2024ko zergaldiko autolikidazioan, zeina aurkeztuko baita pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarea-

ren gaineko zergaren 2024ko zergaldiko autolikidazio-ereduak onetsi eta horiek aurkeztu eta sartzeko arauak xedatzen dituen foru aginduak ezartzen duen epean, eta ezin izanen da aldatu epe hori igarota dagoenean”.

**Hogeita bat.** Hogeita hamaikagarren xedapen iragankorra gehitzea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin

“Hogeita hamaikagarren xedapen iragankorra. Lehen sektorearendako laguntza publikoak, 2024ko urtarrilaren 1ean egotzi gabe dirautenak.

2024ko urtarrilaren 1a baino lehen jasotakoak diren lehen sektorearendako laguntza publikoen zenbatekoak, baldin egotzi gabe badiraute 2024ko urtarrilaren 1ean, 78.2 eta 3 artikulua 2023ko abenduaren 31n indarrean zeukan testuan ezarritako denbora-egozpeneko araubidea aplikatzearen ondorioz, ez dira salbuetsita egonen, eta laguntza-jasotzearen aldi indarrean zeuden denbora-egozpeneko arauen arabera egotziko dira”.

**Hogeita bi.** Hogeita hamabigarren xedapen iragankorra gehitzea

“Hogeita hamabigarren xedapen iragankorra. 2025erako zuzeneko zenbatespen bereziari uko egiteko ohiz kanpoko epea.

2024an 300.000 euro baino gehiagoko baina 350.000 euro edo gutxiagoko negozio-zifren zenbateko garbia izan eta nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboek uko egiten ahalko diote, erregelamenduz ezarritako ondorioekin, 2025erako zuzeneko zenbatespen berezia aplikatzeari, 2025eko urtarilean zehar.

**Bigarren artikulua.** Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatzen dira, eta aurrerantzean testu hau izanen dute:

**Bat.** 17.1 artikulua bigarren paragrafoa.

“Edonola ere, Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 87. artikulua aplikatzearen ondorioz erreskaterako eskubidea galdu bada aseguruaren hartzaileak onuradunaren izendapena errebokatzeko ahalmenari uko egiteagatik, aseguru hartzailearen zerga-oinarrian konputatuko da zergaren sortzapen-unean hornidura matematikoak duen balioarekin. Hartzailearen zerga-oinarrian balio bera konputatuko da erreskaterako eskubiderik gabeko aseguruaren kasuan. Paragrafo honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko aldi baterako aseguru-kontratuei, baldin eta heriotza edo balioezintasun kasuetarako prestazioak edo arris-

ku kasuetarako beste berme osagarri batzuk baizik jasotzen ez badituzte, ez eta kontraasegururik gabeko bihurtzeko eta aldi baterako errentei ere”.

Bi. Lehenengo xedapen gehigarria. 2025eko zergaldian izanen du eragina.

LIKIDAZIO-GEHIENEZ (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	LIKIDAZIO-OINARRIAREN GEHIENEZ (eurotan)	APLIKATZEKO (ehuneko)
0,00	0,00	155.511,88	0,16
155.511,88	248,82	155.511,88	0,24
311.023,76	622,04	311.023,76	0,40
622.047,53	1.866,13	622.047,53	0,72
1.244.095,06	6.344,87	1.244.095,06	1,04
2.488.190, 11	19.283,46	2.488.190, 11	1,36
4.976.380,22	53.122,84	4.976.380,22	1,68
9.952.760,45	136.726,02	1.051.024,05	2,00
11.003.784,50	157.746,50	Hortik gora	3,50

**Hirugarren artikulua.** Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen honako manu hauek jarraian azaltzen den testua izanen dute:

Bat. 37.1 artikulua, lehen paragrafoa; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen du eragina

“1. Ez dira zerga-oinarrian sartuko ibilgetu materialeko, ukiezinako edo higiezin-inbertsioetako ondare-elementuen kostu bidezko eskualdatzetik lorturiko errentak, ez eta elementu horien eskualdatzetik lorturikoak halako kasuan zeinean sailkatuak izan baitira eskualdatuak izan baino lehenago salmentarako mantendutako aktibo ez korrante gisa, entitatearen ustiatze ekonomikoaren garapenari atxikiak egon eta, gutxienez ere, urtebetez funtzionamenduan egon badira eskualdaketen aurreko hiru urteetan, baldin aipatu eskualdaketen zenbatekoa berrinbertitzen bada lehen aipatu diren eta halaber atxikita dauden ondare-elementuetako edozeinetan, halako epean zeina hasten baita ondare-elementua entregatu edo eskura jarri den data baino urtebete lehenago eta amaitzen baita ondoko hiru urteen buruan”.

Bi. 64.A).5 artikulua, hirugarren paragrafoa gehitzea; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen du eragina.

“Tributuen arloan eskumena duen departamentuaren titularraren foru agindu bidez zehazten

“Lehenengo xedapen gehigarria: Ondarearen gaineko Zergaren 2025eko eskala.

2025eko zergaldian, honako eskala honetan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio zergaren likidazio-oinarriari”:

ahalko dira kenkariaren oinarriaren parte diren gastuak”.

Hiru. 64.B.1.a) artikulua, ‘Zortzigarrena’ ordinala ezabatzea; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen du eragina.

Lau. 64.B).1.b) artikulua, ‘Lehenengoa’ ordinala aldatzea eta ‘Bosgarrena’ ordinala ezabatzea; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen du eragina

“1. M1 eta N1 kategorietako ibilgailuei dagokien: 35.000 euro”.

Bost. 64.B)2.a) artikulua, lehenengo paragrafoa

“a) Kengarria izanen da erregai alternatiboetarako azpiegitura baten ezarpenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023ko irailaren 13ko 2023/1804 (EB) Erregelamenduan ezarritako definizioaren arabera potentzia arruntekoa edo potentzia handikoa den karga-sistema bat zerbitzuan jartzeko beharrezkoak diren obra zibilean, instalazioetan, kableetan eta konexio-puntuan egindako inbertsioaren zenbatekoaren 100eko 15”.

Sei. 64.B.2.b).3 artikulua; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen du eragina.

“3. Karga-tokiaren potentzia 22 kW baino handiagoa bada, kenkariaren portzentajea 5 puntu handituko da”.

Zazpi. 64.B)2.c).2. artikulua eta ‘Hirugarrena’ ordinala gehitzea; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen du eragina.

“2. Potentzia handiko karga-tokiak, 50 kW-erainokoak: 25.000 euro.

3. Potentzia handiko karga-tokiak, 50 kW baino gehiagokoak: 200.000 euro”.

Zortzi. 64.B)2.d) artikulua, hirugarren paragrafoa gehitzea; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen du eragina.

“Tributuen arloan eskumena duen departamentuaren titularraren foru agindu bidez zehazten ahalko dira kenkariaren oinarriaren parte diren gastuak”.

Bederatzi. 64 bis.3 artikulua, laugarren paragrafoa gehitzea; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen du eragina.

“Tributuen arloan eskumena duen departamentuaren titularraren foru agindu bidez zehazten ahalko dira kenkariaren oinarriaren parte diren gastuak”.

Hamar. 65. artikulua 1.a), 2 eta 3.a); 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen dute eragina

“1.a) Pelikula zinematografikoen eta ikus-entzunezko beste lan batzuen (fikziokoak, animazio-koak edo dokumentalak) espainiar ekoizpenetan egindako inbertsioek, jendearenganatuak izan aurretiko euskarri fisiko bat egitea ahalbidetzen dutenek, ekoizleari eskubidea emanen diote kuota likidoan ehuneko 45eko kenkaria egiteko.

Kenkariaren oinarria, zeina Nafarroako Gobernuan kultura arloan eskumena duen organoaren ebazpen bidez zehaztuko baita, ekoizlearen inbertsioak osatuko du, baldin eta Nafarroako lurraldean eginiko gastuak inbertsioaren ehuneko 40ra iristen badira. Bestela, kenkariaren oinarria izanen da Nafarroako lurraldean eginiko gastuak 0,4rekin zatitzearen emaitza.

Tributuen arloan eskumena duen departamentuaren titularraren foru agindu bidez zehaztuko dira kenkariaren oinarriaren parte izan daitezkeen gastuak, bai eta gastuak Nafarroako lurraldean eginizat hartzeko irizpideak ere.

a) letra honen lehen paragrafoan ezarritako kenkariaren portzentajea ehuneko 50ekoa izanen da kenkariaren oinarriko lehen hiru milioi euroen gainean, honako hauen kasuan:

1. Jatorrizko bertsio bakarra euskarazkoa duten ekoizpenak.

2. Zuzendaritzat bakar-bakarrik emakumezkoak dituzten ekoizpenak.

3. Ekoizpen dokumentalak.

4. Animazio-ekoizpenak.

5. Inolako film luze zinematografikorik edo fikzio-, animazio- edo dokumental-alorrekoa den ikus-entzunezko serierik zuzendu edo kozuzendu ez duen pertsona baten zuzendaritzapeko ekoizpenak.

6. Film laburrak

Apartatu honetan araututako kenkariaren zenbatekoa ez da bost milioi euro baino gehiagokoa izanen.

Koprodukzioen kasuan, apartatu honetan adierazitako zenbatekoak koproditore bakoitzarentzat zehaztuko dira koprodukzio horretan izan duen parte-hartzearen portzentajearen arabera”.

“2. Zinematografiaren eta ikus-entzunezko Arteen Institutuko Enpresa Zinematografikoen eta ikus-entzunezkoen Erregistro Administratiboan erregistratuta egon eta film zinematografikoen edo ikus-entzunezko beste lan batzuen ekoizpen atzerriaraz arduratzen diren ekoiztetxeek, baldin 1.d) apartatuan aipatzen den kultur izaera frogatzen duen ziurtagiria badute, eskubidea izanen dute Nafarroako lurraldean egindako gastuen ehuneko 35eko kenkaria kuota likidoan aplikatzeko. Kenkari hori aplikatu ahal izateko, ekoizpenean gutxienez ere astebeteko filmatzea egin beharko da Nafarroako barnealde edo kanpoaldeetan, salbu eta behar bezala justifikatutako inguruabarrengatik epea laburragoa denean, Nafarroako Foru Komunitatean ezin egiteagatik.

Kenkariaren oinarria osatuko dute Nafarroako lurraldean eginak izan eta ekoizpenarekin zuzeneko zerikusia duten honako gastuek:

1. Sormenaren arloko langileriaren gastuak, baldin eta egoitza fiskala Espainian edo Europako Esparru Ekonomikoaren kidea den estaturen batean badu, pertsona bakoitzeko 50.000 euroko mugarekin.

2. Industria teknikoak eta bestelako hornitzaile, garraio, ostatu eta mantenuak erabiltzetik heldutako gastuak, ekoizpenerako beharrezkoak direnak.

Nafarroaren lurraldean egin diren gastuak zehazteko, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren maiatzaren 7ko 69/2021 Foru Aginduaren 2. artikuluan ezarritakoa hartuko da aintzat.

Kenkari horren zenbatekoa ez da bost milioi euro baino gehiagokoa izanen.

Kenkariaren oinarria ez da izanen ekoizpenaren gutzitako kostuaren ehuneko 80 baino gehiagokoa.

Apartatu honetan ezarritako kenkaria ez da aplikatzekoa izanen zerbitzu-hartzaile den ekoizle-

ak artikulua honetako 1. apartatuan ezartzen den kerkaria aplikatzen duenean”.

“a) 1.000.000 euro baino gutxiagoko ekoizpen-kostua duten proiektu edo film laburretarako, ehuneko 85”.

Hamaika. 82.1.b) artikulua; 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako eragina-rekin

“b) Espainiaren lurraldeko egoiliar ez den entitateak zerga honen izaera bera edo antzekoa duen karga batengatik ordaindutako kopurua, 83.1 eta 2. artikuluan ezarritako errenta-motetakoren bati egozten ahal zaiona, txikiagoa izatea aipatu zergaren arauen arabera egokituko zatekeenaren 100eko 75 baino.

Espainiako lurraldeko egoiliar ez den entitateak ordaindu beharko zukeen sozietateen gaineko zerga ulertuko da kalkulatzeko dela foru lege honetan eta zergaren zehaztapenari buruzko gainerako xedapenetan ezarritako printzipio eta irizpideei jarraituta.

Egozpen hori halaber izanen da prozedurazkoa errenta horiek establezimendu iraunkor baten bidez lortzen direnean, baldin b) letran aurreikusitako inguruabarra gertatzen bada. Azken kasu horretan, ez da aplikatzeko izanen 36. artikuluan aurreikusitako salbuespena.

Letra honen lehenengo paragrafoan aurreikusitako zenbatekoa kalkulatzeko aldera, ez da kontuan hartuko Espainiaren lurraldeko egoiliar ez den entitate baten establezimendu iraunkorra, baldin eta establezimendu horrek entitate horren egoitza den herrialde edo lurraldean ez badu zerga honen izaera berekoa edo antzeko izaerakoa den kargarik, edo hori ordaintzetik salbuespena badago”.

Hamabi. 130.a) artikulua, lehen paragrafoa

“a) Irabazi-asmorik gabeko entitate eta erakundeak, baldin eta legezko ordezkariartzako karguak doakoak badira eta, horretaz gain, kasua bada kontuak ematen bazaizkio dagokion organoari, halako neurrian non entitate horiek ez dituzten harako baldintzak betetzen, zeinak beharrezkoak baitira maiatzaren 24ko 2/2023 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako testu bateginean ezarritako tributu-araubidea baliatzeko; testu bategina, hain zuzen, fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko beste entitate batzuen zerga-araubide bereziko xedapenena eta mezenasgorako zerga-pizgarriena”.

Hamahiru. Hamabosgarren xedapen gehigarria, bigarren paragrafoa, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin

“Egin beharreko konturako sarreraren edo atxikipenaren portzentajea ehuneko 5ekoa izanen da”.

Hamalau. Hamazazpigarren xedapen gehigarria, errubrika:

“Hamazazpigarren xedapen gehigarria. 2025ean hasten diren zergaldietan likidazio-oinarri negatiboko murrizteko mugak”.

Hamabost. Hemeretzigarren xedapen gehigarria, b) letra

“b) Inskribatuta egotea nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako kanal laburren erregistroan, zeina martxoaren 9ko 5/2023 Foru Legearen bidez araututa baitago”.

Hamasei. Hemeretzigarren xedapen gehigarria, c) letra; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen du eragina

“c) Beren negozio-zifren zenbateko garbia ez izatea 200.000 euro baino gehiagokoa”.

Hamazazpi. Hogeita hirugarren xedapen gehigarria, gehitzea; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera eskuratutako ibilgailuetan izanen du eragina

“Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Ibilgailu berrietako inbertsioak, malgutasunezko edo aukera anitzeko finantzaketarako kontratuen bidez finantzatuak.

Lege honetako 64.B).1 artikuluan araututako kerkaria aplikatzeari dagokionez, inbertsioa malgutasunezko edo aukera anitzeko finantzaketarako kontratuen bidez finantzatu izanez gero, kerkaria aplikatzeko baldintza izanen da ibilgailuaren jabetza mantentzearen aukera dela hautatu beharrekoa.

Aukera hori ez hautatzeak esan nahiko du ez direla betetzen kerkaria aplikatzeko baldintzak; zergadunak bere zerga-egoera erregularizatu beharko du 76.3 artikuluan ezartzen denaren arabera.

Malgutasunezko edo aukera anitzeko finantzaketarako kontratutzat hartuko dira erosleari ibilgailuaren jabetza ez mantentzearen aukera eskaintzen diotenak”.

**Laugarren artikulua.** Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruzko xedapenen testu bategina.

Abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruzko xedapenen testu bategineko manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 11. artikuluan, 8. paragrafoa kentzea

Bj. 12. artikuluan, 14. paragrafoa eta azken paragrafoa kentzea

Hiru. 58. bis artikulua gehitzea

“58. bis artikulua. Onura fiskalak erregularizatztea.

Baldin eta salbuespen, kenkari edo pizgarri fiskal bat aplikatu ondoren galdu egiten bada hori aplikatzeko eskubidea, ez direlako horretarako baldintzak bete, kasu horretan zergapekoak tributu-egoera erregularizatu beharko du, ez-betetzearagin duen egitatea gertatu eta bi hilabeteko epean aurkeztuz zertzelada hori azaltzen duen autolikidazio bat.

Autolikidazio hori aurkeztearekin batera, onura fiskala aplikatu izanaren ondorioz ordaindu gabe utzi zen zerga-zatia gehi dagozkion berandutze-interesak ordaindu beharko ditu”.

**Bosgarren artikulua.** Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko xedapenen testu bategina.

Apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko xedapenen testu bategineko manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 11.9 artikulua

“9. Azalera-eskubidearen eta antzeko beste eskubide batzuen zerga-oinarria zehaztean, aplikatzekoak izanen dira 7.2.a) artikuluan gozamen-eskubideari buruz ezarritako arauak”.

Bj. 44. bis artikulua gehitzea

“44. bis artikulua. Onura fiskalak erregularizatztea.

Baldin eta salbuespen, kenkari edo pizgarri fiskal bat aplikatu ondoren galdu egiten bada hori aplikatzeko eskubidea, ez direlako horretarako baldintzak bete, kasu horretan zergapekoak tributu-egoera erregularizatu beharko du, ez-betetzearagin duen egitatea gertatu eta bi hilabeteko epean aurkeztuz zertzelada hori azaltzen duen autolikidazio bat.

Autolikidazio hori aurkeztearekin batera, onura fiskala aplikatu izanaren ondorioz ordaindu gabe utzi zen zerga-zatia gehi dagozkion berandutze-interesak ordaindu beharko ditu”.

**Seigarren artikulua.** Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren manu hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. 52. artikulua, 4. eta 5. apartatuak indargabetzea; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren geroratze- edo zatikatze-eskaeretan izanen du eragina.

Bj. 52. bis artikulua gehitzea; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren geroratze- edo zatikatze-eskaeretan izanen du eragina.

“52. bis artikulua. Ordainketa geroratzea eta zatikatzea.

1. Zergapekoak eskatzen badu, borondatezko epean edo epe exekutiboan dauden zerga-zorrak diru-bilketari buruzko araudian ezartzen den moduan geroratzen edo zatikatzen ahalko dira, baldin eta zergapekoaren egoera ekonomiko-finantzarioak ez badio aldi batez modurik ematen ezarritako epeetan ordaintzeko. Diru-bilketari buruzko araudian hala ezarritako kasuetan, zilegi izanen da egoera ekonomiko-finantzario horren berri erantzukizunpeko adierazpen baten bidez ematea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Geroratzea edo zatikatzea onartzearekin, eskaizalea egunean geratu beharko da bere zerga-betebeharren betetzean, eta egoera horri eutsi beharko dio onarpen horren indarraldi osoan zehar.

Epe exekutiboan eginiko geroratze- edo zatikatze-eskaerak aurkezten ahalko dira harik eta ondusun enbargatuak besterentzeko erabakia zergapekoari jakinarazten zaion unera arte.

2. Ez dira onartuko honako geroratze- edo zatikatze-eskaera hauek:

a) Autolikidazio bidez deklaratu behar diren zorrei buruzkoak, baldin eta autolikidazioa ez bada aurkeztu geroratze- edo zatikatze-eskaera baino lehenago edo horrekin batera.

b) Atxikipenen, konturako diru-sarreraren, zatikatutako ordainketen edo konturako ordainketen ondoriozko zorrei buruzkoak, salbu eta tributuen arloan eskumena duen departamentuaren titularrak ezarritako kasuetan.

c) Zozketetan, tonboletan, apustuetan, ausazko konbinazioetan eta zorizko, postura edo ausazko jokoetan ezarritako tasekin zerikusia duten zorrei buruzkoak.

d) Zenbait garraibideren gaineko zerga berezirik eratorritako zorrei buruzkoak.

e) Balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioaren ondoriozko zorrei buruzkoak, araubide berezi batean, zeina aplikatzen baitzaie Komunitatean establezimendurik ez duten enpresaburu edo profesionalak nori eta enpresaburu edo profesional izan gabe hala ari diren hartzaileei egindako zerbitzuei.

f) VI. tituluan araututako estatu-laguntzak berreskuratzeko erabakiak betetzearen ondoriozko zorrei buruzkoak.

g) Halako zorrei buruzkoak direnak zeinen zenbateko osoa, geroratu edo zatikatzea, txikiagoa baita tributuen arloan eskumena duen departamentuaren titularrak ezarritako zenbatekoa baino.

h) Berme-onarpena edo lekopen osoa nahiz partziala eskatzen den kasuetan, diru-bilketari buruzko araudiak galdatutako dokumentazioarekin batera aurkezten ez direnak.

i) Etendako zorrei edo etete-tramitean dauden zorrei buruzkoak.

j) Errekurtso edo erreklamazio ekonomiko-administratibo batean edo administrazioarekiko auzi-errekurtso batean jaulkitako ebazpen irmo erabat nahiz partzialki ezeseak betearaztearen ondoriozko zorrei buruzkoak, baldin eta alde zuzenetik etetik geratu badira errekurtso edo erreklamazio horiek izapidetu bitartean.

k) Geroratua edo zatikatua izatea eskatzen den zorrari dagokion autolikidazioa aurkeztu denean aurretiaz ikuskapen-prozedura bat hasia egon eta etenda geratu delarik 139.3.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera; baldin eta eskaera, betiere, etendura-kausaren eraginpeko harako kontzeptu eta epeei buruzkoa bada zeinen berri eman baitzaio jurisdikzio eskudunari edo Fiskaltzari.

l) Nahitaez efektu tinbredunak erabiliz ordaindu beharreko zorrei buruzkoak direnak.

m) Hartzekodunen konkurtsoan deklaraturako zordunek aurkeztuak direnak, edo funtzionamenduan dagoen enpresaren salmentarik gabeko likidazioko prozesu berezia, konkurtso-legean ezarritakoa, ireki zaien mikroenpresek aurkeztuak direnak.

3. Geroratzeko edo zatikatze eskaera ez bada onartzen, ez aurkeztutzat hartuko da ondorio guztietarako.

Ez onartzearen erabakiaren aurka, errekurtso edo erreklamazio ekonomiko-administratibo bat aurkezten ahalko da.

4. Zerga-zor bat geroratzeko edo zatikatze eskaera tramitatu bitartean zerga-zor horren beraren etendurarako eskaera aurkezten bada, geroratzeko edo zatikatze-eskaera horretan atzera egin dela ulertuko da, eta izapide gehiagorik gabe artxibatuko da.

Onartutako geroratzeko edo zatikatze bitartean dagoen bitartean etete-eskera aurkezteak ez du eragiten ordainkizun dirauten epeen nahitaezkotasunean; hortaz, bete beharrekoak izanen dira mugaeguneratzen direnean, eskaera hori onartzen ez den bitartean. Etetea onartzeak esan nahiko du geroratzeko edo zatikatze indargabetu egiten dela, eta horren eragina hedatzen da etetearen egunean ordainkizun dauden zenbatekoetara.

5. Geroratutako edo zatikatutako zorrak berme bat izan beharko dute, salbu eta tributuen arloan eskumena duen departamentuaren titularrak ezarritako kasuetan.

Bermea abal solidario bat izanen da, kredituentitate batek edo elkar bermatzeko sozietate batek emana, edo kausio-aseguruaren ziurtagiria. Aurkeztutako dokumentazioan justifikatzen bada ezin dela abal edo ziurtagiri hori lortu, edo hori aurkezteak jarduera ekonomikoaren bideragarritasuna larriki kaltetuko duela, Administrazioak zilegi izanen du tributuen arloan eskumena duen departamentuaren titularrak ezarritako beste berme batzuk onartzea”.

Hiru. 67.1 artikulua, g) letra gehitzea; foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera egiten diren arau-hausteetan izanen du eragina

“g) Zerga bereziei buruzko araudian eskatutako zirkulazio dokumentuak behar bezala jaulkitzeari, jasotzeari edo erabiltzeari dagozkion betebeharrak ez betetzea, salbu eta aipatu zergak arautzen dituen legean tipifikatutako arau-hauste bat bada, ezen, kasu horretan, azken lege horrek ezarritako zehapena aplikatuko da”.

Lau. 71.1 artikulua, g) letra gehitzea; foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera egiten diren arau-hausteetan izanen du eragina

“g) 67.1.g) artikulua aipaturako ez-betetzeak egiaztatze- edo ikertze-epean jaulkitako, jasotako edo erabilitako zirkulazio dokumentuen ehuneko 20 baino gehiago ukitzen badu, 72.8 bis artikuluan ezarritako zehapenaren zenbatekoa ehuneko 100 handituko da”.

Bost. 72. artikulua, 8 bis apartatua gehitzea; foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera egiten diren arau-hausteetarako izanen du eragina

“8 bis. 67.1.g) artikuluan jasotako arau-haustearen zehapena, oker jaulkitako, jasotako edo erabilitako dokumentu bakoitzeko, 300 euroko diru-zigor finko bat izanen da”.

Sei. 116.4.5. artikulua, eta 6. apartatua gehitzea; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren geroratze- edo zatikatze-eskaeretan izanen du eragina.

“4. Borondatezko epean aurkeztuz gero geroratu, zatikatu, gauzatan ordaindu edo konpentsatzeko eskaera, espediente horiek izapidetzen diren bitartean ezin izanen da epe exekutiboa hasi.

Aipatu eskaeren ebazpena jakinaraztearekin, bertan behera geratuko da aurreko paragrafoan adierazitako eragozpena, eta, beraz, 3. apartatuan adierazitakoari heldu beharko zaio zorra epe exekutiboan ote dagoen zehazteko.

Borondatezko epean eskatutako geroratzea edo zatikatzea onartzeko ebazpenak ezein kasutan ez du ekarriko aipatu epea luzatzea edo handitzea, baizik eta, besterik gabe, zorraren ordaintzea epeetako bakoitza amaitzen den arte geroratzea. Ondorioz, geroratzea edo zatikatzea indarrean egon bitartean eskatzen bada horrek barne hartzen dituen zorrak etetea, ulertuko da eskaera hori epe exekutiboan egin dela.

Geroratzeko, zatikatze, gauzatan ordaintzeko edo konpentsatzeko eskaera, borondatezko epean egina, ukatzen duen ebazpenak zor-ordainketarako epe bat ezarriko da, zeinetan, baita zorra epe exekutiboan egonda ere, ez baitira epe horri dagozkion errekarquak eskatuko. Edonola ere, ordaintze-momentura arte aplikatzekoak diren berandutze-interesak indarrean egonen dira.

Epe exekutiboan geroratzeko, zatikatze, gauzatan ordaintzeko edo konpentsatzeko eskaera bat aurkezteak ez du etete-ondoriorik ekarriko, eta diru-bilketako organoak hasiera edo jarraipena eman beharko dio premiamendu-prozedurari. Halere, enbargatutako ondasunak besterentzeko jarduketak eten egin beharko dira harik eta eskaera ukatzen duen ebazpena jakinarazten den arte.

5. Zehapen baten aurka errekurtsu edo erreklamazio bat behar den moduan eta epean aurkeztuz gero, epe exekutiboa ezin izanen da hasi harik eta zehapena administrazio bidean irmo bilakatu eta borondatez ordaintzeko epea bukatu arte.

6. Konkurtsu-deklarazioak ez du etenik eraginen konkurtsuari buruzko legeriaren arabera konkurtsu-kalifikazioa duten zorrak ordaintzeko borondatezko epean, horrek ukatu gabe epe exekutiboko jarduketak araudi horretan xedatzen denaren arabera izatea”.

Zazpi. 118. artikulua, 9. apartatua gehitzea; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren geroratze- edo zatikatze-eskaeretan izanen du eragina.

“9. Zerga-zorrak geroratzearen edo zatikatzearen kasuetan, zergapekoak zilegi izanen du zerga-administrazioari eskatzea kautelazko neurriak har ditzala 52. bis.5 artikuluan aipatzen diren beharrezko bermeen orde.

Kautelazko neurri horiek 3. apartatuko a) eta b) letretan aipatutakoak izan daitezke. Zilegi izanen da hirugarrenen titulartasuneko kredituen, ondasunen edo eskubideen gainean hartzea neurri horiek, baldin eta zordunaren eskaerarekin batera hirugarren horren eskaintza fede-emailea aurkezten bada.

Ondasun edo eskubide horiek erregistro publiko batean inskribatzeko modukoak direnean, beharrezkoa izanen da, geroratzea edo zatikatzea onartzeko, kasuko erregistroan aurretik inskribatzea.

Kasu horietan ez da aplikatzekoa izanen 5. apartatuan xedatutakoa.

Geroratzea edo zatikatzea ebazten den erabakian berean, zerga administrazioak eskatzen denari baietza edo ezetza emanen dio, kontuan hartuz, besteak beste, zordunaren egoera ekonomiko eta finantzarioa, edo kautelazko neurriaren xede izan beharko lukeen ondasun edo eskubidearen izaera. Nolanahi ere, erabakiak arrazoitua beharko du izan.

Ondasun edo eskubide horien enbargatzea 121. artikulutik 124.era bitartekoek xedatzen dutenarekin bat egiten ahal denean, ezezkoa emanen zaio eskaerari.

Beharrezko bermeen ordeko kautelazko neurriak hartzeagatiko kostuak zordunaren kargura izanen dira. Kontabilitatean sartzean ordaindu gabe dagoen lehen kuotarekin batera exijituko dira kostu horiek.

Geroratzea edo zatikatzea ez betetzearen kasuan, ordainketarik ezaren kasuetarako Diru-bilketaren Erregelamenduan orokortasunez xedatzen dena aplikatuko da. Bermea ordainarazi aurretik, hartutako kautelazko neurria behin betikoa bihurtu beharko da premiamendu prozeduran”.

Zortzi. 143.7 artikulua

“7. Eteteko eskaera borondatezko epean aurkeztu izanez gero, ukatzeko erabakiaren jakinarazpenarekin batera borondatezko epe horren zenbaketa berriz hasiko da, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera. Aipatu epea amaitzean ez bada ordainketa egin, epe exekutiboa hasiko da.

Zorra epe exekutiboan egonda, etete-eskaera aurkezten bada etendura automatikoa lortzeko beharrezkoak direnez bestelako bermeekin, edo berme-lekapen erabatekoarekin nahiz partzialarekin, edo akats aritmetiko, material edo egitatezkoan oinarrituta, horrek ez du eragotziko Administrazioaren jarduketek aurrera jarraitzea, hargatik eragotzi gabe eskaeraren dataren ondoren egin direnak deuseztatuak izatea, baldin etetea azken batean onartu egiten bada”.

**Bederatzi.** Honako xedapen gehigarri hauek indargabetzea: hamahirugarrena, hamazazpigarrena, hogeigarrena, hogeita bigarrena, hogeita bosgarrena, hogeita seigarrena, hogeita bederatzigarrena, hogeita hamaikagarrena, hogeita hamabigarrena, hogeita hamabosgarrena, hogeita hamazazpigarrena, hogeita hemezortzigarrena eta berrogeigarrena. Indargabetzeak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren geroratze- edo zatikatze-eskaeretan izanen du eragina.

**Hamar.** Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria, B).3, lehenengo paragrafoa

“3. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan araututako prozedurak:”

**Hamaika.** Hirugarren eta laugarren xedapen iragankorrak, indargabetzea, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren geroratze edo zatikatze eskaeretan izanen du eragina.

**Hamabi.** Zazpigarren xedapen iragankorra gehitzea, eragina 2025. urtean izanen duena.

Zazpigarren xedapen iragankorra. 2025ean egiten diren geroratze- edo zatikatze-eskaerei aplikatzekoak diren neurri berariazkoak.

“2025. urtean zehar egiten diren geroratze- edo zatikatze-eskaerei, baldin eta horien gaineko diru-bilketa kudeatzeko lana tributuen arloan eskumena duen departamentuari badagokio, honako xedapen berariazko hauek aplikatuko zaizkie:

1. Geroratu edo zatikatu beharreko zenbatekoa ezin izanen da izan 100 euro baino txikiagoa pertsona fisikoen kasuan, eta 300 euro baino txikiagoa pertsona juridikoen edo nortasun juridikorik gabeko entitateen kasuan.

2. Borondatezko epean dauden zorren kasuan, geroratze- edo zatikatze-eskaera automatikoki ezetsiko da baldin eta lau geroratze edo zatikatze edo gehiago baldin badaude kitatu gabe, salbu geroratzea eskatutako zorrak bermatu egiten badira, edo aurrekoak bermaturik badaude, soil-soilik Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamenduaren (uztailaren 2ko 177/2001 Foru

Dekretuaren bidez onetsia) 50.1 eta 50.2.a) artikuluetan adierazitako berme motekin.

3. Berme-lekapena:

a) Diru-bilketaren Erregelamenduan adierazitako bermeak ez dira eskatuko honako baldintza hauek betetzen dituzten geroratze edo zatikatzeetan:

1) Geroratu edo zatikatu nahi den zorren gutzitiko zenbatekoa ez izatea 6.000 euro baino gehiagokoa.

2) Epea ez dadila izan hamabi hilabete baino gehiagokoa..

b) Era berean, Diru-bilketaren Erregelamenduan adierazitako bermeak ez dira eskatuko honako baldintza hauek betetzen dituzten geroratze edo zatikatzeetan:

1) Geroratu edo zatikatu nahi den zorren gutzitiko zenbatekoa ez izatea 200.000 euro baino gehiagokoa.

2) Epea ez dadila izan hogeita lau hilabete baino gehiagokoa.

3) Eskabidea aurkeztearekin batera edo horren aurretik, eskatzaileak ordain dezala geroratzea eskatzen duen zorren ehuneko 30.

4. 52 bis.2.b) artikuluan aipatzen diren atxikipen, konturako diru-sartze, ordainketa zatikatu edo konturako ordainketengatiko zorrak geroratzen edo zatikatzen ahalko dira 3.a) apartatuan ezarritako baldintzei jarraikiz.

5. Epe exekutiboan geroratu edo zatikatu beharreko zorren artean aurrez ere epe horretan geroratutako edo zatikatutako zorrak badaude, eta horien geroratzea edo zatikatzea kitatu egin bada, betiere exijituko da zor horien ehuneko 30 ordaintzea kontura, eskaera berria egitearekin batera edo hori baino lehen.

Zenbateko horiek eskatuko dira, era berean, bermea eratzea exijitzeko modukoak diren geroratze edo zatikatzeetan.

Geroratze- edo zatikatze-eskaeran jasotako gainerako zorretarako, halakorik egonez gero, aurreko lehenengo xedapenetik laugarrenera bitartekoetan ezarritakoa aplikatuko da”.

**Zazpigarren artikulua.** Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-araubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zergapizgarrien testu bategina.

Ondotik ematen den bezala geldituko dira idatzirik Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-araubide bereziko xedape-



nen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien Testu Bategineko ondoko manuak (testu bategin hori onetsi zen maiatzaren 24ko 2/2023 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez):

Bat. 19.2. artikulua; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen du eragina.

“2. Gainera, ikerketa-erakunde publikoek edo teknologia-zentroek gauzatzen dituzten jardueren antzekoak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko entitateei diru dohaintza eginez gero, kuota osoan dohaintzaren zenbatekoaren ehuneko 40 adinako kenkaria aplikatzeko eskubidea izanen da.

Kuotaren kenkaria sozietateen gaineko zergaren araudian ezarritakoarekin bat aplikatuko da, eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen 67.4 artikuluan ezarritako mugaren ondorioetarako zenbatuko da”.

Bi. 30.1 artikulua; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina

“1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek eskubidea izanen dute 24. artikuluan aipatutako kultura mezenasgoaren modalitatei ematen zaien balioaren lehen 250 euroen ehuneko 80 kentzeko zergaren kuotatik. 250 euro baino gehiagoko zenbatekoek ehuneko 40ko kenkaria aplikatzeko eskubidea izanen dute. 250 euroen muga hori zergadun bakoitzeko eta zergaldi bakoitzeko aplikatuko da”.

Hiru. 43.1 artikulua; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek eskubidea izanen dute mezenasgo mota bakoitzeko modalitatei ematen zaien balioaren lehen 250 euroen ehuneko 80 kentzeko zergaren kuotatik. 250 euro baino gehiagoko zenbatekoek ehuneko 40ko kenkarirako eskubidea izanen dute. 250 euroko muga hori zergadun bakoitzeko eta zergaldi bakoitzeko aplikatuko da”.

**Zortzigarren artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren Erakunde Autonomoetako Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Foru Legea.

2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren Erakunde Autonomoetako Tasa eta Prezio Publikoei buruzko otsailaren 11ko 2/2021 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 23. bis artikulua

“23. bis artikulua. Hautaprosesuetako dokumentazioaren kopiak formatu elektronikoan eta fisikoan bidaltzeagatiko tasa.

#### 1. Zerga-egitatea

Tasaren zerga-egitatea da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek beren baitan izapidetutako edozein hautaprosesuren administrazio-espeditatea osatzen duten dokumentu guztien kopiak bidaltzea, formatu elektronikoan nahiz fisikoan.

Ondorio horietarako, kopia elektronikoz hartuko da aurreko paragrafoan aipatutako dokumentazioa formatu fisikotik elektronikora bihurtzea eta ondoren subjektu pasiboari bide elektronikoz bidaltzea.

#### 2. Subjektu pasiboak

Tasaren subjektu pasibo dira zerga-egitate diren kopia elektroniko edo fisikoak bidaltzeko eskatzen duten pertsona fisikoak.

#### 3. Sortzapena

Kopia elektronikoak edo fisikoak bidaltzeko eskaera aurkezten den unean sortuko da tasa, eta bidalketaren aurretik ordainduko da.

#### 4. Tarifak

Tasa 0,06 eurokoa izanen da, kopiatutako eta bidalitako orrialde bakoitzeko”.

Bi. 31. bis artikulua gehitzea

“31. bis artikulua. Azterketa-eskubideen tasa, udaltzain laguntzaileak gaitzeko ikastaroan sartzeko hautaproseduretan.

#### 1. Zerga-egitatea

Tasaren zerga-egitatea honako hau da: Administrazioak zerbitzuak ematea, udaltzain laguntzaileak gaitzeko ikastaroan sartzeko hautaproseduretan parte hartzeko beharrezkoak direnak. Ikastaro hori Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan egiten da.

#### 2. Subjektu pasiboak

Tasaren subjektu pasibo dira tasaren zerga-egitatea osatzen duen zerbitzu-ematea eskatzen duten pertsona fisikoak.

#### 3. Sortzapena

Tasa sortuko da hautaproseduretan izena emateko eskaera aurkezten den unean.

#### 4. Tarifa

Azterketa-eskubiderako eskatuko den tasa 46,00 eurokoa izanen da.

## 5. Salbuespenak

Hautaprobarako deialdia argitaratu baino hilabete bat lehenagotik gutxienez langabe gisa inskribaturik dauden pertsonak”.

Hiru. 41.4 artikulua, 1. eta 2. tarifak

## “1. Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduak:

	Euroak	
A)	Barneratze zerbitzua duten zentroak	
	Eraketarako eta funtzionamendurako baimena izapidetzea	295,00
	Hasierako egitura eta/edo araubidea aldatzeko edo baliozkotzeko baimena izapidetzea	195,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	195,00
B)	Barneratzerik gabeko zentroak	
	Eraketarako eta funtzionamendurako baimena izapidetzea	150,00
	Hasierako egitura eta/edo araubidearen aldaketa edo baliozkotzea izapidetzea	100,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	100,00
C)	Osasun arloko garraioa	
	Anbulantzien osasun-ziurtagiria izapidetzea	100,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	100,00
D)	Osasun-zentro eta -establezimenduen osasun arloko publizitatea baimentzea	55,00
E)	Prestakuntza-zentroak	
	Zentroendako baimena, desfibriladore ikastaroak ematekoa	35,00

## 2. Farmazia-establezimenduak:

		Euroak
A)	Farmaziak	
	instalatzeko baimena	340,00
	Farmazia tokiz aldatzea edo lokalak aldatzea	225,00
	Titularra aldatzeko baimena	115,00
	Jarduerak jardunbide egokiekin bat egiten direla frogatzea	340,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	115,00
B)	Pertsona eta/edo animalientako botikak banatzeko biltegiak	
	Instalatzeko baimena	340,00
	Biltegia tokiz aldatzea edo lokalak aldatzea	285,00
	Titularra aldatzeko baimena	115,00
	Botiken banaketa ikuskatzea eta jardunbide egokiekin bat egiten dela egiaztatzea. Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko.	675,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	115,00

C)	Farmazia-zerbitzuak	
	Instalatzeko baimena	340,00
	Farmazia-zerbitzua tokiz aldatzea edo lokalak aldatzea	225,00
	Titularra aldatzeko baimena	115,00
	Jarduerak jardunbide egokiekin bat egiten direla frogatzea	675,00
	Farmazia Industria ikuskatzea eta bertan jarduerak farmakozaintzaren jardunbide egokien arabera egiten direla egiaztatzea. Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko.	675,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	115,00
D)	Botika-kutzak eta botika-biltegiak	
	Instalatzeko baimena	190,00
	Aldatzeko baimena	115,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	115,00
E)	Pertsona edo/eta animalientako medikamentuak eta haien printzipio aktiboak prestatzen dituen industria	
	Ikuskapena, eta fabrikazio onerako arauak betetzen diren egiaztatzea. Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko	675,00
	Publizitatea baimentzea	190,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	115,00
	Botikak eta beste produktu batzuk baimendu ondoko azterlanak. Baimena ematea	900,00

F)	Kosmetikoak	
	Fabrikazio onerako arauak betearazteko ikuskapena eta egiaztapena Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko	675,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	115,00
G)	Osasun produktuak	
	Optikak eta farmazia bulegoetako optika atalak baimentzea	340,00
	Audio-protesiaren zentroak baimentzea	340,00
	Ortopediak baimentzea	340,00
	Hortz protesiaren laborategia baimentzea	340,00
	Osasun produktuen publizitatea baimentzea	190,00
	Lehenagoko ataletan sartu ez diren neurrirako osasun produktuak fabrikatzeko funtzionamendurako lizentzia:	
	-Ematea	340,00
	-Baliozkotzea	100,00
	-Aldatzea	100,00
	Jarduera jakinarazi behar duten establezimenduen jakinarazpenaren baldintzak aldatzea	115,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	115,00
	Osasun produktuen establezimenduen baimena baliozkotzea eta/edo aldatzea	225,00
	Jarduera jakinarazi behar duten establezimenduen jakinarazpena tramitatzea	225,00

H)	Laborategiak, botikak kontrolatu eta/edo garatzeko zentroak	
	Laborategiak ikuskatzea eta jardunbide egokiekin bat jarduten dutela egiaztatzea. Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko	675,00
	Ikuskatzea eta jardunbide kliniko egokiak egiaztatzea Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko	675,00
	Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua	115,00
I)	Bestelako jarduketak	
	Farmaziako zentro eta produktuen gaineko txostenak ematea, interesdunak eskaturik	190,00
	Jardunbide egokiak betetzen direla frogatzen dituzten ziurtagiriak, naziokoak zein nazioartekoak, ematea (NCF, BPL, BPC, BPD eta haien pareko beste batzuk)	150,00 (lehen ziurtagiria) 15,00 (eskaera berean egindako bigarren eta/edo ondorengo ziurtagiriagatik)“

Lau. 41.4 artikulua, 5. tarifa

## "5. Albaitaritza-zerbitzuak.

KODEA	IZENA	TARIFA
AZ01	Animalien osasun kontrola, ausikia gertatzen denean	25,00€
AZ02	Txakurrak harrapatu eta biltzeko zerbitzuak (prezioak txakurreko)	60,00€
AZ02.1	Txakurrak uztea Nafarroako Gobernuak duen Animaliak Babesteko Zentroan, Etxaurin (animalia bakoitzeko)	15,00€
AZ02.2	Jabe berriek adopzioz eskuratutako txakurrak	15,00€
02.3	Egonaldi gastuak Nafarroako Gobernuko Animaliak Babesteko Zentroan (Etxaurin)	20,00€ (1)
AZ03	Elikagaiak esportatzeko ziurtagiri ofiziala	20,00€
AZ03.1	Osasun ziurtapenak, elikagaiak esportatzekoak	20,00€
AZ04	Zezen-ikuskitzetako albaitari-jarduketak. (prezioak, jarduten duen albaitari bakoitzeko)	250,00€
AZ05	Hirugarren herrialdeetara esportatzeko zerrendetan sartua izateko eskaerak direla-eta egin beharreko kontrolengatik, azaroaren 28ko 993/2014 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.	50,00€
AZ06	Hirugarren herrialdeetara esportatzeko aldebiko akordioetan eskatzen ahal diren programak gauzatzeko esku-hartze sistematikoa dela-eta egin beharreko kontrolak, EBko betekizunekiko osagarriak direnak.	20,00€/egun"
(1) 20,00 euro, gutxienez. 5. egunetik aurrera, 3,00 euro gehituko dira egonaldi-egun bakoitzeko".		

Bost. 43.4 artikulua, 4. tarifa

"4. TARIFA	Gidarien prestakuntza eta azterketarako zentroak	
	1. Zentroa irekitzea. Gidari-eskola partikularrak, gidarien prestakuntzako beste zentro batzuk edo gidarien azterketarako zentroyen irekiera eta funtzionamendurako edo horiek inskribatzeko baimena ematea	442,00
	2. Elementu pertsonalak edo materialak aldatzea (ikuskapenarekin nahiz ikuskapenik gabe) Gidari-eskola partikularren edo haien atal batzuen, beste prestakuntza-zentro batzuen edo gidari-azterketarako zentroyen funtzionamendurako baimena aldatzea, haien elementu pertsonalak edo materialak aldatzeagatik: ikuskapenarekin nahiz ikuskapenik gabe	45,00
	3. Gidari-eskola partikularretako zuzendari eta irakasleen gaitasun ziurtagiriak eta beste titulu batzuk jaulkitzea, bai eta horien kopiak ere.	100,00
	4. Plakak elektronikoki trokelatzea edo erregistro liburuak zigilatzea.	9,00
	5. Autoeskolaren eta osasun-azterketarako zentroaren ikuskapena, erregelamenduzko aginduaren ondorioz egina (gehienez ere urtean bi)	80,00
	6. Bide-hezkuntzako irakasleendako jardute-baimenak	10,50
	7. Salgai arriskutsuen garraiorako ibilgailuetako gidarien eta prestatzaileen prestakuntza-ikastaroak onartzea	10,50
	8. Mota guztietako idatz-oharrak espedienteetan, datu-ematea, ziurtapenak, erkaketak, kopia kautotuak (kopia eman beharrik ez dagoenean), agiriak xehakatzea eta mota orotako plakak edo liburuak zigilatzea	9,00
9. Azterketa-eskubideak. Parte hartzea bide-hezkuntzako irakasleendako gaitasun ziurtagiria lortzeko ikastaroan eta gidari-eskoletako zuzendaria izateko gaitasun ziurtagiria lortzeko hautaprobak	46,00"	



Sei. 48.4 artikulua, 1., 2., 3., 4., 5. eta 6. tarifak;  
eta 7. tarifa gehitzea

1. TARIFA	Zezenketak, burtziketak, zezenketa mistoak eta pikatzaileekiko zekorketak baimentzea (ikuskizun bakoitzeko)	72,14
2. TARIFA	Pikatzaileerik gabeko zekorketak baimentzea (ikuskizun bakoitzeko)	42,44
3. TARIFA	Zezenketa-ikuskizunetarako beste baimen batzuk (ikuskizun bakoitzeko)	27,58
4. TARIFA	Eremu publikoan jendaurreko ikuskizunak eta josteta-jarduerak egiteko baimenak (ikuskizun edo jarduera bakoitzeko)	72,14
5. TARIFA	Ikuskizun publiko eta josteta-jardueren arloko enpresen erregistroan inskribatzea	72,14
6. TARIFA	Zezenketa arloko profesionalen erregistroan inskribatzea	20,15
7. TARIFA	Deialdia, jendaurreko ikuskizunetarako eta josteta-jardueretarako sarbidea kontrolatzeko langileen gaikuntza lortzeko beharrezko gaitasun-azterketak egitekoa	15,60"

Zazpi. 51.4. artikulua, 1. tarifa

		Euroak
"1. TARIFA	Produktu fitosanitarioen erabiltzaile profesionalen erregistroetan inskribatzea eta haien txartelak jaulkitzea:	
	1. Honako erregistro hauetan inskribatzea: -Pestizida-establezimenduen eta -zerbitzuen erregistro ofiziala -Babes fitosanitariorako baliabideen ekoizle eta operadoreen erregistro ofiziala (ROPO). Horniketen eta tratamenduen sektoreak - Landare-operadore profesionalen erregistroa (ROPVEG) - Laborantzako ongarrien eta substratuen fabrikatzaileen erregistro ofiziala - Araztegi-lohiak nekazaritzarako ustiatzen dituzten entitateen erregistroa	24,00
	2. Erregistro hauetan inskripzioa berritzeagatik eta/edo titulartasuna edo beste elementuren bat aldatzeagatik: - Pestiziden establezimenduen eta zerbitzuen erregistro ofiziala - Babes fitosanitariorako baliabideen ekoizle eta operadoreen erregistro ofiziala (ROPO) Horniketen eta tratamenduen sektoreak - Landare-operadore profesionalen erregistroa (ROPVEG) - Araztegi-lohiak nekazaritzarako ustiatzen dituzten entitateen erregistroa	14,00
	3. Babes fitosanitariorako baliabideen ekoizle eta operadoreen erregistro ofizialaren (ROPO) aholkularitza sektorean inskribatzea	12,00
	4. Produktu fitosanitarioen erabiltzaile izatearen txartelak jaulkitzea, berritzea edo kopiak eskatzea eta Babes fitosanitariorako baliabideen ekoizle eta operadoreen erregistro ofizialean inskribatzea eta inskripzioa berritzea (erabilera profesionalaren sektorea)	10,00
5. Babes Baliabideen Ekoizle eta Operadoreen Erregistro Ofizialean inskripzioa berritzea (aholkularitza sektorea)	10,00"	

Zortzi. 53.4 artikulua, 9.3 tarifa; 11.6 tarifaren indargabetzea

"9. tarifa	3. Behi-aziendarendako bereizgarri bakoitzeko (belarritakoak)	1,00"
------------	---	-------

Bederatzi. 54.4 artikulua, 1., 2., 3. eta 4. tarifak

		Euroak
"1. tarifa	LANDARE-BIOLOGIAKO LABORATEGIA	
	1. Erneketa, 400 hazirena gehienez, papera tartean/gainean	10,00
	2. Ernaketa, 400 hazirena gehienez, beste substratu batzuetan	15,00
	3. Artoaren eta ekilorearen purutasuna	8,00
	4. Beste espezie batzuen purutasuna	5,00
	5. Beste espezie batzuetako hazien kopurua	5,00
	6. Nematodoen erauzketa eta identifikazio morfologikoa	30,00
	7. Onddoen bakartzea eta identifikazio morfologikoa	30,00
	8. Teknika mikrobiologikoen bitartezko bakterio-bakartzea eta -identifikazioa	40,00
	9. ELISA	18,00
	10. Kendu da	
	11. PCRa	40,00
12. Artropodoen eta beste izurri eta bektore batzuen identifikazio morfologikoa	30,00	

2. tarifa	ABERE-LABORATEGIA	
	1. ELISA	18,00
	2. Konplementuaren finkapena	50,00
	3. Agar geleko immunodifusioa	20,00
	4. Bruzelosirako aglutinazioa (Bengalako arrosa)	4,00
	5. Salmonella spp bakartzea eta identifikatzea	30,00
	6. Salmonella spp serotipatzea	45,00
	7. Mycobacterium spp bakartzea eta identifikatzea	100,00
	8. Beste bakterio batzuk bakartzea eta identifikatzea/kuantifikatzea	50,00
	9. PCRa	40,00
10. Artropodoen identifikazio morfoloikoa / zenbaketa	30,00	

1.9, 2.1, 2.2 eta 2.9 tarifetan, deskontu hauek aplikatuko dira, guztira eskatu diren determinazio analitiko bereko analisisen kopuruaren arabera:

- a) 11 eta 25 arteko kopurua: ehuneko 25.
- b) 26 eta 50 arteko kopurua: ehuneko 50.
- c) 51 eta 100 arteko kopurua: ehuneko 60.
- d) 101 eta 500 arteko kopurua: ehuneko 70.
- e) 500 baino gehiago: ehuneko 75.

3. tarifa	Enologiako laborategia analisi sinpleak	Euroak
1.1.-Butanola	Gasen kromatografia	7,14
1.Bis 2- Butanola	Gasen kromatografia	7,14
2.Propanola	Gasen kromatografia	7,14
3.Azetaldehidoa	Gasen kromatografia	7,14
4.Etilo azetatoa	Gasen kromatografia	7,14
5.	Kendu da	
6.Azidotasun finkoa	Kalkulua	2,04
7. Azidotasun osoa	Bolumetria - MANB- Potentziometria	2,35
8. Azidotasun lurrunkorra	Bolumetria - MANB	2,35
9. Azido azetikoak	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa.	2,35
10. Azido askorbikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa.	6,12
11. Azido bentzoikoa	Likidoen kromatografia, handikoa. bereizmen	9,89
12. Azido zitrikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa.	6,12
13. Azido glukonikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa.	6,12
14. Azido laktikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa.	6,12
15. Azido malikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa.	5,10
15.bis	Kendu da	
16. Azido salizilikoa	Likidoen kromatografia, handikoa. bereizmen	9,89
17. Azido sorbikoa	Likidoen kromatografia, handikoa. bereizmen	9,89

18. Azido tartarikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa.	6,12
19. Errautsen alkalinitasuna	Bolumetria.	2,94
20. Anhidrido sulfuroso librea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea. Balorazioa.	2,33
21. Anhidrido sulfurosoa, guztira	Espektrofotometria ikusgai ultramorea. Balorazioa.	2,33
22. Antozianoak	Espektrofotometria ikusgai ultramorea.	3,06
23.	Kendu da	
24	Kendu da	
25. Guztizko azukreak (G+F+SAK)	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	2,33
25.bis Brettanomyces bruxellensis	PCRa denbora errealean (1-4 lagin)	61,20
	PCRa denbora errealean (4 lagin baino gehiago)	45,90
26.	Kendu da	
27. Kadmioa	Atomo-xurgapeneko espektrofotometria-grafito labea	24,48
28. Kaltzioa	Sugardun atomo-xurgapeneko espektrofotometria	11,22
29. Kaseina	ELISA (1-3 lagin)	51,00
	ELISA (4-10 lagin)	40,80
	ELISA (10 lagin baino gehiago)	30,60
30. Katekinak	Espektrofotometria ikusgai ultramorea.	3,06
31. Errautsak	Grabimetria.	3,06
32. Kloruroak	Potentziometria.	2,55

33. Kobrea	Sugardun atomo-xurgapeneko espektrofotometria.	11,22
34. Koloratzaile sintetikoak	Erauzketa-Finkapena.	6,43
35. Konduktibitatea	Konduktimetria.	2,33
35.bis Eduki kalorikoa	Kalkulua	Lehorrak 7,94
		Gozoak 9,87
36. Cielab a koordenatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea.	4,08
37. Cielab b koordenatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea.	4,08
38. Cielab l koordenatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea.	4,08
39. Cielab c koordenatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea.	4,08
40. Cielab h koordenatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea.	4,08
41.	Kendu da	
42. Akats organoleptikoak	Behaketa	2,35
43. Dentsitate optikoa, 280 nm.	Espektrofotometria ikusgai ultramorea.	2,04
44. Dentsitate optikoa, 420 nm	Espektrofotometria ikusgai ultramorea.	2,04
45. Dentsitate optikoa, 520 nm	Espektrofotometria ikusgai ultramorea.	2,04
46. Dentsitate optikoa, 620 nm	Espektrofotometria ikusgai ultramorea.	2,04

47. Dentsitate erlatiboa 20 °C-an	Dentsimetria elektronikoa.	1,53
48.	Kendu da	
49. Egonkortasun proteikoa	Nefelometria.	5,10
50. Egonkortasun tartarikoa	Prezipitazioa	5,10
51. Etanola	Gasen kromatografia	7,14
52. Aterakin ez-erreduzitzailea	MANB kalkulua	5,90
53. Aterakin gutxitua	MANB kalkulua	5,90
54. Aterakin lehorra, guztira	Kalkulua edo lurrunketa.	3,57
55. Ferrozianuroa disoluzioan	Prezipitazioa.	6,43
56. Ferrozianuroa esekiduran	Prezipitazioa.	6,43
57. Fluoruroak	Elektrodo hautakorrak.	2,89
58. Glizerina	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa.	6,12
59. Glukosa + fruktosa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa.	2,33
60. Alkohol-gradua pisuan	Destilazioa.	3,98
61. Eskuratutako alk. gradu bolumetrikoa	Espektrofotometria infragorri hurbila.	2,04
	MANB-Dentsimetria elektronikoa.	3,98



62. Alkohol gradua potentzian	MANB kalkulua	4,37
63. Alkohol gradua, guztira	MANB kalkulua.	4,37
64. Beaume gradua.	MANB kalkulua.	1,84
65. Birx gradua (sakarosaren %)	MANB kalkulua.	1,84
66. Gradu probablea	Errefraktometria-MANB	1,84
67. Burdina	Sugardun atomo-xurgapeneko espektrofotometria.	11,22
68. Histamina	ELISA (1-3 lagin)	40,80
	ELISA (4-10 lagin)	30,60
69. Kolmatazio indizea	Mintz bidez iragaztea.	6,43
70. Folin-Ciocalteu indizea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea.	3,06
71.	Kendu da	
72.	Kendu da	
73. Koloratzailearen intentsitatea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea.	2,04
74. Isoamilikoak	Gasen kromatografia.	7,14
75. Isobutanola	Gasen kromatografia.	7,14
76. Gardentasuna	Behaketa	2,30
77. Lisozima	ELISA (1-3 lagin)	51,00
	ELISA (4-10 lagin)	40,80
	ELISA (10 lagin baino gehiago)	30,60

78. Nitrogeno amoniakala	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa.	6,12
79. Nitrogeno $\alpha$ -aminikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa.	6,12
80. Nitrogeno asimilaerra	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa.	12,24
81. Magnesioa	Sugardun atomo-xurgapeneko espektrofotometria.	11,22
82. Masa bolumikoa 20 °C-an	MANB-Dentsimetria elektronikoa.	1,53
	Errefraktometria.	1,84
83. Metanola	Gasen kromatografia.	7,14
84. Okratoxina	ELISA (1-3 lagin)	51,00
	ELISA (4-10 lagin)	40,80
	ELISA (10 lagin baino gehiago)	30,60
85. Oboalbumina	ELISA (1-3 lagin)	51,00
	ELISA (4-10 lagin)	40,80
	ELISA (10 lagin baino gehiago)	30,60
86. pH-a	Potentziometria	2,33
87. Beruna	Atomo-xurgapenezko espektrofotometria-Grafito labea	24,48
88. Hezetasun portzentajea	Grabimetria	3,57
89. Potasioa	Atomo-xurgapenezko espektrofotometria sugarduna	11,22
90. Hibridoen presentzia	Fluoreszentziaren espektrofotometria	5,36
91. Bakterio azetikoaren kontaketa	Plakako kontaketa	12,24

92. Bakterio laktikoen kontaketa	Kontaketa plakan	12,24
93. Brettanomyces kontaketa	Plakako kontaketa	12,24
94. Legamia kontaketa	Plakako kontaketa	12,24
95. Mikroorganismo aerobio mesofiloen kontaketa	Plakako kontaketa	12,24
96. Lizun kontaketa	Kontaketa plakan	12,24
97. Aterakinaren gainerakoa	Kalkulua	10,20
98.	Kendu da	
99. Gainpresioa	Manometria	2,04
100. Sodioa	Sugardun atomo-xurgapenezko espektrofotometria	11,22
101. Sulfatoak	Prezipitazioa	5,61
102. Tonalitatea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,04
103. Uhartasuna	Nefelometria	5,61
104. Zinka	Sugardun atomo-xurgapenezko espektrofotometria	11,22
OLIOA		
105. K232	Espektrofotometria ultramorea	7,14
106. K270	Espektrofotometria ultramorea	7,14
107. DELTA K	Espektrofotometria ultramorea	7,14
108. Azidotasuna	Bolumetria	7,14

109. Peroxidoen adierazlea	Bolumetria	7,14
110. Hezetasuna	Grabimetria	7,14
111. Urtu ezineko zikinak	Grabimetria	7,14
112. Azido miristikoa	Gasen kromatografia	45,00
113. Azido palmitikoa	Gasen kromatografia	45,00
114. Azido palmitoleikoa	Gasen kromatografia	45,00
115. Azido margarikoa	Gasen kromatografia	45,00
116. Azido margaroleikoa	Gasen kromatografia	45,00
117. Azido estearikoa	Gasen kromatografia	45,00
118. Azido oleikoa	Gasen kromatografia	45,00
119. Azido linoleikoa	Gasen kromatografia	45,00
120. Azido arakidikoa	Gasen kromatografia	45,00
121. Azido linolenikoa	Gasen kromatografia	45,00
122. Azido eikosenoikoa	Gasen kromatografia	45,00
123. Azido behenikoa	Gasen kromatografia	45,00
124. Azido lignozerikoa	Gasen kromatografia	45,00

4. tarifa	ENOLOGIAREN ETA OLIOAREN LABORATEGIA. ANALITIKA MULTZOAK	Euroak
AZKEN HARTZIDURA (1)		5,10
1. Azido azetikoak	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	
2. Glukosa + fruktosa		
AZKEN HARTZIDURA (2)		6,63
1. Azido malikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	
2. Glukosa + fruktosa		
3. Azido azetikoak		
EUROPAR BATASUNEN BARNE MERKATUA EDO BOTILAKO/ONTZIRATU GABEKO ARDOAK ESPORTATZEA		Lehorrak 16,32 Gozoak 18,36
1. Azidotasun lurrunkorra	Bolumetria	
2. Anhidrido sulfurosoa, guztira	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	
3. Glukosa + fruktosa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	
4. Azido zitrikoa		
5. Eskuratutako alkohol gradu bolumetrikoa	Infragorri hurbilezko espektrofotometria (lehorrak)	
	MANB-Dentsimetria elektronikoa (gozoak)	
6. Azidotasun osoa	Potentziometria	
7. Metanola	Gasen kromatografia	
8. Aterakin lehorra, guztira	Kalkulua edo lurrunketa	
9. Masa bolumikoa 20 °C-an	Dentsimetria elektronikoa	
10. Akats organoleptikoak eta garbitasuna	(ontziratu gabeko ardoetarako soilik)	

EDARI DESTILATUEN EUROPAR BATASUNeko BARNE MERKATUA EDO ESPORTAZIOA		5,10
1. Alkohol gradu bolumetrikoa	Dentsimetria elektronikoa (2870/2000 EEE)	
2. Masa bolumikoa 20 °C-an		
3. Beaumé gradua	Kalkulua	
OSORIK		Lehorrak 8,16 Gozoak 9,18
1. Eskuratutako alkohol gradu bolumetrikoa	Infragorri hurbilezko espektrofotometria (lehorrak)	
	MANB-Dentsimetria elektronikoa (gozoak)	
2. Azidotasun lurrunkorra	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	
3. Glukosa + fruktosa		
4. Azidotasun osoa	Potentziometria	
5. pH		
6. Anhidrido sulfurosoa, guztira	Espektrofotometria ultramorea	
7. Anhidrido sulfuroso librea		
EBALUAZIO ERREFRAKTOMETRIKOA MUZTIOETAN TALDEA KENDUDA		
GOI MAILAKO ALKOHOLAK		8,16
1.1.-Butanola	Gasen kromatografia	
2.2.-Butanola		
3.1.-Propanola		
4. Azetaldehidoa		
5. Etilo azetatoa		
6. Metanola		
7. Isoamilikoak		
8. Isobutanola		

KOLOREAREN TALDEA		6,12
1. Dentsitate optikoa, 420 nm	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	
2. Dentsitate optikoa, 520 nm		
3. Dentsitate optikoa, 620 nm		
4. Koloratzailearen intentsitatea		
5. Dentsitate optikoa 280 nm		
CIELAB PARAMETROAK TALDEA. KENDU DA		
MIKROBIOLOGIA MULTZOA		30,60
1. Bakterio laktikoen kontaketa	Kontaketa plakan	
2. Bakterio azetikoaren kontaketa		
3. Legamien kontaketa		
4. Lizunen kontaketa		

OLIOETAKO GANTZ-AZIDOEN PROFILA		45,00
1. Azido miristikoa	Gasen kromatografia	
2. Azido palmitikoa		
3. Azido palmitoleikoa		
4. Azido margarikoa		
5. Azido margaroleikoa		
6. Azido estearikoa		
7. Azido oleikoa		
8. Azido linoleikoa		
9. Azido arakidikoa		
10. Azido linolenikoa		
11. Azido eikosenoikoa		
12. Azido behenikoa		
13. Azido lignozerikoa		

Analitika-multzo bat eginda ere, banako en-tseguren bat egin behar baldin bada multzoan eskainitakoaz bestelako teknika baten bidez, teknika horren banako kostua multzoaren zenbatekoari gehituko zaio”.

Hamar. 57.4. artikulua, 2. eta 3. tarifak

2. tarifa	Ziurtagiria eta begi-ikuskapena	307,53
3. tarifa	Ziurtagiria, begi-ikuskapena eta laginak hartzea	369,93”

Hamaika. 59. artikulua indargabetzea

**Bederatzigarren artikulua.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea.

2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko marxoaren

10eko 2/1995 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 162.1 artikulua

“1. Zerga honako kuota hauen arabera eskatuko da:



	“Koefizientea	Sortze-aldia
a) Turismo ibilgailuak:		
– 8 zaldi fiskal baino gutxiagokoak: 22,95	0,13	20 urte edo hortik gora
– 8 zaldi fiskaletik 12ra bitartean: 64,54	0,06	19 urte
– 12 zaldi fiskal baino gehiagokoak eta gehie- nez 16koak: 137,66	0,06	18 urte
– 16 zaldi fiskal baino gehiagokoak: 172,15	0,06	17 urte
	0,06	16 urte
	0,16	15 urte
b) Autobusak:	0,17	14 urte
– 21 leku baino gutxiagokoak: 160,60	0,22	13 urte
– 21 lekutik 50era bitartekoak: 229,48	0,29	12 urte
– 50 leku baino gehiagokoak: 286,8	0,35	11 urte
c) Kamioiak:	0,47	10 urte
– 1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria: 80,40	0,52	9 urte
	0,46	8 urte
– 1.000 kg-tik 2.999 kg-rainoko karga erabilga- rria: 160,60	0,40	7 urte
	0,33	6 urte
– 2.999 kg baino gehiagotik 9.999 kg-rainoko karga erabilgarria: 229,48	0,27	5 urte
	0,30	4 urte
– 9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria: 286,85	0,27	3 urte
	0,17	2 urte
d) Traktoreak:	0,06	1 urte
– 16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak: 39,43	0,06	Urtebete baino gutxiago”
– 16 zaldi fiskaletik 25erainokoak: 78,83		
– 25 zaldi fiskal baino gehiagokoak: 157,46		
e) Atoiak eta erdi atoiak:		
– 1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria: 40,24		
– 1.000 kg-tik 2.999 kg-rainoko karga erabilga- rria: 80,40		
– 2.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria: 160,60		
f) Bestelako ibilgailuak:		
– Ziklomotorrak: 5,78		
– 125 cc-rainoko motozikletak: 8,68		
– 125 cc baino gehiagotik 250 cc-rainoko moto- zikletak: 14,39		
– 250 cc baino gehiagotik 500 cc-rainoko moto- zikletak: 28,36		
– 500 cc baino gehiagotik 1.000 cc-rainoko motozikletak: 56,75		
– 1.000 cc baino gehiagoko motozikletak: 113,50”		
<u>Bi.</u> Honako hauek izanen dira 175.2 artikuluan ezarritako gehieneko koefizienteak:		

**Xedapen gehigarri bakarra.** Nafarroako Inbertsio Institutuaren onura fiskalak.

«Nafarroako Inbertsio Institutua» sozietate publikoak honako onura fiskal hauek izanen ditu:

1. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan:

a) Bere helburuak betetzeko zereginean lurren eta gainerako higiezin erostetarako egiten dituen eragiketarako salbuespena, bai eta Balioen Merkatuari eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko martxoaren 17ko 6/2023 Legearen 338.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten entitateen funts berekietan partaidetzak eskuratzeko diren eragiketarako ere.

b) Maileguak, kredituak edo abalak bermatze aldera sozietatearen alde ematen diren berme mota guztiak kargatzen dituen zergaren salbuespena.

2. Sozietateen gaineko zergan:

a) Salbuetsirik egonen dira enpresen kapitaleko edo funts berekietako partaidetzaren adierazgarri diren baloreen eskualdaketen lortzen dituen errentak, zein ere diren haietan duen partaidetzaren portzentajea edo gradua eta haiek eduki dituen aldiaren iraupena.

b) Salbuetsirik egonen dira parte hartzen duen sozietateek banatutako dibidenduak edo partaidentzak.

**Azken xedapenetako lehena.** Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko Foru Legearen aldaketa.

2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legearen 13. artikulua aldatzen da 1.a), b) eta c) letretan eta 4. apartatuan araututako tarifei dagokienez.

“a) Saneamendu-sare publikoetara konektatutako etxeke ur-erabilerei aplikatu beharreko karga-tasak: 0,77 euro metro kubiko bakoitzeko.

b) Saneamendu-sare publikoetara konektatutako etxekeoz bestelako ur-erabilerei aplikatu beharreko karga-tasak: 0,81 euro metro kubiko bakoitzeko. Kutsatze-kargari dagokion indize zuzentzailea aplikatuko da hala behar denean, apirilaren 5eko 82/1990 Foru Dekretuan eta abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian araututako moduan.

c) Saneamendu-sare publikoei konektaturik ez dauden baina erakunde eskudunek emandako baimen administratibo beharrezkoak dituzten erabiltzaileak: 0,095 euro metro kubiko bakoitzeko. Ibilgu publikora isurtzeko baimenean ezarritako baldintzak

betetzen ez badira, kasuko tarifa aplikatuko da, a) edo b) letretan ezarritakoa”.

“4. Arazketa-instalazio pribatuetatik datozen lohiei tarifa hauek aplikatuko zaizkie tratatuak izateagatik, baldin eta onartzen badira Nafarroako Ibaian Saneamendurako Plan Zuzendariari atxikitako hondakin-uren araztegi-tako lohi-lerroetan:

NEURKETA	PREZIOA
5 m <sup>3</sup> arte	51,77€
10 m <sup>3</sup> arte	103,54€
10 m <sup>3</sup> baino gehiago	10,36 €/m <sup>3</sup>

**Azken xedapenetako bigarrena.** 2/2018 Foru Legea aldatzea, apirilaren 13koa, Kontratu Publiko buri buruzkoa.

85. artikuluko 4 a) apartatua kentzea.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Araugintzarako gaikuntza.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

**Azken xedapenetako laugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako efektuekin.



